


Zu hemen zaude.

goiena



**"HAINBAT
IRAKURLE
MOTARENDAKO
INTERESGARRIA
DEN LIBURUA DA"**

XABIER SAGASTA LACALLE
ILUSTRATZAILEA



ANTZUOLAKO ALARDEA, KOMIKI BIHURTUTA

Antzuolako Alardearen Elkarteak beste urrats bat egin du herriko Alardea gizarteratzeko: komiki-liburua argitaratu du, Xabier Sagasta Lacalle ilustratzailearekin batera. 'Antzuolako alardea' du izena, eta atzo aurkeztu zuten. / 24

Irudi nagusian, *Antzuolako alardea* komiki-liburuaren orrialde bi; txikietan, liburuaren azala eta egilea. XABIER URZELAI



"Inbertsio handiak egin ditugu AEBetan, eta guretzat merkatu estrategikoa da" / 5

AITOR AYASTUY
ULMA CONSTRUCTION-eko GERENTEA



Animaliengan arreta jarrita, umeez ere goza dezatela

Amaia Zubiria abestariari elkarrizketa

Haizete bortitzak Agorrosin kiroldegiko teilatua altxatu du, eta ingurua itxi egin behar izan dute / 20



SINADURAK

IGOR ARIZMENDIARRIETA / 6	JOANES PLAZAOLA / 21
EVA ABUIN BIDEBURU / 9	JON KORTABARRIA MANTZIZIDOR / 25
JULEN ABASOLO / 17	ANDER ETXEBERRIA / 40

2MÓ 109€

erreflexuen aurkako betaurreko graduatuak



Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

MULTIÓPTICAS

943 79 29 95
Otalora Lizentziaduna, 18
ARRASATE




eskatu hitzordua



943 76 15 75
Ibargarai, 16
BERGARA

www.multiópticas.com





Arrasateko Arbolapeta plazako metalezko edukiontzia. JONE ARRUIBARRENA

Edukiontzien erreketak: mota askotako galerak

Azken urteotan maiz gertatu dira edukiontzien erreketak Debagoiengan. Mankomunitateak erreketen inguruko hausnarketa sustatu, eta, kalte ekonomikoek gain, ingurumenean zein bizilagunetan suteek eragiten duten kalteaz ohartarazi du

Jone Arruabarrena DEBAGOIENA
"Kalte ekonomikoek gain, ingurumena, bizilagunak, eskualde osoko herritarrak... denok gara kaltetuak hondakinen edukiontzia erretzen direnean". Mankomunitateko lehendakari Dorleta Elkorobarrutiaren hitzak dira. Mankomunitateak berak eman ditu erreketek eragindako kalteen zifrak, baina mezu argia

zabaldute dute: zifrez haratago, bestelako kalte garrantzitsuak eragiten dituzte erreketek, ingurumenari eragiten diote, eta, batez ere, bizilagunei.

Erreketek dakartzaten kalte ekonomikoak 43.773,38 eurokoak direla esan du Mankomunitateak. Eta zifra hori garrantzitsua dela nabarmendu du Elkorobarrutiak, baina beste alderdi

batzuk ere kontuan izatekoak direla azpimarratu du: "Ekonomikoki daukan kostu itzela etortzen zaigu burura horrelako gertakariren bat jasaten dugunean, baina... zer ondorio ditu ingurumenarentzat? Gertu bizi diren biztanleentzat? Erreta dagoen edukiontzia hori batzea tokatzen zaien langileentzat? Zer hausnartu badugu

komunitate bezala, kalte ekonomikoek harago joanda ere".

Izan ere, edukiontzia plastikoz, metalez zein beste hainbat materialez eginda daudenez, horiek erretzean substantzia toxikoak aireeratzen dira, eta horrek eragina du bai ingurumenean, baita inguruko airea arnasten duten pertsonengan ere. Hauze esan du Elkorobarrutiak: "Ezin ahaztu gaitzke edukiontzia erre baten inguruan etxeak, parkeak... pertsonak daudela. Pertsonen osasun eta segurtasuna lehenesten dugu eta horrelako ekintzen aurrean ondorio eta kalteak gutxitzen saiatzen ari gara".

Prebentzio neurriak

Hain zuzen, suteen kalteak murrizteko hainbat neurri hartu ditu Mankomunitateak azken urteetan. Batetik, edukiontzia jartzeko guneak lekuz aldatu dituzte, kasu batzuetan etxebizitzetatik urrunduta. Era berean, edukiontzien ordena aldatu egin dute, zabor organikoa daukan edukiontzia erdian jarrita, sua zabaltzeko aukerak gutxitzeko. Azkenik, plastikozko edukiontzia batzuk kendu egin dituzte, eta edukiontzia metalikoak jarri dituzte haien ordez. Era horretako 42 edukiontzia erosi dira, hain zuzen, azken lau urteotan.

Baina, hala ere, Mankomunitateak adierazi du irtenbidea ez dela plastikozko edukiontzia guztien ordez metalezkoak jartzea, horiek ere badauzkatelako alde txarrak. Batetik, kontuan izan behar da oraingo erosi diren 42 edukiontzia horiek 70.186,05 euroko gastua ekarri dutela. Bestalde, desabantaila gehiago ere aipatu ditu Elkorobarrutiak: "Suteren bat gertatzen bada edukiontzia metalikoek abantailak

Edukiontzien erreketak

Hilabetea	Herria	Kopurua
Urtarrila	Aretxabaleta	5
Urtarrila	Bergara	2
Otsaila	Eskoriatza	2
Otsaila	Aretxabaleta	5
Martxoa	Aretxabaleta	4
Martxoa	Arrasate	12
Martxoa	Elgeta	5

ITURRIA: DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA

dituztela esan dezakegun arren, badituzte ingurumenarekiko, egunerokotasunean gertu bizi diren biztanleekiko eta zerbitzuarekiko desabantailak; adibidez, zarata handiagoa. Beraz, aldaketak egin ahal izateko, kasuan kasu azterketa sakona egin beharra egoten da".

Hala ere, irtenbide materialez harago, Elkorobarrutiak adierazi du heziketan dagoela gakoa, arreta "ardura kolektiboan" jartzean, hain zuzen. Bide horretatik, konponbidea "erreketak ekiditea" dela adierazi du: "Horretarako ezinbestekoa dela uste dugu ikerketa sakonagoak egitea eta ardura kolektiboan sakontzea, denon betebeharra baita ingurumenarekin eta inguruko elkarbizitzarekin arduratsu jokatzeko".

LEKU BATZUETAN PLASTIKOZKO EDUKIONTZIAK METALEZKOEKIN ORDEZKATU DITUZTE

Eskola publikoaren alde protesta egin dute gurasoek

"Kalitatezko hezkuntza" eskatu dute haien haurrentzako, eta horretarako hainbat neurri aldarrikatu

Jone Arruabarrena ARETXABALETAK
Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Departamentuarekiko desadostasuna adierazi du guraso talde batek Aretxabaletan, Kurtzebarri eskolaren aurrean asteazkenean egin zuten elkarretaratze

baten bidez. Eskola publikoan "kalitatezko hezkuntza" behar dela aldarrikatu dute, eta beharrezko ikusi dute gurasoek haren alde egitea.

Hainbat aldarrikapen egin dituzte elkarretaratzearen amaie-

ran irakurri duten komunikatu batean. Besteak beste, irakasleen zereginen burokratizazioa salatu dute, ratioak eguneratzeko beharra ere mahaigaineratu, eta ordezkapenen kudeaketa txarra gaitzetsi dute. Horrez gain, giza baliabide gehiago eskatu dituzte, ikasgeletan inklusioa bermatzeko. Azkenik, Hezkuntza Sailaren baliabide guztiak hezkuntza publikora bideratu daitezkeen eskatu dute, eta segregazioa eragiten duten neurriak bukatzeko eskatu dute.



Asteazkenean egin zuten protesta, plazan. JONE ARRUIBARRENA

Bazkide kopuruan hazkunde handia izan du Goienagusik

Urteko batzar nagusia egin du Goienagusik; proiektua egonkortzea da elkartearen aurtengo helburua

Gontzal Belategi Zubia DEBAGOIENA Astean egin du Goienagusik urteko batzar orokorra, Kulturaten, Arrasaten. 295 bazkide ditu egun elkarteak, eta, Goienagusiko idazkari Mikel Goenagak adierazi duenez, asko hazi da bazkide kopurua: "Ikaragarria izan da aurten zelako hazkunde izan dugun".

Orain arte, proiektua ezagutaraztea izan da elkartearen helburu nagusia: "Orain arte, guretzako gauza garrantzitsua elkarrekin ezagutaraztea izan da, konturatu ginelako jende askok ez zuela ezagutzen Goienagusi. Poliki-poliki bagoaz horri buelta ematen". Eguneroko lanak berebiziko garrantzia du ezagutarazte horretan. 2024an, 47 hitzaldi antolatu zituzten, baita beste hainbat ekintza ere. Urte ona izan zela azaldu du Arantza Gardokik, Goienagusiko presidentea: "Ekintzen kalitatea mantendu egin dugu, eta hori nahi dugu. Ekintza berri batzuk ere sartzen gabiltza".

Egonkortasuna helburu

Ezagutarazte eta hazkunde lanean izandako emaitzekin pozik, 2025erako erronka nagusi bat adostu zuten batzar nagusian: proiektua egonkortzea. "Bazkide asko gara eta gauza asko egiten ditugu. Komeni zaiguna da egonkortzea eta egiteko moduak finkatzea, gure ondoren datozenek ere berdin antzean lan egin dezaten", esan du Goenagak. Gardokik ere ezinbestekotzat jotzen

du egonkortze hori une honetan egitea: "Orain, aurrez egindako horrekin guztiorrekin, ikusten ditugun hutsuneak betetzen joatea egokitzen zaigu".

Boluntario beharra

Egonkortze horrekin batera, ekintzak aurrera eramaten lagunduko duten pertsonen beharra dutela azpimarratu du Goenagak: "Daukaguna mantendu egin nahi dugu, hitzaldien kalitatea barne, eta horretan jarraitu, baina, horretarako, jendeak inplikatu egin behar du lanerako". Partaidetza hori sistematizatu nahian dabiltzala ere gaineratu du: "Jendearen atzetik ibiltzeko beharra egoten da, ez da ohikoa jendea bere kabuz etortzea, nahiz eta beti lortzen dugun taldeak osatzea. Hala ere, hori, nola edo hala, sistematizatu egin nahi dugu".

Berrikuntza bat egitarauan

Orain arteko ekintzak mantentzea izango da elkartearen helburua, baina, Gardokik adierazi duenez, berrikuntza bat ere izango dute: "Hiru eguneko irteera bat izango da, Bordelera, ikasturte bukaera bezala. Ondo baldin badao, urtero egiteko aukera ematen du".

PROIEKTUA EGONKORTZEA DA GOIENAGUSIREN 2025EKO HELBURU NAGUSIA



Goienagusiren urteko batzar nagusia, Kulturaten, Arrasaten. MIREIA BIKUÑA




Gure ikasleen ahotan



Izen-abizenak: Julen Mondragon
Herria: Antzuola
Ikasketak: Batxilergoa Bergarako Ipintza Institutuan
Gradua: Ingeniaritza Mekatronikoa
Zaletasunak: Arrantza eta futbola

"Gehien gustatzen zaidana gelakideen arteko batasuna, irakasleen gertutasuna eta ikasteko unibertsitateak jartzen dituen bitartekoak dira"

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?
 Guztiz positiboa izan da, lagunak, erronkak eta ezagutza berri asko jaso ditut. Goi Eskola Politeknikoarengan nituen itxaropen guztiak bete dira, nahiz eta batzuetan estu ibili. Estu ibiltzea ikaste prozesuaren parte baita.

Nola definituko zenuke jasotzen duzun ikasteko metodologia?
 Talde lana, errealtateari zuzendutako arazoaren aurrean aurre egiteko trebakuntza eta praktikotasuna.

Unibertsitateetik zer da gehien gustatzen zaizuna?, Eta zerbait hobetzeko?
 Gehien gustatzen zaidana gelakideen arteko batasuna, ikasle zein irakasleen arteko gertutasuna eta ikasteko prozesuan unibertsitateak jartzen dituen bitartekoak dira. Bestalde, beste hainbat zerbitzu baliagarri ere badaude, kirol zerbitzua, aisialdiko

ekintzak, eta abar. Zerbait hobetzekotan, nire eskaria zera izango litzateke: ikasleak gehiago kontzientziatzea ingeniari titulua eduki arren, norberak bere partetik ez badu jartzen ganorarik ez dagoela ezer.

Lanean ari zara ikasten duzun bitartean, Dual ereduari. Non ari zara jardunean eta zer lan mota egiten duzun?
 ULMA Packaging S.Coop-en nabil dual ikasle moduan lanean. Lanean ari naizen bitartean gaur egungo teknologia berriei buruzko ezagutzak eta enpresa munduko ezagutzak barneratzen noa. Nire eginkizun nagusia periferikoaren integrazioan parte hartu eta ikasten joatea da.

Zer nolako ekarpena egiten dizu eredu dualak?
 Enpresa munduaren errealtatera gerturatzen nau, nire profila hobetzen lagunduz.

IRAKASLE LANPOSTU BAT, OPOSIZIO-LEHIAKETA LIBREAREN BIDEZ.

Informazioa, Bergarako Udalaren webgunean (www.bergara.eus) UDAL ZERBITZUAK/UDAL EUSKALTEGIA atalean.

Izen ematea: apirilaren 11ko 14:00ak arte.

Zergatik aukeratu zenuen Ingeniaritza Mekatronikoa gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea? Bere ikuspegi zabalagatik profil polibalente bat eskeintzen didalako. MU aukera bikaina iruditu zitzaidan, gertutasun eta metodologiagatik.

Lanbide Heziketakoak, adinekoekin elkarlanean

Arizmendiko Lanbide Heziketako ikasleek hamabost tailer emango dizkiete adineko pertsoneri, Arrasateko Ferixalekua gunean. Hala ere, Aita Menni eguneko zentrora, Atartera, GSRra eta Eskoriatzako eguneko zentroan ere emango dituzte tailerrak

Imanol Beloki Unamuno DEBAGOIENA
Bailarako adinekoak eta Arizmendiko Ikastolako Lanbide Heziketako ikasleak Arrasateko Kulturaten batu dira asteon, Bizitza Betea proiektua aurkezteko eta orain arteko ibilbidearen balorazioa egiteko. Fase pilotuak emandakoarekin "oso pozik", jarraitzeko borondatea erakutsi dute.

Iaz hasi zuten proiektua, Helduak Adi! elkartearen eta Bizipoz kooperatibaren eta Arizmendiko Lanbide Heziketaren arteko elkarlanarekin. Bailarako adinekoen eragileen mapa bat sortu eta euren nahiak, premiak eta elkarlanerako interesak identi-



Bizitza Betea proiektua aurkezpenean batutakoak, Kulturaten. GOIATZ ARANA

fikatu zituzten. Lan hartatik abiatuta eta Aldundian egindako eskaera onartuta, martxan jarri zuten ekimena, oraingo ikasturteari begira.

Izen-ematea zabalik dago

Hiru zutabe nagusi ditu proiektuak. *Bizitza betearen ikuspegia* da lehena: adineko pertsonen izan ditzaketen premia konkretuei erantzutea, zahartzaro aktibotik harago doan kontzeptuari helduz; *Belaunaldiartekotasuna* da bigarrena: adin guztietarako gizartea osatu ahal izateko, gazteek eta helduek elkarlanean jarduteko aukera ematen duten testuinguru pedagogiko-afektiboak sortzea; eta *Zerbitzu ikaskuntza*: ikasleek, ikasketa prozesuan garatzeko, adineko pertsonekin batera aurrera eramandako proiektuetan parte hartzea. Horren baitan, osasun larrialdietakoek, mikroinformatikakoek, erizaintzakoek eta gizarte eta kirol animaziorako irakaskuntzakoek emango dizkiete tailerrak. 172 hartzailek erakutsi dute interesa tailerretan parte hartzeko, eta izen-emateak zabalik jarraitzen du: adinarte@arizmendikide.net.

Ekotopaketak egingo dituzte hilaren 28an eta 29an, Arrasaten

Hego Euskal Herriko ekologis- moak jauzi kualitatibo eta kuantitatiboa ematea helburu duen gizarte mugimendu kultural eta ekintzailea da Jauzi Ekosoziala, eta, mugikortasun eredu kapitalista salatzeke, martxoaren 28an eta 29an Euskal Herriko II. Ekotopaketak egingo ditu Arrasaten. Hain zuzen, mugikortasun eredu kapitalista aztertuko dute, eta, trantsizio ekosoziala hobeto bizitzeko ezinbestekoa dela azpimarratuz, bertaratzeko dei egin diete herritarrei, joan den zapatuan Bergarako biaduktuan egindako aldarrikapen-ekintzan adierazi zuten bezala. "Trantsizio ekosozialera bidean mugikortasun kapitalista aztertu eta beste norabide bizigarriago batzuk erakitzeko egin beharreko urratsez arituko gara".

Ekotopaketaren gaineko informazio guztia Jauzi Ekosozialaren webgunean dago eskuragarri, eta han dago izena emateko galdetegia, egitarau osoa eta informazio praktikoa.



ELKARLANEAN ERAIKITAKO ESKOLA ANITZA

MATRIKULAZIOA

APIRILAK 8 - 19

BATXILERGOAK



- Zientziak eta Teknologia
- Giza eta Gizarte Zientziak
- Arteak
- Orokorra

Ateak zabalik
Martxoak 24, 18:00



www.arrasatebhi.hezkuntza.net
943 89 94 78

- Zientziak eta Teknologia
- Giza eta Gizarte Zientziak



www.ipintzabhi.hezkuntza.net
943 89 94 44

- Zientziak eta Teknologia
- Giza eta Gizarte Zientziak



www.onati.net
943 89 92 98

Guztion eskola, guztion artean



Aitor Ayastuy, Arrasaten, Santa Barbarako jolasparkearen ondoan. L.Z.

"Eginez ikasten da, ez dago errezeta magikorik"

AITOR AYASTUY ULMA CONSTRUCTION-EKO GERENTEA

Ulma Constructionek nazioartekotzea erronka gisa baino gehiago aukera gisa ikusten du; horri lotuta, egokitzapena eta berrikuntza funtsezkoak dira

Sara Lanz Azpiazu ARRASATE

Bailara Elkarrean antolatutako enpresen nazioartekotzearen inguruko saioa egin da, berriki, Arrasaten. Bertan, askotariko sektoreetan liderrak diren erakunde eta enpresak bildu dira, esperientziak partekatzeko eta euren ereduak ezagutzera emateko. Ulma Construction izan zen bildu enpresa horietako bat, eta, haien kasuan, nazioartekotzea aspalditik lantzen duten erronka da, eta enpresaren eguneroko funtzionamenduaren

parte bihurtu da. Hain zuzen ere, Ulma Constructioneko gerenteak, Aitor Ayastuy, enpresaren nazioarteko bidea, merkatuaren egoera eta etorkizuneko erronkak izan ditu hizpide. **Nazioartekotzea kezka iturri nagusietako bat da?**

Egia esan, guretzat ez da kezka iturri bat, gure eguneroko lana baizik. Aspaldi hasi ginen nazioartekotzen, eta gaur egun gure negozioaren zati handi bat kanpoan egiten dugu. Bere momentuan egiten guren urrats bat izan

zen, eta, zorionez, gaur egun emaitza onak ematen dizkigu.

Hala ere, gaur egungo ziurgabetasunak alerta pizten du?

Bai, hori argi dago. Gaur egun, egunero entzuten ditugun berriek adi egotera behartzen gaituzte. Mehatxu ugari daude, eta ez dakigu esaten den guztia zertan geratuko den. Guk inbertsio handiak egin ditugu Ameriketako Estatu Batuetan, eta guretzat merkatu estrategikoa da.

Horrelako topaketek garrantzia dute esperientziak partekatzeko

eta enpresen arteko loturak sendotzeko?

Bai, zalantzarik gabe. Bertan, enpresa mota askotako profesionalak bildu ginen; nor bere esperientzia elkarbanatu zuen. Gure kasuan, nazioartean ibilbide luzea dugu, baina beste enpresa batzuen ikuspegia eza gutzea beti da baliagarria.

Entzundakoen artean, ideia edo gako berezirik hartu zenuen?

Eginez ikasten da, ez dago errezeta magikorik. Urteak daramatzagu filial berriak zabaltzen eta esperientzia metatzen. Akatsak ere egin ditugu, eta horietatik ikasi dugu. Beste enpresa batzuen esperientziak ideia berriak ematen dizkizute, nahiz eta, agian, praktikoki ezin ditugun aplikatu.

Zein dira Ulma Constructionen negozio-lerro nagusiak?

Eraikuntza-enpresa bat garela dirudi, izenagatik, baina guk ez dugu eraikuntzarik egiten. Aldamioak, zinbriak eta enkofratuak diseinatu, ekoiztu eta merkaturatzen ditugu. Produktuak Oñatin egiten ditugu eta bi modutan komertzializatzen ditugu: alokairuan edo salmentan. Bezeroak eraikuntza-proiektu bat aurkezten digu, eta guk enkofratu eta aldamioren aukera onena proposatzen diogu.

Zenbat langile zarete Ulma Constructionen?

Guztira, 1.400 pertsona inguruk osatzen dugu taldea: 700 filialetan daude, 700 estatu mailan, eta horietatik 430 Euskal Herrian.

Zein dira zuen merkatu nagusiak? Handienetik txikienera: Espainiako Estatuak, AEBetako ekialdea, Polonia, Brasil eta Italia.

Zein izan da zailtasunik handiena?

2008ko higiezinaren krisiak gogor jo gintuen. Espainian, 224 milioi euro fakturatzetik 28 milioira jaitsi ginen. Urte zailak izan ziren, baina azken hiru urteotan egoera egonkortu dugu eta emaitza onak ditugu.

Geografikoki dibertsifikatuta egoteak lagundu al dizue?

Bai; argi izan dugu estrategia hori. Gure negozioak logistika eta erantzuteko gaitasuna eskatzen ditu. Merkatu bat aukeratu, bertan inbertitu eta gure lekua aurkitzen saiatzen gara. **AEBek altzairuari eta aluminioari ezarritako %25eko muga-zergak nola eragiten dizue?**

Eragingo digu, obrak gelditu egiten badira, garestitzeagatik. Gure produktuak ez dira hain-

beste kaltetuko, baina eraikuntza-industria osoari eragin diezaioteko.

Europako Batzordeak muga-zergak ezarriko dizkie AEBei; egokia iruditzen zaizue?

Trump-ek hasitako gatazka da; arazoa da guk inbertsioak baldintza batzuetan egin ditugula, eta orain arauak aldatzen ari direla. Espero dugu negoziazio bat egotea, neurriak gogorregiak izan ez daitezela.

Zein dira nazioartean lehiakorrik izateko gakoak?

Produktu propioak garatzen ditugu, ingeniartzen eta berrikuntzan inbertituz. Digitalizazioa eta jasangarritasuna funtsezkoak dira. Gainera, kooperatiba izanik, gure langileek proiektua bere sentitu behar dute.

Nor dira zuen lehiakide nagusiak?

Alemaniar eta Austriako enpresak dira gure lehiakide nagusiak. Mundu mailan hirugarren edo laugarren postuan gaude, eta merkatu askotan liderrak gara.

Eraikuntza-sektoreak susperraldia bizi du?

Espainian eta Hego Amerikan bai, baina AEBetan eta Alemanian egoera ez da hain ona.

Ulma Taldeak nola itxi zuen 2024. urtea eta nola begiratzen dio 2025ari?

2024. urtea oso ondo itxi genuen: 1.150 milioi euroko fakturazioarekin eta 5.600 langilerekin, horietatik 3.000 Euskal Herrian. 2025ari begira, proiektu berrietan ari gara lanean, medikuntzarako diagnostiko-makinetan, *Medical Technologies* foruarekin. Oñatin izango du egoitza, eta kooperatiba berri bat izango da taldearen barruan.

"GAUR EGUN, EGUNERO ENTZUTEN DITUGUN BERRIEK ADI EGOTERA BEHARTZEN GAITUZTE"

"MUNDUAN HIRUGARREN EDO LAUGARREN GAUDE; MERKATU ASKOTAN LIDERRAK GARA"



Elkarrizketa osorik *Barbagai* saioan ikusteko, eskaneatu QR kode hau.



ZABALIK

IGOR ARIZMENDIARRIETA

Zilarrezko ezteiak Goienan

Bailarako herri aldizkariak ireki zituzten bidezidorrak izan zituen abiapuntu 2000. urtean Goienak. Hogeita bost urte beteko ditu aurki Goienak; zilarrezko ezteiak, ezkontzen hizkuntzan. Ez da zifra makala. Pentsatzen hasten zara eta... 25 urte informatzen, gure bailarako eta herriko berriak egunero zintzo eta hainbat euskarritan ematen. ETB1en entzun nion Goienako edukien arduradun Eneko Azkarateri informatzerakoan kontuz ibiltzen direla alderdi politikoekin eta eskolekin. Batez ere, eskolen matrikulazio-kanpainetan eta hauteskunde-sasoietan. Gai korapilatsuak.

Zeresana sortzen duen beste gai bat ere badugu aspaldian; bai onerako zein txarrerako: eguraldia. Orain, telebista kate bateko albistegi bati begira nago, eta notizia omen da hotz egiten duela gaur; bitxia albiste. Hor dago

ORDUAN NOTIZIA IZANGO DA HILEKO LEHEN EURI-TANTAK ERORI DIRELA MARTXOAN

kazetaria, kaleko jendea iruditzen zaion gaurko hotza –martxoaren 17a–. Neguan bagaude, zero gradu inguruan egotea normala izango da; ala ez? Ba, badirudi ezetz. Neguan hotz egiten

duela albistegietan notizia izateari, ba, ez diot zentzurik aurkitzen. Eta udaran berdin; orain hotzetan dagoen kazetaria berrogei gradutan agertuko da, udaran bero egiten duela esanez.

Beste hogeita bost urte barru, Goienak urrezko ezteiak ospatzen dituenean, adi egongo naiz ea zer dioen eguraldiko kazetariak telebistan. Seguru aski, orduan notizia izango da hileko lehendabiziko euri-tantak erori direla martxoan, eta, bitartean, lehorreak bere horretan jarraitzen duela esango digute. Orduan bai izango dugula eguraldia mintzagai, hezkuntza eta politika gaien gainetik. Eta Eneko Azkarate –erretiroa hartuko du lehenago, seguru aski– entzungo dugu ETB1en esaten gai korapilatsuenak eguraldiarekin zerikusia dutenak direla. Eta hori kezagarria izango da; izan ere, gure planeta izorratu dugun seinale argia zango da.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Smartphoneak, harremanak eta garapen intelektuala

JULEN LINAZASORO

'BERRIA'-N ARGITARATUA

HTTPS://LABUR.EUS/YP92XC7K

Smartphoneen eta sare sozialen arriskuen inguruan hitz egiten denean, beti azpimarratzen dira gure osasun mentalean dituzten ondorioak, gehiegizko erabilera, sare sozialek sortzen duten polarizazioa, sare sozialetan dagoen indarkeria, iruzurrak, adikzio-arriskua... Baina oso gutxitan aipatzen da sare sozialen eta smartphoneen erabilerak nola eragin dezakeen gure harreman

pertsonaletan eta gure garapen intelektualean.

Ikerketa batzuek erakusten dutenez, pantailak erabiltzeak, etengabe ikusmen- eta entzumen-estimulu asko jasotzeak, etengabe bideo laburrak ikusteak edo berehalako sariak jasotzeak etengabeko arreta eta kontzentrazioa murrizten ditu.

Garrantzitsua da ondorio horiek eta aldi berean ondorio horiek sortzen dituzten arazoak ezagutzea. Unibertsitateetan eta institutu batzuetan, irakasleak kezak hasi dira ikasleak ez direlako gai testuliburuak irakurtzeko eta ulertzeko, eta bideoak egin behar dizkiete

edukiak barneratu eta ikas ditzaten. Hori gertatzen da irakurtzeak ikasleei ahalegin handiegia eskatzen dielako, denbora luzez zeregin bakarra eginez kontzentratzea oso zaila egiten zaielako. Pertsona askok sare sozialek erabiltzen hasten direnean apurka-apurka liburuak irakurtzeari uzten diote, bost orrialde baino gehiago jarraian irakurtzea ahalegin handia delako. Nekatu egiten dira edo inkontzienteki irakurtzeak ez die arreta deitzen, eta beste momentu baterako uzten dute. Horrek gure gizartean ere inpaktu handia du, ikuspuntu kritikoa garatzeko gaitasuna... [...]

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.
Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube,
Larraitz Zeberio.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.
Sailtetako arduradunak
Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Gontzal Belategi.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Amaia Mundinano, Naroa Inza,
Olatz Alberdi.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Leire Etxebarria.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.550 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagakako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

HANDIK HONA

Jone Arruabarrena BERGARA
Badira 13 urte Yves Roosek (Gante, Belgika, 1971) Bergarako Harrizuri hortz-klinika zabaldu zuela. Flandiarra da izatez, eta Manchesterren ere bizi izandakoa; baina euskaraz egiten die bezeroei lehen hitza.

Zer duzu gustuko Belgikatik?
Aspaldi da Flandriatik alde egin nuela; nire bizitzaren erdia baino gehiago kanpoan egin dut. Hala ere, Flandriak ez dauka oso kultura aberatsa, esaterako, Euskal Herriarekin alderatzen badugu. Festa Nazionala dago, garagardoa, txokolatea eta halako jakiak gustuko ditut... baina kulturaren zati handi bat galdu egin da, Frantziako, Alemaniako eta Espainiako inperiopean egotearren.

Belgikarra baino gehiago, flandriar sentitzen zara?
Bai, ni flandriarra naiz. Niretzako Belgika herri artifizial bat da. Belgikako iparraldean Flandria da, eta hegoaldean frantsesez egiten da. Bi hizkuntza oso desberdin dauzkagu, Euskal Herrian bezala. Belgikako eskoletan bi hizkuntzak jakin behar dira berez. Guk badakigu frantsesez, baina frantziar aldekoek ez dakite flandrieraz.

Ezberdintasuna dago hemengo eta Belgikako jendearen artean?
Bai. Hemen jendea zabalagoa da. Bestalde, han negua gogorragoa da, eta jendea etxean geratzen da. Hemen kaleko kultura handiagoa dago. Flandrian kuadrilla bat daukat, eta beti gutako norbaiten etxean elkartzeko gara, eta ez kalean. Adibidez, nire osaba-izebak bisitan etorri ziren joan den astean, eta harrizuri geratu ziren kaleko giroarekin. Hemen jendeak ezagutu egiten zaitu eta agurtu egiten zaitu.

Ganten jaio zinen, baina Manchesterren ere bizi izan zara.
Bai; Ganten bizi izan nintzen 23 urtera arte. Nire familia osoa Gantekoa da: aitona, amona... Unibertsitateko azken urtean Erasmus egin nuen, eta Manchesterrera joan nintzen hiru hilabete igarotzera. Azkenean,

"Kanpotik datozenei euskara ikastea gomendatuko nieke"

YVES ROOS BELGIKAR JATORRIKO BERGARARRA



Yves Roos, Bergarako hortz-klinikaren aurrean. JONE ARRUABARRENA

Manchesterren geratzea erabaki nuen, eta 12 urte eman nituen han. Bergarako neska bat ezagutu nuen han, nire seme-alaben ama.

Zergatik erabaki zenuen Manchesterren geratzea?
Pentsatu nuen Belgikara bueltatzea, baina, azkenean, bizitzaren gorabeherak... Gainera, Belgikan 11 milioi lagun bizi dira toki txiki batean, eta dena laua da. Hori ez zait gustatzen. Niri gehiago gustatzen zaizkit mendia, zelaiak eta kanpoko

"HEMEN KALEKO GIROA DAGO; JENDEAK EZAGUTU ETA AGURTU EGITEN ZAITU"

"BETI HIRU HIZKUNTZA ERABILI IZAN DITUGU ETXEAN, ETA GAZTELERA OSO GUTXI"

bizitza. Noizean behin, urtean behin edo birritan, bisitan joan ohi naiz, eta han bi egun daramatzadanean Euskal Herrira bueltatu nahi izaten dut.

Noiz erabaki zenuen Manchesteretik Bergarara etortzea?

Seme zaharrena Manchesterren jaio zen, eta, gure alaba jaiotzear zela, Bergarara etorri ginen, duela 18 urte.

Hiru lekutan bizi izan eta gero, nongoa zara?

Europakoa naizela sentitzen dut. Faltan igartzen dut batzuetan Ingalaterra, eta noizean behin ere joaten naiz hara, han ere lagunak dauzkadalako. Baina nire familia hemen daukat, eta baita hortz-klinika eta lagunak ere. Hemen gustura nago.

Hizkuntza oztipoa izan da zuretzat?

Nire seme-alabek beti egin dute euskaraz etxean, elkarren artean eta emaztearekin. Nik eta emazteak ingelesez egiten genuen gure artean, eta nik seme-alabekin flamenkoz egiten dut. Beti hiru hizkuntza erabili izan ditugu etxean, eta gaztelera oso gutxi. Hala ere, lehenengo lau urteetan Gasteizen egiten nuen lan, eta, lehenengo, gaztelera ikasi nahi izan nuen. Orain, bost urte daramatzat euskaltegian.

Nolako esperientzia izan da euskara ikastea?

Hizkuntza polita da, baina zaila. Esfortzu handia eskatzen duen arren, jendeak asko apreziatzen du, eta ulertzen dut hori. Flandrian antzerako zerbait gertatzen zaigu. Flandriera ez da berez

hizkuntza ofizial bat, herbehereraren dialektotzat hartzen da. Belgikako hegoaldean frantsesez egiten denez, batzuetan kalean jendea frantsesez hasten zitzaizun hizketan, eta nik pentsatzen nuen: "Ez gaude Frantziar; zergatik egin behar dit frantsesez?". Esan nahi dudana da jakin ez arren ere hitz batzuk euskaraz egitea beharrezkoa dela.

Erraztasunak eman dizkizu euskaraz jakiteak?

Bai. Badago hemen 30 urte daramatzan jendea, eta ez dakiena euskaraz bi hitz esaten. Kanpotik datozenei gomendatuko nieke ikastea, hemen asko apreziatzen delako.

Euskaldunak eta flandriarrak: txirindularitzak eta hizkuntzak batuta

"Txirindularitzari eta hizkuntzari dioten errespetua"; hori daukate komunean euskaldunek eta flandriarrek, Rooson iritziz. Izan ere, Belgikan eta Euskal Herrian txirindularitzarekiko dagoen adizioak harriz zuen Roos hona iritsi zenean. Hizkuntzari dagokionez, flandrierak izan duen egoeragatik, euskararekin antzekotasun handiak dituela dio, baita zaila delako ere. Hala ere, euskaldunak belgikarrak eta ingelesak baino "dezente irekiagoak" direla dio: "Gu ohituta gaude itxiagoak izatera, eta hemen, nire ustez, nahiko irekia da jendea. Ez dut uste zaila denik hemen integratzea, modu askotara egin daiteke, eta jendeak harrera ona egiten dizu". Ordea, "esfortzu txiki bat" egitea garrantzitsua dela dio Roosek. Euskal kultura eta gastronomiaren aberastasuna ere maite du, eta euskaldunak, orokorrean, "oso jatorrak" direla dio.

Bi noranzko mantenduko dituzte Otalora kalean

Mugikortasun Planaren lehen proposamenean, Otalora Lizentziaduna kalea noranzko bakarrekoa izatea proposatzen zuten, Gipuzkoa etorbideko biribilgunetik Taupa taberna pareko biribilguneraino, baina bi noranzkoko mantenduko dute, azkenean

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Iazko urrian aurkeztu zuen Arrasateko Udal Gobernuak hasiera batean onartutako proposamena, eta, herritarrekin hainbat bilera egin ostean, zenbait aldaketa egin dizkiote proposamen hari. Hala, ondo bidean, udalbatzak apirilaren 1eko osoko bilkuran emango dio behin betiko onarpena planari.

Herritarrekin egindako parte-hartze saioen ondoren, eta alegazio guztiak aztertu ostean, aldaketa batzuk egin dituztela azaldu du Garazi Etxeberrriak, Hirigintza, Trantsizio Ekologikoa eta Mugikortasun zinegotziak. Horiek, betiere, planaren helburu nagusienekin bat datoze-lako egin dituzte: "Bide-segurtasuna areagotzea, emisioak murriztea eta oinezko eta bizikletazko mugikortasuna sustatzea, ibilgailu pribatuaren erabilera murriztuz. Horrek, ezinbestean, espazioaren berrantolaketa egitea dakar, azken urteetan egin bezala".

Plan "aberatsagoa" da orain

2024ko urritik abendura egindako parte-hartze prozesuari dagokionez, "oso emankorra" izan dela azpimarratu du Etxeberrriak: "Proposamenek plana aberastu dute. Hirigintza takti-



Otalora Lizentziaduna kalean bi noranzko mantenduko dituzte. E.A.B.

ko bitartez egin daitezkeen esku-hartzeak proposatu dira, orokorrean, eta horrek planaren norabide egokia erakutsi digu".

Jasotako proposamenak, oro har, "arduratik eta konpromiso jasagarritik" egin direla gaineratu du zinegotziak: "Mugikortasun jasagarrian aurre-rapausoak ematea bizi-kalitatean aurrera egitea dela uste dute herritarrek".

Otalorarekiko erabaki aldaketa

Mugikortasun Jasagarriarako Planaren lehen proposamenean,

Otalora Lizentziaduna kalea noranzko bakarrekoa izatea proposatzen zuten, Gipuzkoa etorbideko biribilgunetik Taupa taberna pareko biribilguneraino. "Edozelan ere, proposamenaren konplexutasuna ikusita eta planaren epemugaren barruan txertatzeko zailtasunak kontuan hartuta, planaren idazketa-taldeak erabaki du bi noranzkoko zirkulazioa mantentzea", adierazi du Etxeberrriak.

Halere, neurriaren egokitasuna baloratzeko, datuak bilduko dituzte datozen urteetan, trafi-

koaren monitorizazio eta simulazio azterketa eginda. "Horrela, bost urte barru, plana berridatzi beharko denean, datu zehatzak izango ditu Udalak, neurria hobeto aztertzeko".

Bestetik, autobus geltoki nagusia Zalduspen kokatuko dutela berretsi du zinegotziak: "Urrats hori hasiera besterik ez da izango etorkizunean autobus geltoki duina izan dezagun. Horretarako, baina, proiektuak prozesu luzea gainditu beharko du". Bertan aurreikusten du Gobernuak egiteko asmoa duen sei disuasioko aparkalekueetatik lehena eraikitzea, autobus geltokiko lanekin batera.

Hirigintza taktikoa indartu

Horrez gain, hirigintza taktikoa indartzea izango da planaren helburuetako bat: "Espazio publikoa berreskuratzea eta haren balio partekatua maximizatzeke prozesu kolektiboa da hirigintza taktikoa. Esku-hartze arinak, kostu txikikoak eta inplementatzeko errazak diren neurriak dira, modu taktikoan espazioak hobetzeko aukerak proposatzen dituztenak".

Horren baitan, bi proposamen nagusi irten dira herritarren proposamenetatik: batetik, Elma auzoan dagoen Euskal Herria plazako saihesbidea auzoarentzat berreskuratuko dute. "Auzotarrek egindako eskaera honetan, Deba kaleko errepidea bere abiapuntuko bi noranzkoetara itzuliko litzateke, eta Euskal Herria plazako *errotonda* desagertu egingo litzateke", dio zinegotziak.

Bestetik, Nafarroa etorbidea eta Zerrajera kaleak noranzko bakarrekoko izango dira ibilgailu motordunentzako, Kontzezino kalea eta Nafarroa etorbidea Apendices kaleare-

kin elkartzen diren bideguru-tzeraino. "Horretarako, bi noranzko izango dituen bizikleta-bide bereizi bat sortuko da, eta zati batzuetan aparkaleku berriak sortzea aztertuko da".

Bidegorri sarea handituko dute

Era berean, bidegorri sarea handitu egingo du Udal Gobernuak, eta bidegorririk ez dagoen lekuetan motordunen eta bizikleten arteko "bizikidetzeta segurua" bermatzeko "gune mistoak" margetuko dituztela ere jakinarazi du. "Neurri horrek ez du bidegorrien hedapena ordezkatzen, baina bizikletari ikusgarritasun handiagoa emango dio autoaren aurrean. Modu horretan, autoek ezinbestean errespetatu beharreko neurri bilakatu da", adierazi du Etxeberrriak.

San Andres auzoan bidegorri bereizi berria ere egingo dute: "Uribesalgoko etxeetan amaitzen den bidegorri bereziaren jarraipen obrak gauzatu nahi ditugu; horretarako, dagoeneko esleitu dugu proiektua idazteko lana".

Beste hiru igogailu

Azkenik, Mugikortasun Jasagarriarako Planak hiru igogailu aurreikusten ditu: Gorostiza auzoan, Altamira auzoan eta Maiatzaren 1a plazan. Horieta-ko lehena Gorostiza auzoakoa izango da: "Igogailu horren proiektua idazteko pleguen prestakuntzan ari gara dagoeneko". Hori da, hain zuzen, auzotarren eskarietako bat (Ikus 10.orria).

NAFARROA ETORBIDEA ETA ZERRAJERA KALEA NORANZKO BAKARREKOAK IZANGO DIRA

Irrintzia izango dute ardatz gaur eta bihar Emakume Txokoan

Gaur, egubakoitza, 'Erraiak' filma proiektatuko dute Kulturateko areto nagusian, eta solasaldia egingo dute

E.A.B. ARRASATE

Arrasateko Emakume Txokoaren eskutik, *Erraiak* filma proiektatuko dute gaur, 18:30ean, Kulturaten. Ekain Martinez de Lizarduy irakasle eta antropologoak eta Artemanek 2018an elkarla-

nean sortutako dokumentala da *Erraiak*. Azaldu dutenez, "erritmo bizian, irrintzi ugariz jantzia, argazki izugarriekin, 32 minutuan dokumentalak irrintzia zer den azaltzen du, emozioak eraginez eta hausnartzera gonbita

eginez". Ekain Martinez de Lizarduy Kulturaten izango da gaur, eta, filma proiektatu ostean, solasaldia egingo du, Isabel Kirze Otxandianorekin batera.

Irrintzilaria eta irrintzian aditua da Isabel Kirze, eta bihar, zapatua, irrintzi tailerra egingo du Emakume Txokoan, 10:30ean hasita. Izena eman beharko da, 943 79 41 39 telefono-zenbakira deituta edo 618 20 62 33 zenbakira idatzita, Whatsappez. Nabarmendu dutenez, tailerrak interes handia sortu du.

Dagoeneko martxan da San Juan jaietako kartel lehiaketa

Arrasateko Udalak dagoeneko publikatu ditu lehiaketako oinarriak. Lanak originala izan beharko du eta kartela osatzeko teknika librean izango da. Kartelak nahitaez bertikala izan beharko du eta honako testu hau jaso beharko du: *2025 San Juan jaiak Arrasate*. Maiatzaren 5a baino lehen aurkeztu beharko dira lanak, BAZen.

Balio-kate globalak, hiru dimentsiotan, Ezker Kultur Gunean

Debagoieneko Ezker Kultur Guneak balio-kate globalei buruzko jarduerak bat egingo du gaur, 18:30ean. "Parte-hartzaileek errealitate birtualeko betaurrekoekin esperientzia bat biziko dute, kate globalak zer diren, kontsumitzen ditugun produktuetan zer inplikazio duten eta lan-eskubideetan zer eragin duten jakiteko", azaldu dute.

Etxezarretan 400 zuhaitz landatuko dituzte bihar

Zuhaitz Egunaren baitako herri-landaketa egingo dute bihar, zapatua, 10:00etan hasita, Etxezarretako lurretan. Bertan parte hartzeko, aurrez izena eman behar da, 'izenemateak.arrasate.eus' atarian edo 943 25 20 00 telefono-zenbakira deituta



Iazko zuhaitz-landaketa, Etxezarreta eremuan. GOIENA

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE 400 zuhaitz inguru landatuko dituzte bihar, zapatua, auzolanean. "Goiz-pasa ederra izaten da, naturan eta lagunartean pasatzekoa. Amaieran, parte-hartzaileei hamarretakoa emango diegu, eta haurrei, mokadutxoa", adierazi dute udal ordezkariak. Haurrek zein helduek parte hartu ahal izango dute landaketan. 10:00etan batuko dira, Musakolako San Isidro elizan, eta handik abiatuko dira landaketa-gunerantz. "Gomazko katiuskak eramatea gomendatzen da", nabarmendu dute.

Bosgarrenez Etxezarretan

Bosgarren urtez, landaketa Etxezarretan egingo dute. "Arrasateko Udalak 2019an erositako 83 hektareako lursailetik 63 hektarea, gutxi gorabehera, pinudia izandakoa zen. Dagoeneko, urtetik urtera egindako auzolanen ondorioz, 2,2 hektareako eremua landatu dute herritarrek".

Etxezarreta parkea Arrasate ekialdean dago, Musakola auzoan. "Garrantzi handia dauka biodibertsitatearen ikuspegitik, eta Udalak enkargatuta egindako biodibertsitate azterketak ondorioztatu zuen birsortze naturala oso ona dela. Eremu batzuetan harizti kantauriarrari lagundu beharra ere azaltzen zuen azterketak, eta, horregatik, azken urteetan haritzak eta hariztietan sortzen diren beste hostozabal batzuk landatu dira", diote udal ordezkariak.

Askotariko espezieak

Biharko landaketan askotariko espezieak landatuko dituzte. Honako hauek: 195 haritz (*Quercus robur* eta *Quercus petraea*); 24 gorosti (*Ilex aquifolium*); 24 haltz (*Alnus glutinosa*); 48 urki (*Betula celtiberica*); 24 lizar (*Fraxinus excelsior*); 49 arte (*Quercus ilex*); 24 astigar zuri (*Acer pseudoplatanus*); eta 12 basagurbe (*Sorbus torminalis*).



NIRE USTEZ

EVA ABUIN BIDEBURU

Aukera berdintasuna?

Martxoaren 8a. Egun horretan enpresa, erakunde eta komunikabide guztiek morez apaintzen dituzte euren buruak; baina aukera berdintasuna gurean errealitate bat da? Argi daukat galdera horren erantzuna: ez.

Gure egunerokoan inguratzen gaituzten adibide asko jarri ditzakegu mahai gainean errealitate hori publikoki salatzeko, baina, testuaren luzera mugatua denez, gaur bi ekarri ditut: imajinatu ikasketak bukatzeko praktikak egin behar dituzula eta aukeratutako enpresak azken momentuan zure praktikaldia ez onartzea erabaki duela emakumea zarelako. Hori gurean gertatzen ari da.

Imajinatu medikuaren tratamendu bat behar duzula –edozein– eta medikuak esaten dizula ezin dizutela esku-hartze hori egin Arrasateko ospitalean, bertako profesional guztiek kontzientzia eragozpena daukatelako.

Bi egoera horiek oso desberdinak dira, baina ardatz bera partekatzen dute: emakumeen aurkako indarkeria. Izan ere, gizonezkoek ez dituzte horrelako egoerak inoiz pairatuko.

ONDO MAITE ZAITUENAK
A♥RREZTEN
LAGUNDUKO DIZU



Larunbat erōa

GUZTIAREN*

% 10



*Kontsultatu baldintzak.

oparitutako dizugu

20 €-tik gorako erosketak egitean



ARRASATE

Musakola z/g ARRASATE.
Tel.: 943 71 10 30

Igogailua Maitena kaleraino joatea nahi dute

Gorostizakoak auzoko bizilagunek irisgarritasuna hobetzeko zenbait lan proposatu dizkiote Udalari: batetik, igogailua Maitena kaleraino jartzea eskatu dute; auzoko landaretza hobetzea; eta hobekuntza txikiak egitea, auzoaren egoera hobetzeko

Sara Lanz Azpiazu ARRASATE

Arrasateko Gorostizakoak Bizilagun Elkarteak atzo goizean agerraldia egin zuen Arrasateko Erguingo adinekoen etxean, bertako auzunearen bizi-kalitatea eta irisgarritasuna hobetzeko egindako proposamenak aurkezteko asmoarekin. Gorostizakoak Arrasateko Bizilagun Elkarteak igogailuaren instalazioa, landaretza hobetzea eta beste hainbat hobekuntza txiki aurkeztu dizkio Udalari; betiere, auzoaren egoera hobetzeko helburuarekin.

Gorostiza auzoak 465 etxebizitza eta 1.000 biztanle inguru biltzen ditu, eta kale nagusiak Kalealdea, Larragain, Etxe-azpia, Olan, Etxeostea eta Maitena dira. Auzoko bizilagunei erdigunetik urrun egoteak mugikor-tasun eta irisgarritasun arazoak sortzen dizkie, eta, hori dela eta, auzotarrek hainbat proposamen aurkeztu dituzte.

"Gure auzoa erdigunetik urrun dagoenez, azkenengo 20-30 urteetan utzita egon da", azaldu du Mikel Olabek, Arrasateko Gorostizakoak Bizilagun Elkartearen kidea. Arazo horri irtenbidea emateko, asmoarekin duela bi urte hasi ziren bizilagunen bizi-kalitatea hobetzeko lanean.

Igogailua Maitena kaleraino

Epe laburreko proposamen guztien artean nabarmentzen da igogailuaren instalazioa. Gaur egun, Bizkaia etorbideetik Larragain kaleraino iristen da igogailua, eta Maitena kaleraino luzatzeko eskaera egin dute. Olabek hauxe adierazi du: "Otsailaren 27an Udalarekin bildu ginen, eta 2025ean proiektua egitea aurreikusitako da. 2026an, berriz, igogailua erakitzen hastea. Guk hori gauzatzeko nahi dugu".

Horrez gain, Gorostizako bizilagunek 700 sinadura inguru



Arrasateko Bizilagun Elkartearen zenbait ordezkari. I.B.

"2025EAN PROIEKTUA EGITEA AURREIKUSI DUTE; 2026AN, BERRIZ, IGOGAILUA ERAIKITZEN HASTEAN"

jaso dituzte, igogailua jartzeko eskaera horren eta gainontzekoen inguruan, eta udalbatzako alderdi guztiekin hainbat bilera egin dituztela jakinarazi dute.

Beste proposamenak

Gorostizako bizilagunek egindako beste proposamen batzuk ere nabarmendu nahi izan dituzte prentsaurrekoan. Adibidez, Kalealdea, Usaetxe eta Erguin aldean igogailuak instalatzea hurrengo agintaldian, agintaldi honetan gauzatzeko ez bada. Gune haietan ere igogailu bat egitea egokia litzatekeela azpimarratu nahi izan du Olabek.

Arrasateko Gorostizakoak Bizilagun Elkartearen kideak azpimarratu duenez: "Ia 700 firma bildu ditugu, eta bertan jendeak ere eskatzen duela irisgarritasuna errazteko proiektu-

turen bat. Alde batetik, jubilatuen etxea dago Erguinen, eta han ere erraztasunen bat jarri beharko litzateke".

Gernika pasealekuko frontoia

Aurrera begira, Gorostizako bizilagunek beste hobekuntza batzuk ere aurreikusitako dituzte; adibidez, Gernika pasealeku alboko frontoia estaltzea. Hauxe esan du Olabek: "Gernika pasealeku ondoan dagoen frontoia gutxi erabiltzen da, eta hori estaltzea nahiko genuke. Ez bakarrik auzotarrentzat, herritar guztientzat martxan jarri nahi dugu. Horretarako, pilotazaleekin elkartu nahi dugu".

Hartu-eman ona

Gorostizako bizilagunek azpimarratu dute Udalarekin izan dituzten bileretan harmonia ona izan dutela, eta igogailuaren instalazioak auzoari onura handia ekarriko diola. Euren auzoa hobetzeko egindako proposamenekin, Arrasateko Udalari zein beste eragileei auzotarrek bizi-kalitatea eta irisgarritasuna hobetzeko ekimenak aurrera eramateko konpromisoa eskatzen diete.

Arizmendi Ikastolak musikaz beteko ditu kaleak zapatuan

Ikasleak izango dira protagonista, eta 12:00etatik 13:00etara Arrasateko erdigunean kantuan ibiliko dira

Sara Lanz Azpiazu ARRASATE

Udaberriari ongiatorria egiteko, zapatuan, hilaren 22an, *Herria kantari* jaialdia egingo du Arizmendi Ikastolak. Urtero bezala, ikasleak izango dira protagonistak, eta ikastetxeko lau taldek hartuko dute parte –Uribarrikoak, Santa Teresa-koak, Gazteluondokoak eta Arimazubikoak–.

Herriko Plazan elkartuko dira lau taldeak, 12:00etan, eta ekitaldia hasiko dute aurkezpenarekin eta talde-argazkiarekin. Talde bakoitza bi gunetan arituko da kantuan: 12:30ean lehenengo gunean eta 12:45ean bigarren gunean. 13:00etan, berriz, Herriko Plazara itzuliko dira –euria egiten badu, Kulturolako aterpera–; talde bakoitzak abestu ostean, Idoia Asurmendiren *Hitzetan* kantua abestuz amaituko da ekitaldia.

Bi ibilbide

Edozelan ere, eguraldiaren arabera bi ibilbide antolatu dituzte. Izan ere, euririk egiten ez badu, ibilbide hau egingo dute: Arotz plaza, Arbolapeta, Portaloia, Garibai etorbidea –Iturbide egoitza parean– eta Herriko Plaza.

Euria egiten badu, aldiz, beste ibilbide bat adostu dute: Taupa tabernako arkupeak, Jokin Zaitegi plaza, parrokiako arkupea, Biteri plaza eta Kulturolako arkupea.

Emakumeek sortutako kantak

Goizean zehar emakumeek sortutako kantak nabarmenduko dira *Herria kantari* jaialdian: *Hitz debekatuak* (Maidor Zabalegi), *Ilargi berriak* (Neomak), *Elektrizitatea* (Zea Mays) eta *Dena aldatzen da* (Ines Osinaga), besteak beste.

Martxoaren 21ean izango da Txotxparta Eguna, Unzuetan

Aramaioko Unzueta sagardotegian egingo dute Ttakun Elkarteak antolatutako jaia, hilaren 21ean. Txalapartariez gain, trikitilariak ere parte hartuko dute.

Ttakun Elkarteak 32 urte betetzen ditu aurten; gainera, inoiz baino kide gehiagok osatzen dute taldea –30 ttakunkide–. Horrenbestez, ekimenez betetako urtea espero dute; hainbat

ikastaro antolatzeke asmoa dute. Hala ere, urtea ondo hasteko, jai giroan batu nahi dute.

Lekukoa emanez egindako ibilbidea izan da, "modu naturalean" egindako ariketa. Hauxe esan dute taldeko kideek: "Aurrera begira, hori izango da erronka nagusia, belaunaldi berriei erakutsi eta Euskal Herriko altxorra dugun txalapartaz gozatuko duten belaunaldi gazteak erakartzea, txalaparta euren eginez eta euren bide propioetatik landu dezaten".

OHARRAK

Abaroak batzar orokorra egingo du

Martxoaren 28an izango da, Etxaluze nagusien egoitzan, arratsaldeko bostetan. Bertan landuko den puntuetako bat lehendakariaren aukeraketa izango da.

Ramadan afaria Seber Altuben

Ramadan afaria egingo dute zapatuan, martxoaren 22an. Deialdi irekia da, eta debaldekoa.

Errezoarekin lotutako topaketa

Arrasateko abade-etxean, martxoaren 25ean, arratsaldeko zazpitan. Pako Etxebeste apaizaren eskutik, *Zergatik hain beldur?* galderaren inguruan jardungo dute.

STOCK-aren LIKIDAZIOA!

Ford Easo Motor Mugarri



Ford FIESTA Trend 75CV

12.900€*
120€/hilean*



Ford FOCUS Active 125CV

16.900€*
156€/hilean*



Ford PUMA mhev titanium X 125CV

12.900€*
120€/hilean*



Ford ECOSPORT ST-Line 125CV

13.900€*
132€/hilean*



Ford KUGA ST-Line X 150CV

22.990€*
217€/hilean*



Ford TOURNEO COURIER trend 125CV

20.900€*
205€/hilean*

 GRUPO
EASO
MOTOR
www.grupoeasomotor.com

ESKAINZAK STOCKa AMAITU ARTE!

 **630 636 360**



Easo Motor

FORD EASO MOTOR MUGARRI: San Andres kalea 6 - 20500 Arrasate

*Eskaintza baliozkoa STOCKa amaitu arte. OKM eta erabilitako ibilgailuen prezio finantzatua. Kontsultatu baldintzak gure salmenta-taldearekin.



Matraila taldeko kideak, Monterronen; goian, eskuinean, Aitor Etxezarreta eta Manex Carabias. J.M.M.

Matraila sortu dute, "autogestioa" oinarri

Kirol minoritarioetan "modu autogestionatu eta askean" jokatzeko beharretik abiatuta sortu dute taldea. Horretarako, gune libre bat lortzea da euren helburua, kontaktuzko kirolean oinarritu arren erabilera irekia izango duena

Julen Murua Mesonero ARRASATE Herrian kontaktuzko kirolak "dohainik eta modu seguru eta askean" egiteko sortu da Matraila kirol taldea. Badago bailaran kontaktuzko kirola egitea gustuko dutenen gorakada bat, eta eurek ere hori bera sumatu dutela dio Matrailako kide Manex Carabiasek: "Guk badaramatzagu urte batzuk, eta garai hartan

ez zen horren ezaguna. Azken urtean gora egin duen kirol bat da, eta ez Arrasaten bakarrik".

Behar batetik abiatuta

Kirol minoritarioak, oro har, eta, kasu honetan, kontaktuzko kirolak, herrian egiteko "zailtasuna" antzeman zuen taldeak; horiek "modu aske eta autogestionatuan" egiteko zailtasuna,

hain justu, Matrailako Aitor Etxezarretak dioenez. Hortik abiatuta erabaki zuten taldea sortzea eta herrian eragiten hastea; izan ere, euren nahia da "Arrasateko gazteen arteko auzolana bultzatuko duen gune bat izatea, ordutegi aldetik ere malgua izango dena. Gainera, gune antifaxista ere izango da, eta ez da inoren aurkako eraso-

rik onartuko", Carabiasek eta Etxezarretak diotenez.

Urtebete inguru lanean

Gaur-gaurkoz, Matraila "lantalde" bat dela dio Carabiasek, eta duela urte batetik hona daramate proiektu horren bueltan lanean: "Oraindik, lehenengo fasean gaude, baina urtebete daramagu Udalarekin adostu nahian espazio bat kirol minoritario horiek guztiak praktikatu ahal izateko, eta, poliki-poliki, beharra dagoenean gure artean biltzen, bagabiltza aurrera egiten".

Hasiera batean, hortaz, Matrailaren helburu nagusia da "esparru herrikoi bat" lortzea, Arrasateko gazteei bideratutako proiektu bat sortu nahi dutelako hor. Espazioa lortzen duten bitartean, baina, taldea ez dago geldirik, eta, Etxezarretak dioenez, hainbat ekimen antolatzen asmoa dute: "Taldeakideak gogotsu gaude, eta, Udalarekin adostu gura dugun espazio hori lortzen ez dugun bitartean, kalean ibiliko gara, orain arte egin dugun moduan. Aurrerantzean, taldearen asmoa da jardunaldiren bat eta saio batzuk antolatzea. Saioak irekiak izango dira eta interesa duen edonork izango du bertaratzeko aukera; herritar guztiei zuzendutako saioak izango dira".

Kontaktuzko kirolak oinarri

Gaur egun taldea osatzen duten kide gehienek dituzte boxeoko edo kickboxingeko oinarriak. Urte batzuk badaramatzate kontaktuzko kirol horiek egiten, eta euren oinarrian hori dago. Hala ere, taldea osatzen dutenen artean badaude bestelako kirol batzuk egiten dituztenak ere; errugbia, esaterako. Eta haien-

tzat tokia ere badagoela dio Carabiasek: "Oro har, kickboxinga egiten dugunok osatzen dugu taldea, eta bakoitzak bere esperientzia izan du kirol horrekin. Hala ere, gure taldea ez da horretara bakarrik mugatzen, eta gustatuko litzaiguke kontaktuzko kirolak sekula egin ez dituztenak ere hurbiltzea; herritar guztiei zuzendutako aukera bat eskaini nahi dugu".

Zabaltzeko asmoa


Taldearen oinarrian kontaktuzko kirolak badaude ere, Carabiasek eta Etxezarretak diote lortu gura duten espazio horretan beste edozein kirol egiteko aukera egongo dela: "Ideia, orokorrean, kickboxinga egiteko nahi batetik sortu bazen ere, espazioa ez da erabilgarri egongo kirol horretarako bakarrik". Matraila taldekoen proiektuaren ardatz garrantzitsuenetako bat da kickboxinga, baina, "gune autogestionatu eta askea" lortu nahi dutenez, "beste kirol minoritario batzuentzat tokia" ere egongo dela diote taldeko kideek; besteak beste, "yoga egiteko, dantzak egiteko eta bestelako kirolak egiteko".

Matraila taldeak antolatu gura dituen saio irekietara edo ekitaldietara joan nahi duen herritar orok taldearen Instagram kontura idatzita (@matraila.kiroltaldea) edo taldea osatzen dutenetako batekin kontaktuan jarrita lor dezake informazioa.

AUTOGESTIOAN OINARRITUTAKO ERABILERA IZANGO DUEN GUNE BAT LORTU GURA DUTE

Boulder berria, erabilgarri

Uarkapeko boulderraren berrizetan amaituta, jada zabalik dago erabilera kirol zerbitzuko bazkideentzat. Udalak jakinarazi dutenez, "panelatu berria jartzearekin batera, maila guztietarako boulderra jarri da oraingoan, ekipamendu berriarekin eta argiztapen berriarekin"; guztira, ia 48.000 euroko inbertsioa izan da.



GOIENA

Ointxe!-ko Hirugarren FEB Mailako taldea, liderraren aurka

Bigarren astez jarraian jokatuko du Mondragon Unibertsitateak Iturripen, eta aurrean sailkapeneko liderra den Castillo de Gorraiz Valle de Egues taldea izango dute arrasatearrek, domekan, 18:30ean. Irabaziz gero, eta aurkari zuzenek galtzen badute, sailkapeneko goiko postuetara jauzi egingo dute Julen Berrocalenek.

Gaurkotutako lan klasikoa oholtza gainean

'Scrooge eta mamuak' film eszenikoa emango du Khea Ziater konpainiak bihar, zapatua, Amaia antzokian. Charles Dickens idazlearen 'Eguberri kanta' liburua oinarri hartuta sortutako lana da, baina gaur egungo errealitatera moldatuta

Gontzal Belategi Zubia ARRASATE

Khea Ziater antzerki konpainiak *Scrooge eta mamuak* film eszenikoa taularatuko du bihar, zapatua, Amaia antzokian. Sarrerak salgai daude dagoeneko amaiaarrasate.janto.es atarian, zazpi euroren truke.

Aurten estreinatu dute lana, eta euren ohiko erregistrotik irtetea erabaki dute, haurrentzat sortzen duten lehen film eszenikoa da eta. Hala ere, Alex Gerediaga zuzendariak azaldu duenez, oso pozik daude orain arte izandako harrerarekin: "Ardura genuen, haurrentako egiten dugun lehen lana delako, baina, egia esan, oso pozik gauden izan duen harrerarekin".



Scrooge eta mamuak lanaren emanaldi bat. KHEA ZIATER

Klasiko zaharra, berrituta

Lan berria izan arren, istorioaren oinarri gisa literaturaren klasiko bat hartu dute; zehazki, Charles Dickens idazle ingelesaren *Eguberri kanta* izeneko eleberria. "Haurrentako antze-lan bat egingo genuela erabaki genuenean, hasieratik buruan nuen istorioa", dio Gerediagak.

Oinarri gisa Dickens eleberria hartu arren, egokitzapenak egin dizkiote, gaur egungo moldeetara ekartzeko: "Konturatu nintzen lana eguneratu egin behar genuela, bertso librea egin". Aldaketa horietan nabarmenena jatorrizko istorioaren Gabonetako kutsua alde batera utzi eta bestelako ikuspuntu bat ematea izan da, zuzendariaren arabera: "Gabonei buruz hitz egin baino gehiago, erabaki genuen Scroogek maitasunean ez sinestea zela proposena. Nire ustez, gaur egun garrantzitsua da maitasunean sinestea Gabonetan sinestea baino".

Haurrei bideratutako lana izan arren, helduentzat ere irakaspen garrantzitsuak dituela nabarmendu du Gerediagak: "Argi dago... begiratu zelako garaia bizi dugun. Scrooge pila bat dago

ANTZERKIA, ZINEMA ETA PANPINAK UZTARTZEN DITU KONPAINIAREN ANTZEZLAN BERRIAK

munduan, dirua eta arrakasta gainontzekoaren gainetik jartzen duten pertsonak. Konturatu behar dugu bestea maitatu eta zaintzea zoriontasuna lortzeko beharrezkoa dela".

Antzerki hutsa baino gehiago

Konpainiaren hastapenetatik antzerkia kode zinematografikoekin uztartzeagatik da ezagun Khea Ziater. *Scrooge eta mamuak* ez da salbuespena izan, eta kasu horretan ere bi erregistroak bateraturik agertzen dira: "Guk badugu lan egiteko modu bat, eta hori haurrentako antzerki-era eraman nahi genuen".

Alde horretatik, berrikuntzak ere prestatu dituzte, eta orain arte probatu gabe zituzten metodoak txertatu: "Orain artekoa mantendu egin dugu, eta, gainera, beste teknika batzuk erabili ditugu; chromak, adibidez.

Oso dibertigarria izan da chromarekin grabatzea". Horrek zailtasunak ere ekarri dizkiela aitortu du zuzendariak: "Nahikoa nahaspila izan da momentu batzuetan, era askotako grabaketak egin behar izan ditugulako".

Beste berrikuntzetako bat, antzerkia eta zinema uztartzeaz gain, panpinen erabilera ere batzea izan da. Haurrentako antzerkia izanik, mamuak irudikatze modu aproposa iruditu zitzaion: "Oso argi nuen istorio hori kontatzeko panpinak erabili nahi nituela, haurrekin konektatzea asko erraztuko zigulako eta estimulu gehiago sortuko zizkietelako".

Khea Ziaterrek film eszeniko batean panpinak erabiltzen dituzten lehen aldia da, eta, ideia garbi izan arren, hori kudeatzeko profesionalengana jo dutela dio Gerediagak: "*La enana naranja* konpainiako Iker Gartzia eta Jabi Tiradorekin jarri ginen harremanetan, eta horrek asko erraztu digu lana. Erronka bat izan da, nik ez ditut teknika horiek kontrolatzen, nahiz eta banituen zenbait erreferente bisual; tartean, *Sesame Street* eta *The Muppets*".

Euskarazko film laburrak, Amaia antzokira heltzeko bidean

Martxoaren 25ean iritsiko da Laburbira, euskarazko film laburren zirkuitu ibiltaria, Amaia antzokiko pantailara

G.B.Z. ARRASATE

Martxoaren 6an egindako aurrestireinaldiarekin hasi zen aurtengo Laburbira. Euskarazko film laburren zirkuitu ibiltariak Euskal Herri osoko 51 herri bisitatuko ditu aurtentzen. Arrasatera martxoaren 25ean iritsiko da, AED elkarteak antolatuta eta Arrasateko Udalaren babesarekin.

Amaia antzokiaren programazioaren barruan izango da Laburbiraren emanaldia. Sarrerak salgai daude dagoeneko, amaiaarrasate.janto.es atarian.

Zortzi filmeko bilduma

Zortzi film laburrek osatzen dute aurtengo Laburbira; 97 minutu, guztira. Horien artean, Goya sarietarako hautatutako bi film ageri dira: Ekain Irigorioren *Europa* eta Eneko Sagardoyren *Betiko gaua*. Alaiia Martinek, Karmele Mitxelenak eta Iraitz Mateok elkarrekin zuzendutako *Pentsatzen dut*, Itziar Ituño protagonista daukan Ekain Martinezen *Prosopagnosia* eta Huezinema jaialdia irabazi zuen *Utlandsk* filma ere izango dira, besteak beste, ikusgai.



JONE ARRUABARRENA

Trikiti hotsa kalerik kale

Trikitiek eta panderoek hartu zituzten Zigarrolako kaleak aurreko astean, Arrasateko Trikitixa Eskolako ikasleak eta Bergarako Musika Eskolako trikitilariak elkartu zituen topaketan. Antolatzaileek egunaren balorazio positiboa egin zuten, eta etorkizunean beste topaketa bat antolatzeko gogoz daudela aitortu.

Azken egunak Txikitxu-Arrostaitzen erakusketa ikusteko

Txikitxu-Arrostaitzen sorraren urteurrena ospatzeko asmoz, martxoaren 7an inauguratu zuten dantza taldeko kideek *55 urte dantzan* erakusketa, Kulturateko klaustroan. Edozelan ere, azken txanpan sartu da taldearen historia eta ekintzak jasotzen dituen erakusketa, martxoaren 27an kendera dute eta.

Kaskezur-ek girotuko du hilabeteko azken Kooltur osteguna

Hilabeteko azken Kooltur Ostegunean Baztango Kaskezur rock taldea igoko da Arrasateko gaztetxe oholtzara. Martxoaren 27an izango da kontzertua, 22:00etan; sarrera zazpi euro da. Ibilbide oparoa duen taldea da Kaskezur. 2004an sortu zuten taldea eta dagoeneko zortzi disko argitaratu ditu; azkena, *Deus*, 2024an.



Nardeaga kaleko argazki batean, oinezkoak eta autoak. AMAIA TXINTXURRETA

Mugikortasun diagnosis, ohiturak aztertzeke

Aramaioarren mugikortasuna identifikatzeko eta horiek hobetzeko lanean ari da Udala, eta auzoetatik erdigunera nahiz herritik kanpora joateko herritarrek ze ohitura duten aztertu dute; ondorioak jasotzeko zain daude horiek aztertu eta ondorio propioak ateratzeko

Idoia Aranbarri Arzuaga ARAMAIO
Aramaio Udalak mugikortasun plana garatzea darabilki eskurtean, eta azken hilabetean Aramaioetik kanpora eta auzoetatik Ibarra egin beharreko joan-etorriak aztertu ditu. Hala, bigarren fase batean, Ibarra barruko mugikortasuna aztertuko du beste galdeketa batekin.

Debagoiena 2030ekin elkarlanean, otsailaren erdialdean herritarrei egindako *Herri txikien mugikortasuna* izeneko galdeketa 53 herritarrek bete dute. Horietatik 19, %35,84, Ibarra bizilagunak dira, eta gainerakoek Aramaio auzoren batean dute bizitokia, eta inkesta erantzun dutenen %90ek baino gehiagok gidabaimena dute.

Herritarrei galdetu zaie zein izan ohi den bidaia egiteko arrazoia, eta erantzun nabarmenak izan dira erosketak egitea joatea, %92, eta osasun-zentro espezializatuera joatea, %85. Aldiz, parte hartu dutenen erantzunetan oinarrituta, ikastera

edo pertsonen zaintzara joatea dira herritarrek gutxien mugiarazten dituzten arrazoiak.

Aramaio jarduna, Ibarra
Herriko jardueren artean, Ibarra da gunerik bisitatuena; azpimarragarrienak dira osasun-etxera joatea (%42), ekonomia-tramiteak egitea (%36) eta administrazio-kudeaketak egitea (%23). Bestalde, osasun zentro espezializatuak bisitatzeko (%79), erosketak egitea joateko (%79) eta lanera joateko (%55) herritik kanpora irtetea da ohikoena.

Jarduerak egitea herritik kanpo joan behar bada, Arrasate edo Gasteiz izan ohi dira herri bisitatuena, baina jarduera motaren arabera ere erantzunak

**MUGIKORTASUN
MODURIK ERABILIENA
AUTO PARTIKULARRA
DA ARAMAIOARREN
ARTEAN**

ezberdinak dira; izan ere, besteak beste, osasun arloari dagokionez, Aretxabaleta, Iruñea eta Donostia ere aipatzen dituzte inkestak; administrazio-kudeaketak eta ekonomia-tramiteak egiteko, berriz, Eibar, Donostia eta Aretxabaleta ere bai; erosketetarako, Aretxabaleta ere aipatzen da, eta Donostia, puntualki, eta aisialdirako, Gasteiz eta Arrasatez gain, hainbat aipatu dituzte, hala nola Nafarroa, Aurizberri, Aretxabaleta, Oñati, Burgos, Leon eta Santander.

Auto partikularra erabili
Garraio biderik erabiliena auto partikularra da, bidaiaren arrazoiaren edo luzeraren arabera erantzunak pixka bat aldatu arren. Auto partekatua (%16), autobusa (%6) eta multimodalitatea (%6) dira modu erabiliak. Azkenik, oinez egiten dira bidaia moten %3 eta bizikletan %1. Erantzunetan ez da jaso emaitzarik non trena, patineteta edo motorra erabiltzen den.

Martxan dago San Martin jailetako kartel lehiaketa

Partaide bakoitzak gehienez ere bi lan aurkeztu ditzake; originalak eta inoiz argitaratu gabek izan behar dute

I.A.A. ARAMAIO

Uztailaren 4tik 7ra bitartean ospatuko dituzte sanmartinak Aramaion, eta kartel lehiaketa jarri du martxan Udalak, herrian jaio edo bizi diren herritarrei zuzenduta. Haurren -15 urte arte- eta helduen -16 urtetik aurrera- kategoriak banatu dituzte, eta partaide bakoitzak gehienez ere bi kartel aurkeztu ahal izango ditu: originalak, inoiz argitaratu gabek. Teknika librea izango da eta kartelaren neurriak gehienez ere DIN A3-koa izan beharko du. Gainera, *San Martin Jaiek 2025*

eta *Uztailak 4, 5, 6 eta 7* esaldiak jaso beharko ditu. Lehiaketako oinarri guztiak www.aramaio.eus webgunean daude.

Kartelak aurkezteko azken eguna apirilaren 16a izango da, eta udaletxean edo itxasokultura@gorbeialdea.eus helbide elektronikoan aurkeztu beharko dira egindako lanak.

Era berean, bi kategorietako lanik onenak sarituko dituzte, sari banarekin: haurren kategorian, irabazleak 100 euro eskuratuko ditu; eta helduenen, berriz, 200 euro.



ARAMAIO LAGUNKOIA

Arrasatera egin dute txangoa

Aramaio Lagunkoia dagoeneko ohitura hartu du, eta hilean behin, behintzat, irteera bat egiten dute. Azkena eguaztenean egin zuten, eta Arrasateko bidegorritik Garaia gunerainoko ibilbidea egin zuten hainbat aramaioarrek. Ibilbidean zehar geldialdia ere egin zuten, kafetxo bat hartzeko. Adierazi dute "oso gustura" egin zutela paseoa.

Aramaio Taluek, Gillernako laugarren finalurrekoan bihar

Arabako Bertso Kuadrilla Artekoaren laugarren finalerdia jokatuko du bihar, Gillernan, Aramaio Taluek taldeak. 12:00etan, Gorringo eta Gorbeialdeko Bardoak taldeen txanda izango da. Bazkariaren ostean, 16:30ean, Errexala eta Aramaio Taluek taldeak arituko dira. Azkenik, bi saioetako irabazleen arteko jokatuko dute.

Domekara arte bete daiteke etxebizitzetako buruzko galdetegi

Aramaio Udalak Aztikerrekin batera galdetegi bat zabaldu du aramaioarrendako etxebizitzetako beharrak identifikatzeko. Gaur, 14:00ak arte, Udaletxean bete ahal izango da, eta domekara arte, labur.eus/g3drylm6 webgunean. Udalak, bereziki, 50 urtetik gorakoak animatu ditu parte hartzera "tarte horretako gutxiak bete baitute inkesta".

'Asteartea' diskoaren aurrestreinaldia, etxean

Bea Asurmendik maiatzean argitaratuko du lan berria, 'Asteartea' izenburuean, eta eguenean aurrestreinaldiko kontzertua emango du kultur etxean, 19:00etan hasita; hala, gaur, diskoan entzun daitekeen 'Enodia' kantuak argia ikusi du

Idoia Aranbarri Arzuaga ARAMAIO

Bea Asurmendik maiatzean kaleratuko du *Asteartea* izeneko diskoa, eta aurrestreinaldiko kontzertua emango du Aramaion martxoaren 27an, 19:00etan, kultur etxean. Jaio-terria aukeratu du horretarako. "Ia 12 urte dira Londresen bizi naizela. Berezia zen nire jaio-terrian aurrestreinaldi berezi bat egitea, nire sustraiak direlako", adierazi dio abeslariak GOIENARI. Sarrerak salgai daude, hiru eurotan, udaletxean eta labur.eus/8reu8rwx atarian. Edukiera mugatua izango da eta jasotako dirua musika etxera bideratuko du. Era berean, egun bat geroago, berri, Donostiako Tabakalera arituko da, 21:00etan.

Londresko Fish Factory eta Crowshed estudioetan grabatu du diskoa, eta jazz garaikidea eta folka fusionatzen dituzten euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko abesti hunkigarriek osatzen dute lana. Haren bizitza nabarmen markatu zuen emakumeen talde batean izandako esperientzia eraldatzailean daude inspiratuta abestiak.

Aramaioarrak konposatutako abestiek doluaren, barkamenaren, maitasun propioaren, sonoritatearen eta osasun menta-



Bea Asurmendi. i.c.

laren garrantziaren bueltako hausnarketa egiten dute.

'Enodia' abestia

Iaz maiatzean argia ikusi zuen *Asteartea* diskoaren lehen singlea izan den *Otsemeak* abestiak, eta gaur bertan estreinatu du diskoan jasota dagoen bigarren kanta, *Enodia* izenekoa. Kantu horrek "hutsunera salto egiteari eta aukeratzeko nahiz norberaren bizitzaren kontrola hartzeko askatasunari buruzko hausnarketa" egiten duela adierazi du.

"Min ematen diguten kanpoko hitz suntsitzaileak baztertu, gure buruarengan sinetsi eta nor bere bidea eraikitzearen inguruan hitz egiten digu kantak. Nire ahotsaz aparte, gitarra, pianoa, kontrabaxua, kaxoia eta perkusiozko beste instrumentu batzuk daude abestian", gaineratu du aramaioarrak. Gainera, disko osoa eta, ondorioz, *Enodia* kantua ere zuzenean daude grabatuta, Asurmendiren ahotsa ez ezik, "momentuko magia hori ere kapturatu eta inprobisazioari espazioa" utzi nahi ziolako.



ARAMAIO BIZIRIK

Bihar Gasteizera joateko deia

Aramaio Bizirik herri plataformak bihar Gasteizen egingo den Euskal Herria Bizirik-en manifestaziora joateko dei egin du. Mobilizazioan, egungo testuinguru ekologiko, ekonomiko eta sozialarekin lotuta, lurra defendatu eta gutxi batzuen interes ekonomikoak defendatzeko egiten ari diren politika instituzionalak salatuko dituzte. 18:00etan abiatuko dira, Bilbo plazatik.

Bi ikastaro emango dituzte apirilaren KZgunean

Apirilen zehar bi ikastaro emango dituzte KZgunean. Apirilaren 1etik 11ra, *Google aplikazioak smartphonean* izenekoan parte hartzeko aukera egongo da, eta, besteak beste, posta elektronikoa erabiltzen, lekuak aurkitzen eta argazkiak gordetzen ikasiko dute. Hamazortzi orduko ikastaroa izango da eta izena martxoaren 25era arte eman daiteke. Bigarrena, berri, apirilaren 14tik 16ra izango da, eta partaideek gustuko bideoak irudiekin sortzen ikasiko dute. Sei orduko ikastaroa izango da, eta izena emateko azken eguna apirilaren 7a da. Bi ikastaroak 16:00etatik 18:00etara izango dira. Izena emateko: itxasokultura@gorbeialdea.eus.

Alaiak Jubilatuen Elkarteko bazkideen eguna hilaren 29an

Martxoaren 29an, urteko batzar orokorra eta Bazkideen Eguna izango ditu Alaiak Jubilatuen Elkartek. Batzarraren lehen deialdia 10:00etarako egin dute; bigarrena, berri, 10:30erako. Ostean, 12:30ean, luntxa emango dute jubilatuen elkarteak, eta 14:00etan, bazkaria egingo dute eskolan, eta Alaiak Kantuan taldean girotuko du bazkalostea. Gaur da bazkarian izena emateko azken eguna. Parte hartu nahi dutenek Laboral Kutxan edo Kutxabanken 17 euro ordaindu beharko dituzte. Halaber, jubilatuen elkarteak maiatzaren 4tik 10era Galiziar irteera antolatu du (669 euro). Izen-ematea apirilaren 4ra arte dago zabalik.

Kolaborazioa Judit Neddermanekin

Judit Neddermann abeslari katalanak *Artean* diskoa aurkeztuko du gaur, Lugarizko Kultur Etxean (Donostia), eta domekan, Bilboko Guggenheim museoan. Bea eta Idoia Asurmendik eta Olatz Salvadorrek katalanaren lanean parte hartu dute –Izaro eta Maren abeslariekin batera–, eta, hain zuzen, bi kontzertuetan kolaboratuko dute.



Maren, Bea Asurmendi, Judit Neddermann, Idoia, Izaro eta Olatz Salvador. J.N.

Bihar auzolana, bankuak jarri eta loreontziak mugitzeko

Aramaio Udalak bihar goizearako Ibargarain auzolana egiteko dei egin du. 10:00etan elkartuko dira, Bizente Goikoetxea plazan, eta, besteak beste, frontoi inguruan bankuak jarriko dituzte eta Ibargoia kalean loreontziak mugituko dituzte; baita margotu ere. Hilabete honetan Aramaion egiten duten bigarren auzolana da.

ION ANDER CASTRO ZABALA

Era guztietako aulkien konponketa
Zumezko artikuluen salmenta

TAPIZERIA OROKORREAN

943 78 71 65
639 01 69 69



Nerea Altuna arduraduna, liburu artean, martitzenean, Udal Liburutegian. MIRARI ALTUBE

Liburutegia berrikuntza askoren atarian dago, zerbitzua hobetze aldera

3.700 herritarrek baino gehiagok dute Arkupen egoitza duen liburutegiko txartela, eta iaz 132 bazkide berri egin ziren; erabiltzaile horien artean galdetegia zabaldu zuen 2024ko udazkenean, eta haien eskaera nagusiei erantzutea du erronka orain Udalak

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Arkupeko ateak zabaltearekin batera lekualdatu zuten Udal Liburutegia Herriko Plazako eraikinera, eta dagoeneko hamazazpi urte beteko ditu han. Joseba Lopez de Armentia eta Nerea Altuna arduratzen dira eguneroko jarduna bermatzeaz eta irakurzaletasunaren bueltako ekitaldiak antolatzeaz. Apirilera, esaterako, hainbat ekintza antolatu dituzte (Ikus goiko zatidura), Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna –hilaren 2an– eta Liburuaren Eguna –23an– gogoan.

3.724 bazkide

Gaur-gaurkoz, 3.724 herritarrek dute bazkide-txartela; haietatik 3.019 dira 14 urtetik gorakoak, eta 684, berriz, 14 urtetik beherakoak. Iaz, esaterako 132 bazkide berri egin ziren. Herriko

erakunde batzuek ere badute; ikastetxeek, Udaleko departamentuek eta hainbat elkartek, esaterako.

Maileguri dagokienez, 2024an 15.876 eduki hartu ziren; batez beste, ia 69 egunean. "Haurrek gehiago mailegatzten dute ikasturtean zehar. Helduek, berriz, urte osoan hartzen dituzte, baina uda garaian gehiago irakurtzen dutela dirudi, datuei erreparatuz gero", azaldu du Nerea Altunak; eta gaineratu du maileguan ezer eramaten ez duten erabiltzaileak ere badaudela.

Zerbitzua hobetzeko pausoak

Zerbitzua hobetze aldera, *Liburutegia etxera* egitasmoa jarri zuten abian iaz, mugikortasun arazoengatik edo adina dela-eta liburutegira joan ezin direnek telefonoz edo posta elektronikoz eska ditzaten liburuak. Erabiltzaileek ondo baloratu badute ere oraingoz inork ez duela zerbitzu hori eskatu adierazi du Altunak.

Horrez gain, beste hobekuntza batzuk egiteko, bazkideen eta erabiltzaileen artean galdetegia zabaldu zuten iaz, urrian. "200 erantzun jaso genituen, eta, balorazioak biltzeaz gain, proposamenak ere egin zituzten. Herriarren iritzia jakitea aberasgarria izan da, gure norabidean lehenetsunak finkatzeko informazioa jaso dugulako", azaldu du Altunak.

Jasotako erantzunak kontuan hartuta lehenetsunak emango diote, batetik, isiltasunari: "Ikasleek isiltasun handia behar dute. Aldi berean, taldean jarduteko guneen beharra ere azaldu dute". Horregatik, Udalaren asmoa da ikasgela bat irekitzea herrian. Zerbitzuan inguruko informazio handiagoa ere eskatu dute. Horretarako, online katalogoa eta e-liburutegia erabiltzeko, ordenagailuak jarriko dituzte herriarren eskura.

Irakurzaletasuna bultzatzeko jarduerak askotariko adin-tarte eta kolektiboetara zabaldu beharra ere agerian geratu da galdetegian. Programa hori aztertzeo asmoa du Udalak, eta hori komunikatzeko modurik egokiena zein den zehaztuko du. Era berean, liburutegiko jardueren berri emateko bide egokiak aztertuko dituzte.

"Aretxabaletari buruzko informazioa eta jardueren eskaerak ere jaso dira", dio Altunak, eta

eskaera hori asetzeko tokiko bilduma osatu, antolatu eta zabalteko proiektua idatziko da. Gaur egun, tokiko bilduma hori –Aretxabaletako informazioa duen liburutegiko gordailuan dago, eta, hura kontsultatzeko, liburutegian egin behar da eskaera.

Tokioa ez ezik, beste hizkuntza batzuetako bilduma indartzea ere eskatu dute. Hori horrela, ingelesezko literatura zein hizkuntza bera ikasteko baliabideak berritu egingo dituzte.

Maileguan hartutakoak itzultzeko postontzi baten beharra ere atzeman da, eta asmoa da Arkupeko kanpoaldean jartzea, tramiteak errazteko.

Altunaren esanetan, ez dute eperik zehaztu: "Eguneroko jardunak uzten digun heinean joango gara gai guztiak aztertzen eta pausoak ematen".

Hainbat datu

Bazkideak

- Guztira: 3.724.
- 14 urtetik gora: 3.019.
- 14 urtetik behera: 684.
- Berriak: 132.

Maileguak (2024)

- Guztira: 15.876.
- Helduak: 8.187.
- Umeak: 7.689.
- Eduki monografikoak: 14.992.
- Ikus-entzunezkoak: 1.372.

Azken erostetak

- Helduen liburuak: 321.
- Haur eta gazteen liburuak: 417.
- Ikus-entzunezkoak: 53.

Liburu irakurrienak

- Helduak (euskaraz): *Maitasun kapitala*.
- Helduak (gaztelerez): *Azami, el club de Mitsuko*.
- Txiki txokoa (euskaraz): *Beldurrez*.
- Txiki txokoa (gaztelerez): *La excursión: una historia en dibujos*.
- 5-7 urte (euskaraz): *Egun bat kanpinean*.
- 5-7 urte (gaztelerez): *Sensibles*.
- 8-11 urte (euskaraz): *Onin eta komiki madarikatua*.
- 8-11 urte (gaztelerez): *¡Las sirenas existen!*

Apirilerako antolatutakoak

Ipuin kontaketa

- **Ipuina:** *Siroren zilborra*, Laura Perez idazle aretxabaletarrak kontakua. 4 urtetik aurrerakoentzat.
- **Apirilak 2:** Txiki Txokoa, 17:30. Gonbidapena jaso behar da liburutegian.

Tailerra

- **Eskuzko koadernaketa:** josketa japoniarreko eta akordeoi album txikia.
- **Apirilak 3 eta 10:** Arkupeko bigarren solairua, 18:00-19:30. Izena eman behar da.

Liburu aurkezpenak

- **Idazleak:** Gema Iñiguez, Josune Murgoitio eta Judit Ruiz de Munain. Liburuak erosi eta sinatzeko aukera, eta luntxa.
- **Apirilak 9:** Arkupeko bigarren solairua, 18:00.

Antzerkia

- **Antzezlanak:** *Pinnocchio, Eldariozko istorioa*. Canti Vaganti konpainia.
- **Apirilak 12:** Zaraia aretoa, 12:30. Sarrera, 4 euro.

Massaciren txotxongiloak ikusteko azken aukera

Panpina haridunekin 46 urte lanean jardun ostean, erretiroa hartuko du Italian jaiotako artista ezagunak; bizitoki duen Ondarroan erakutsiko ditu azkenekoz hark sortutakoak, eta azken-aurreko erakusketa Arkupen dauka, hilabetea bukatu artean

Mirari Altube ARETXABAETA

Corrado Massaci (Ravena, Italia, 1959) artistaren txotxongiloekin beteta dago Arkupeko erakusketen aretoa. Ez du ondo gogoan zenbatgarrenez etorri den Aretxabaletara –bost alditan, behintzat, bai–, baina lehenengo erakusketa udaletzeko ganbaran egin zuela badu akorduan. Ordutik hona, urte asko pasatu dira, eta, oraingoan, *Irudimena-ekin jolasten* bilduma eroan du Arkupera. Erretiroa hartu aurreko azken-aurreko erakusketa izango da, eta martxoaren 28a arte izango dira ikusgai panpinak.

35 urte erakusketak antolatzen

Txotxongiloak izan ditu lagun azken 46 urteetan Massacik. Arte Ederren ikasketak bukatu orduko konturatu zen txotxongiloek "magia berezia" zutela, eta haien bitartez komunikatzeko bide bat topatu zuen. Panpina bakoitzak istorio bat kontatzen du eta istorio bakoitzak panpina bat du. Erakusketa didaktiko ibiltariak egiten dihardu urte askoan, 35 inguruan, eta gai bat aukeratu horren bueltan sortzen ditu.

Antzinako txotxongiloen tradizioari utsita, egurrekin egiten die gorputza eta paperezko pastarekin burua, "toxikoagoak diren materialei" muzin eginda. Hori bai, ez daude bi panpina berdinak. "Pantaila batera ohi-tura dagoen begi batek, begi exigente batek, segituan nabaritzen du ezberdinak direla, eta, horri esker, kuriositateari eusten dio", azaldu du artistak. Ez dute hitzik egiten panpinek, baina beharrik ere ez dute neska-mutikoen arreta eskuratzeko, "magia" galduko luketelako: "Mugimendua da garrantzitsua".

Umeen irudimena piztu

Irudimena-ekin jolasten erakusketa sortzerakoan umeak izan ditu gogoan, eta Arkupeko hormetan bildu ditu robotak, emo-



Hainbat haur, martitzenean, Massaciren inguruan, txotxongilo bati begira. M. ALTUBE

tikonoak, estralurtarrak, punkak eta antzeko beste pertsonaia batzuk: "Umeen irudimena piztea da helburua. Kasu batzuetan, zelan egin ditudan azaltzen diet, haiek ere sortzera anima daitezen". Inprobisatu egiten du ema-

naldietan, umeen erantzunari jarraituta, eta horiek aldatu egin direla igarri du; hala ere, orduan legez, orain ere harrera ezin beroagoa egiten diote: "Hala izan ez balitz ezingo nukeen jarraitu hainbeste urtean".

"Erretiratuta ere sortzen jarraituko dut"

CORRADO MASSACI
TXOTXONGILO-SORTZAILEA

300 txotxongilo baino gehiago sortu ditu 46 urteko ibilbidean, eta orain, kutxetan gordeko ditu guztiak.

Baduzu kuttunik?

Bai, ikuskizunetan eta erakustaldietan gehien erabiltzen ditudanak; pailazo txikia eta tximinoa, esaterako. Tximinoak 42 urte ditu, eta lan asko egin dut harekin; horregatik, besteak baino gertukoago sentitzen dut.

Guztiak dituzu gordeta?



M.A.

Bai, noski. Bakoitza bere poltsan bilduta, eta gero, kutxetan sartuta.

Erretiratutakoan zeinek emango die bizitza panpina horiei guztiei?

Ez dakit. Alabari eta ilobari utziko diet nire legatua, eta haiek erabakiko dute zer egin. **Txotxongiloak lotara, eta zu?** Ni atsedean hartzera. Sortzen jarraituko dut baina ez naiz ibiliko atzera eta aurrera erakusketekin.

'Hilekoaren zikloa berrezagutzen' saioa eguaztenean

Idoia Sanchez Garcia hilekoan espezializatutako erizainak gidatuta, hilekoaren zikloaren funtzionamendua landuko dute eta ondoeza eta mina ezberdintzen ikasiko dute martxoaren 26an, 17:00etan, Arkupeko bigarren solairuan. Jabetze Eskolak antolatutako tailerraren helburua da norberaren ziklotasunaren gaineko kontzientzia hartzea.

Prebentzio Mahaia batu da, hurrengo pausoak zehazteko

Gazteen ongizate emozionalaren gainean egindako lanketa aurkeztu zuten otsailean, eta atzo, martxoak 20, Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalek dinamizatutako Prebentzio Mahaian aztertu zituzten diagnostikoaren ondorio esanguratsuenak. Beste plan bat landuko dute orain, adituen laguntzarekin, datorren ikasturtean abian jartzeko.

Jordi Caps magoak bi emanaldi egingo ditu domekan

Espainiako *Got talent* saioa irabazi zuen Bartzelonako Jordi Caps magoak gertuko magia ardatz duen ikuskizuna egingo du; karta-jokoak eta mentalismo-trukoak erabiliko ditu horretarako. Martxoaren 23an, domeka, Arkupeko bigarren solairuan bi emanaldi izango dira: 17:00etan eta 19:00etan. Sarrera 6 euro da.

'Kalean otso, etxean uso' antzezlan gaur, Aretxartek antolatuta

Patata Tropikala Antzerki Laborategiak *Kalean otso, etxean uso* antzezlan egingo du, Aretxarte merkatarien elkarteak antolatuta. Gaur, egubakoitza, izango da, 18:15ean, Herriko Plazan. Hainbat ipuinetakoa pertsonaia nahastuta, bizikidetzaren gainean hitz egingo dute 2 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoei bideratutako lanean.



NIRE USTEZ

JULEN
ABASOLO

Egia batzuk

Gaur egun gehixen arduraketan gauen gaixen artien jatekuena ez dau. Hemen elikagaixek hain merke eta errez daz ze, edozeinek uste dau hortxe egoten diela beti. Jateko daukoun hori zelan allau dan gure esku egotea, ez gaitu arduraketan. Jateko horren atzian pertsonak bizi guran egon leikezenik be... Gure gizartien ardurie lehen sektorearekiko gutxienetan dau eta elkarren arteko arrakala haundixe da daueneko. Hau Manuel Pimentelek esaten dau; ni ados.

Soldatien %15a gastetan ei dou jaten, ez dauko zerikusirik gerra osteko %75az. Benetan latza izengo zan haxe. Entzun izen dot baserrietan ez zala goseik pasau; kalien, barrez, bai.

Mundu mailan jarri dan muga zergak gehiketien kontuaz esan leike, egunerokue garestittuko egingo jakule, bakotxa berie zainketara eramango gaittuela eta ezinbestekoak dittugunak geure muga barruen ekoiztea. Biher bada, egunero zer jatekuaz arduraketara.

Oin gutxi dala hauxe irakurri dot: "Behixek ez daue esneik emuten". Geuriek be ezta.

Jou Diaz
Aretxarte
Durana 15
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABAETA



Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean egindako solasaldian batutakoak, lantaldeetan banatuta. IMANOL BELOKI

Kulturartekotasuna eta euskara ardatz izanda

'Nolako gizartea nahi dugu gure herrian?' galdera ardatz hartuta, solasaldi irekia egin dute herritarrek Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, bertako irakasle diren Amelia Barquinen eta Karmele Perezenen eskutik

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Amelia Barquin eta Karmele Perez irakasleek gidatuta, *Euskara eta kulturartekotasuna Eskoriatzan* izenburupean, aurten martxan jarri duten proiektuaren berri ematen izan dira. Euskararen biziraupenaz arduratuta, kulturartekotasunaren kezka duten UEMAKo 31 herrietan dago martxan honako proiektu hau, eta Eskoriatza da UEMAtik kanpo dagoen eta proiektua garatzen ari den lehenengo herria. Eskoriatzako Udalarekin, ikastetxeekin eta herriko elkarteekin elkarlanean dihardute kulturartekotasunaren kezka horren baitan gogoeta egiten.

Kezkek azaleratzen

Duela hamar hilabete hasitako eta Eusko Jaurlaritzaren finantzaketa duen proiektu horren xehetasunak herritarrek inpartekatu zituzten Karmele Perez eta Amelia Barquin hizlariek

saio irekian. Biek esperientzia handia dute kulturartekotasun eta euskara proiektuen lidergoan, eta Eskoriatzan egiten ari diren proiektu horren diseinuan eta burutzapenean dihardute. "Definitzen ari gara euskararen eta kulturartekotasunaren artikulazio hori nola egin nahi dugun. Kezkatuta gaude euskararen biziraupenarekin; euskaraz bizi nahi dugu borondate horretatik abiatzen gara, baina gure herrietan atzerritik etorritako jende gehiago dago. Zaldibiatik iritsi zitzaigun lehenengo kezka, duela lau ikasturte; euskaraz bizi den herria da, eta, arnasmune izan arren, kezka zuten, familia atzerritar gehiago zeudelako; kezka zuten euskaraz

EUSKARA MANTENTZEAZ ETA KOMUNIKAZIOA BERMATZEAZ JARDUN DUTE HERRITARREK

bizitzen jarraitzekoa, baina baita ere familia atzerritar horiekin komunikazioa bermatzearena", adierazi du Karmele Perezek.

Aldaketa txikiak proposatu

Eskoriatzan ere euskararen eta kulturartekotasunaren gaineko kezka egonda, gogoeta hasi dute, espazioak irekitzeko asmoz. "Eskoriatzako Udalarekin herriko, ikastetxe eta herriko eragileekin hasi gara lanean, eta, gogoeta horiek sustatu ahal izateko, gai horiek lantzeko, eta, estrategia batzuk inplementatzeko, aldaketa txiki batzuk proposatzen ditugu", dio Perezek.

2021eko datuen arabera, Eskoriatzan %59,54 euskaldunak dira; euskararen erabilera %29koa da, eta atzerrian jaiotakoak %12 dira. Azken hori, Eustat-en iazko datuen arabera. Hala, dauden hainbat kezka zerrindatuta, aldaketak eta ekintzak proposatzeaz gain, jarrera jakin bat ere eskatu zuten hizlariek berbaldean.



I. BELOKI

Izar Bedia 'Galdegazte' saioan

Arrasateko Ointxe! saskibalo taldeko kapitaina elkarrizketatzen izan dira Arizmendi Ikastolako Almen guneko ikasleak. Gari Etxabe, Mikel Aramendia eta Lide Guenetxea izan dira platoan, eta saioa errealizazio-gelan saioa jarraitzen, berriz, Unax Gartziaetxabe, Oier Aranegi, Alaine Garcia eta Izar Garcia.

Komikialdia ospatu dute aste honetan bibliotekan

Martxoaren 17tik 23ra bitartean, Komikialdia ospatu dute Eskoriatzako bibliotekan. Hilaren 17a Komikiaren Eguna da, eta egun hura aukeratu zuten, *TBO* aldizkariaren lehen edizioa 1917ko martxoaren 17an agertu zelako. Hala, komikien gaineko gomendio bereziak, komiki tailerra –bihar, zapatua, 11:00etan– eta ale berriak jarri dituzte herritarren eskura. Horrekin batera, komikien historia gehiago ezagutzeko informazioa eman diete bibliotekara joan direnei; azken urteotan beste hizkuntza batzuetan idatzitako komikiak euskarara itzultzeko joera handitu egin dela adierazi dute, eta adibide batzuk eman dituzte.

OHARRAK

Euskaraldia

Euskaraldiaren Eskoriatzako batzordearen hirugarren bilera irekia martxoaren 24an izango da, astelehena, 18:00etan izango da kultura etxean.

D2030: bilera irekia

Herritarren mugikortasuna ardatz, apirilaren 2an, 18:00etan, kultura etxean izango den saiorako formularioa bete beharko da –erantsita, udal webgunean–.

Ahoz Aho jaialdia

Gaur, egubakoitza, 19:00etan, Patricia McGill (Uruguai) ipuin kontalaria izango da Zaldibar antzokian kontakizuna egiten.



Lau borrokalarik zortzi domina lortu dituzte

Atama Eskoriatzako kenpoko lau borrokalaria Espainiako txapelketa jokatzeko izan dira, eta nork bere kategorian domina bat eskuratu du, behintzat. Lau kirolari horietatik hiru, gainera, estreinakoz aritu dira Espainiako txapelketan

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Atama Eskoriatza kenpo taldeko lau borrokalaria euskal selezioa ordezkatzeko izan ziren joan den asteburuan Guadalajaran jokatuak Espainiako Txapelketan. Haur mailako txapelketan Andoni Puertas, Naroa Cabeza, Peio Lizundia eta Zuhaitz Legorburu eskoriatzarrak lehiatu ziren, infantil kategorian, nor bere diziplinan, eta emaitza paregabeekin bueltatu dira.

Zortzi domina

Urrezko bi domina, zilarrezko hiru domina eta brontzezko hiru domina eskuratu dituzte Espainiako Txapelketan. Atama Eskoriatza kenpo taldeko Rafa Carriet entrenatzaileak Guadalajarako lorpena azpimarratu du: "Emaitza horiei balioa eman behar diegu; batez ere, kontuan hartuta Zuhaitz Legorburu izan ezik, beste guztiak, Naroa, Peio eta Andoni, lehen aldiz Espainiako Txapelketa batean parte hartzen izan direla. Honako hauek izan dira Eskoriatzako borrokalaria gazteen emaitzak, hurrenez hurren.

Zuhaitz Legorburuk urrezko bi domina lortu zituen semikenpo eta submission kadete kategorietan, 70 kilotik gorako arteko borrokan. Naroa



Atamako borrokalaria Espainiako txapelketan, Guadalajaran. RAFA CARRIET

Cabezasek 65 kilotik beherakoetan zilarrezko domina lortu zuen, submission modalitatean, baita brontzezkoa ere, kadeteen semikenpo kategorian, 60 kilotik beherakoetan mailan. Andoni Puertas borrokalaria zilarrezko domina lortu zuen 60 kilo baino gutxiagoko gazteen submission kategorian, eta brontzezko domina semikenpoan. Azkenik, Peio Lizundiak brontzezko domina eskuratu zuen kadeteen submission kategorian, 60 kilotik beherakoetan borrokaldian.

Esker-mezua talde osoari

Carrietek Atamako lana ere eskertu du: "Nabarmentzekoa da Danel Calero entrenatzaileak izan duen zeregina; izan ere, lehiakideei laguntza handia ematen die; selezioa ordezkatzeko izan zen Ismael Ocon ere aipatu nahiko nuke". Carrietek eskerrak eman izan nahi dizkie, gainera, ekitaldira joan ziren senideei eta Atama Kenpoko Klubeko talde osoari; adierazi du lankidetzak eta etengabeko ahaleginak ahalbidetzen dituela kirol-lorpenak.

Eskaintza zabala haurrentzako udaberriko oporretarako

Apirilaren 14an, 15ean eta 16an, 3 eta 12 urte arteko haurrentzako ekintzak egingo ditu Tortolis ludotekak

I.B. ESKORIATZA

Eskoriatzako Udaleko Tortolis ludotekak haurrei zuzendutako eskaintza berezia antolatu du, urtero moduan, apirilaren 14rako, 15erako eta 16rako, egun horietan herrian bertan

eta lagunartean oporrez goza dezaten.

Hiru orduko saioak izango dira Tortolisekoek eskainiko dituztenak, herrian zehar jolas egiteko. Hain zuzen ere, 10:00etatik 13:00etara bitartean egingo

dituzte, eta 3 eta 12 urte arteko haurrentzat (HH-3etik LH-6ra) zuzendutako ekintzak izango dira. Besteak beste, *Altxoraren bila*, sukaldaritzaren tailerra, erronka jolasak... egingo dituzte.

Izena emateko azken eguna gaur da, martxoaren 21a, egubakoitza, eta interesdunek 30 euro ordaindu beharko dituzte. Hala, izen-ematea Tortolis ludotekan egin daiteke, 16:45etik 19:15era, bertara joanda, baita online ere, udal webgunearen bitartez.



Santiago kaleko hainbat ataritan moztuko dute argia. I. BELOKI

Argi mozketa programatu du Leintz Argik astelehenerako

Santiago kaleko hainbat ataritan egingo dituzte esku-hartzeak, eta eguerdirako amaituko dituzte lanak

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Leintz Gatzagako Leintz Argiko teknikariek adierazi dutenez, argi mozketak egingo dituzte herrigunean astelehenean, hilaren 24an, eta horien berri eman nahi diete herritarrei. Hain zuzen ere, Leintz Gatzagako Santiago kalean behe-tentsioko sarean mantentze-lanak egingo dituzte, eta kale hartako 5, 7, 10 eta 12. atariei eragingo die argi mozketak.

Eguerdirako amaituta

Teknikarien esku-hartzea 09:00etatik 14:00etara bitartean

izango da, adierazietako ataritan, eta, Leintz Argi enpresako teknikariek gaineratu dutenez, hornidura aldeaz aurretik jakinarazi gabe berrezarriko dute, lanak ondo bidean, eta egin beharrekoak aurreikusitako baino lehenago amaitzen badituzte.

Horrekin batera, esku-hartzeak irauten duen bitartean aparatu elektronikoa deskonektatzea gomendatu dute, horrelako lanak egin ohi dituzten guztietan adierazten duten moduan. Zalantza edo informazio gehigarria nahi duenak 945 06 30 60 telefono-zenbakira deitu dezake.

GORA ETA BEHERA



Herri sarreran belardia plastikoz beteta dago

Herri sarrera eta Bengoerreka arteko berdegunean zikinkeria asko dagoela pilatuta jakinarazi du herritar batek, errepide aldetik haizeak eramanda.

"Aldaketarako gakoa da arreta zaintzan jartzea"

ASIER ARIZKORRETA EMAGIN-EKO KIDEA ETA GIZONTASUNAREN GAINEKO AHOLKULARIA Aitatasun aktibori begira aurrerapausoak eman direla dioen arren, uste du badagoela zer berrikusi: "Gizontasun tradizioaletik datozkigun ezaugarriak ondo aztertu behar ditugu"

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Emagin elkarte feministako formatzailea da Asier Arizkorreta (Donostia, 1992), eta bereziki, gizon-taldeak dinamizatzen dihardu. Jabekuntza Eskolari esker Irizar jauregian egon zen atzo, *Aitasun aktiboak eta arduratsuak* izenburu zuen saioa gidatzen. **Zein kargu jarri galdetu dizudanean esan didazu maskulinitate berrietan aholkularia jarri beharrean gizontasuna jartzeko; zergatik?**

Badagoelako eztabaida bat hor ere. Arazoa edo landu beharrekoa ez da horrenbeste maskulinitatea, baizik eta gizontasuna. Ñabardura bat da, baina aintzat hartu beharrekoa; emakumeek ere badute maskulinitatea, baina hor ez dago arazorik. Gizonoi gizon egiten gaituen hori litzateke berrikusi beharrekoa.

Jabekuntza Eskolari esker, gizonen zuzendutako saioa gidatu zenuen atzo; zer landu zenuen?

Hausnarketa esparru bat eskaini genuen, aitatasunaren rola berritu. Asko hitz egin da feministik amatasunaren inguruan, asko dago idatzia arlo horretan. Eta, beste behin ere, gizonok ez dugu arlo horretan behar beste aurreratu. Hutsune bat ikusten dugu. Hala ere, argi dago aldaketak eta aurrerapausoak izan direla, eta horiek aitoritu egin behar dira; aitatasuna gaur egun ez da duela 20 urtekoa, baina badaude gauza asko berrikusi beharrekoak. Ikastetxeetako guraso bileretan, esaterako, nabarmena da amak direla gehiengoa. Zeintzuek dakizkitez medikuaren txandak? Norena da eskolatik antolatutako txangora umeak behar dituenak jakiteko ardura? Halako ardurak amenak izaten dira ia beti.

Zein ezaugarri bete beharko litzuke aitatasun aktibo, arduratsu eta feminista batek, zure ustez?

Gizontasun eta aitatasun tradizioaletik datozen ezaugarriak ondo aztertu behar ditugu, ez



Emagin elkarte feministako dinamizatzaile eta aholkulari Asier Arizkorreta. EGINGELA

"EZ DA GAUZA BERA AITA BATENTZAT NERABEZAROAN DAGOENA SEMEA EDO ALABA IZATEA"

bazaizkigu komeni ezaugarri horiek alboratu ahal izateko. Hor dago lehen gakoa, lehen puntu kritikoa, ez delako erraza izaten ezetz esatea guk ikusi eta bizi izan ditugun rol horiei. Askotan, trikimailua izaten da tradizionalarren aurka egitea. Adibidez, aitatasun tradizionalak badio dirua ekartzea dela lehen-tasuna umearekin denbora igaro baino lehenago, lehen-tasuna aldatu beharko litzateke eta umearekin kalitatezko denbora igarotzean jarri arreta. Beste ezaugarri bat izan daiteke askotariko emozioen adierazpena; hau da, ez bakarrik adieraztea oso haserre edo oso pozik egotea, baizik eta tristura edota beldurra ere adieraztea. Azken finean, umeari emozio guztiak adierazteak konfiantza lantzen laguntzen du. Aldaketa eragiteko gakoa da aitak zaintzan jartzea arreta.

Ez da erraza izango saio baten ostean aldaketa sakonak eragitea, ala?

Helburua ez da saio honi esker bizitza osoko aldaketa bat eragitea, baina zerbaitetan urrats bat egin badaiteke eta aldaketa txiki bat eragin, gu pozik.

Nolako erreakzioak eragin ohi dituzte halako saioek?

Aita batentzat aldagai oso garrantzitsua izan ohi da semea edo alaba izatea eta zein adinetakoa. Aita batek semearen nerabearoa oso lasai bizi dezake eta adin bereko alaba duen aitak, berriz, beldur eta zalantza handiekin. Hori bai ikusi dudala saioetan, ez dela bera jendarte honetan neska edo mutiko bat haztea.

Zure esperientziatik, zergatik dira garrantzitsuak Jabekuntza Eskolak?

Marko komun bat aurkeztu eta formakuntza eskaintzen dute, militantziatik kanpo jasotzeko zailak direnak. Estrategia komun baterako aukera eskaintzen dute.

Zein beste saio antolatu dituzue?

Apirilean eta maiatzean honako gai hauek landuko dira, data zehazteke badago ere: *Gizontasuna eta sexualitatea: zerk egiten nauen hetero?* eta *Eraso matxistak eta hauen kudeaketa: zein da gizonen erantzukizuna?*



Agorrosin kiroldegiko sabaia altxatuta, atzo. GOIENA



Udaltzainek aparkalekua itxi zuten, eta gidariei autoa kentzeko eskatu. GOIENA

Kalte handia eragin du haize zakarrak Agorrosin kiroldegian

Barruko igerilekuaren teilatua altxatu zuen atzo; kiroldegia eta inguruko esparrua martitzenara arte itxita izango dira

J.B.L. BERGARA

Eguazten gauetik atzo arratsaldera arte haize zakarra izan zen protagonista Debagoiengan, eta, bereziki, Bergaran kalteak eragin zituen atzo. Kalte horien artean aipagarriena izan zen Agorrosin kiroldegiko teilatuaren zati handi bat altxatu zela; teilatuko xafla batzuk altxatu eta beste batzuk guztiz apurtu zituen haizeak.

Barruko igerilekuaren teilatua izan zen haizeak jasotakoa. Hezetan arazo batzuk tarteko, jada baziharduten azterketa bat egiten sabaiaren egoeraz. Azterketa horren helburua zen hezetan arazo horiekin lotuta zein neurri hartu erabakitzea, baina atzo jasanako kaltearen ondorioz esku-hartze sakonagoa egin beharko da, nahitaez.

Balorazio teknikoaren zain

Atzo goizean Agorrosin izan ziren Gorka Artola alkatea eta udal teknikariak, adituekin ba-

tera, sabaiaren balorazio teknikoak egiteko. Balorazio tekniko horren emaitza aurrerago emango dute ezagutzera. Kiroldegia eta inguruko esparrua datorren asteartera arte itxita egongo dira.

Udaltzainek hartutako neurriak

Hala, ezohiko gertaerak hainbat neurri hartzea eragin zuen atzo, herritarren segurtasuna bermatzea helburu: gertaeraren berri izateaz bat jendez hustu zuten kiroldegia, bertan behera utzi zituzten Agorrosin eta Ipintza zelaietako futbol entrenamenduak eta udaltzainek itxi egin zuten kiroldegiko sarrera nagusiko aparkalekua. Hain justu ere, udaltzainek autoa aparkalekuan zuten kiroldegiko erabiltzaileei ibilgailua ateratzeko eskatu zieten. Horrez gain, Agorrosin ondoko San Martin Agirre eskolako eta Ipintza institutuko arduradunei eskatu zieten goizean zehar ikasleak patiora irten ez zitezen.

Nerabeak eta euskara su txikian, Gaztetxef-i esker

Jardunek pintxo lehiaketa antolatu du DBHko ikasleentzat, Udalaren eta Elikaenearen laguntzarekin. 24 gaztetxok eman dute izena, zortzi taldetan banatuta; martxoaren 28an jokatu da kanporaketa, Oxirondo azokan, eta finala apirilaren 4an izango da

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA
Jardun euskara elkarteak ekimen berezia antolatu du DBHko ikasleei begira, Udalaren eta Elikaenearen laguntzarekin: **Gaztetxef** pintxo lehiaketa. 2024ko abenduan, Jardunek lehiaketa bat jarri zuen abian, 2025ean bideratu ahal izateko ekintza berrien ideiak jasotzeko herritarrengandik. Ideia lehiaketa hartatik jasotako ekimena da, hain zuzen ere, **Gaztetxef** lehiaketa.

Euskara, gazteak eta sukaldia

Jarduneko Nerea Mendizabalek zehaztu duenez, hainbat helburu ditu **Gaztetxef**ek: gazteen artean euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea; gazteei euren aisialdia euskaraz gozatzeko aukera bat gehiago eskaintzea; gazteen arteko euskarazko harreman sare berriak ahalbidetzea; sukaldaritzarekin eta elikadurarekin lotutako euskarazko hiztegia landu eta aberasteko aukera eskaintzea; gazteak azokara eta sukaldaritzara gerturatzea; elkarlana eta talde lana bultzatzea; sukaldaritzaren trebetasunak garatzea; eta kultura gastronomikoaren lanak egitea –garaian garaiko produktuak, elikadura osasuntsua, zero kilometroa...-. "Izan ere, pintxoak prestatzeko bidea zein izan den azaldu beharko dute, eta sukaldian lanean jarri nahi ditugu; betiere, euskaraz. Ahozotasuna lantzeko modu bat ere bada".

Kanporaketa bat eta finala

Antolatzaileen hasierako asmoa zen bi kanporaketa eta finala antolatzea; betiere, izena ematen zuen ikasle kopuruaren arabera. Taldeek bi, hiru edo lau lagunekoak izan behar zuten, eta, azkenean, zortzi talde aurkeztu dira; guztira, DBHko 24 ikasle.

Horregatik erabaki dute bi kanporaketa eta finala egin beharrean kanporaketa bakarra eta



Oxirondo azokako Elikaenean prestatu beharko dituzte pintxoak. GOIENA

EPAIMAHAIA: MARISA KARASATORRE, ANNE OTEGI ETA ANDONI ETXEZARRETA IZANGO DIRA; HIRURAK ADITUAK

finala antolatzea; hortaz, martxoaren 28an jokatu dute zortzi taldeek kanporaketa, 17:00etatik 19:00etara, eta finala apirilaren 4an izango da, ordutegi berean. "Taldea bakoitzak bina pintxo prestatu beharko ditu. Kanporaketan talde bakoitzak aukeratu beharko du zein pintxo prestatu nahi duen; alde aurretik errezeta eta beharko dituzten osagaiak zeintzuk diren zehaztu beharko dituzte, eta Elikaenea izango da denda. Apirilaren 4ko finalak, berriz, beste formatu bat izango du: finalistek Elikaeneak proposatutako pintxoak prestatu beharko dute", adierazi du Mendizabalek.

Hiru kidek osatutako epaimahaia

Lehiaketa bat izanik, epaimahaia ere egongo da. Hiru kidek osatuko dute, guztiak sukaldearen bueltan adituak direnak: An-

doni Etxezarreta, Anne Otegi eta Marisa Karasatorre. Apirilaren 28ko kanporaketan zortzi talde egongo dira eta horietatik hiru sailkatuko dira finalerako; bada, finalista guztiak erango dute saria, hiru banatuko dira eta: **Gaztetxef** irabazten duen taldeak 100 euroko saria jasoko du eskudirutan, baita taldeko kide bakoitzarendako pizza baterako txartel bana ere; bigarren taldeak 50 euro eta pizza baterako txartel bana; eta hirugarren taldeak, azkenik, pizza baterako txartel bana.

Sari erakargarriak

Mendizabalek zehaztu duenez, nerabeentzat erakargarriak diren sariak banatuko dituzte. "Askotan banatu izan ditugu sari bezala Bedelkar elkarte dendetan trukatzeko txartelak, baina, oraingoan, pentsatu genuen dirua jasotzea oso erakargarria izan ohi dela adin tarte horretako nerabeentzat; horregatik, lehen bi taldeek dirua jasoko dute, eskudirutan. Horrez gain, pizza batekin trukatzeko txartela emango diegu, partaide batzuk, akaso, gazteegiak direlako pizzeria baten afaltzeko".



NIRE USTEZ

JOANES PLAZAOLA

Apirilaren 5ean, Donostiara!

Gero eta zailagoa egiten zaigu gure bizi-proiektua imajinatzen hasia ere, hartarako ezinbestekoa den etxebizitzaren prezioak nabarmen igo baitira azken urteotan. Alokairuen prezioak %76 igo dira bederatzi urtean, eta badirudi Bergaran etxe berri bat erosi nahi duenak 450.000 euro ordaindu behar dituela...

EAEn, 30 urtetik beherako gazteen emantzipazio-tasa %16,3an kokatzen da, eta, horien artean, %29 dira bakarrik bizi direnak. Asko dira bakarrik bizi ezin dutenak, eta, askotan, logelak alokatu behar izaten ditugu prezio izugarri altuetan. Etxebizitza bat erostea, berriz, ia ezinezko bihurtu da. Horrez gain, politikari profesionalak sortutako ezinegonen beraien interesen alde erabili dute, enpresari eta etxebizitza mesederako hartutako neurriak neurri sozial gisa aurkeztuta. Egoera hori aldatzeko, antolakuntza eta mobilizazioa beharrezkoa da. Horretarako, Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatu Sozialistak apirilaren 5erako Donostian deitu duen manifestaziora joateko dei egiten dugu, guztiontzako kalitatezko etxebizitza doako baten alde.

Etxebizitzaren negoziari ez! Apirilaren 5ean Donostiara!

OHARRAK

Erramu-zapatuko bazkaria: txartelen salmenta

Txapa Irratiak eta Xaxauk Udalaren laguntzarekin apirilaren 12rako antolatu duten bazkarirako txartelak martxoaren 27an jarriko dituzte salgai, Iralan, 18:30ean. 15 eurotan jarriko dituzte salgai eta pertsonako lau txartel erosi ahalko dira, gehienez.

Arrazakeriaren Aurkako Eguna: 'Conguito'

Ndank Ndank elkarteak antolatuta, *Conguito* film laburra ikusi ahalgo da gaur, martxoak 21, Seminarixuan (19:00).

Proiektzioaren ostean, solasaldia egongo da; Mouwafak Raouph Dansou, Maider Barandiaran Agirre eta Markel Garcia Salamanca gonbidatu dituzte. Itzulpen zerbitzua egongo da.

Lanbroa elkartearen hitzaldi ziklo berria

Hiru hitzaldi antolatu dituzte, *Mito eta historiaren arteko ur nahasietan* zikloaren barruan. Lehen saioa gaur izango da, Irizarren (18:30); Luis Mari Zaldúa Etxabe izango da hizlaria, *Euskal Herriko antzinako jainko eta jainkosak* hitzaldian.

Bergarako Orfeoien batzar orokorra

Apirilaren 10ean egingo dute, Santa Marinako sakristau etxean. Lehen deialdia 20:00etarako da eta bigarrena, 20:30erako.

UGARTE
AROSZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak
 Horma-armairuak
 Altzariak neurria
 Ateak · Eskailerak ·
 Leihoak · Tarimak ·
 Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROSZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

KALITEA
Enpresa Registrada N°99/025

Berezi dator Gorlaren 50. aldia, ikuskizunari begira

Gorlako Igoera txirrindularitza probaren 50. edizioa martxoaren 30ean jokatu da (10:00), 200 ziklistarekin. Hainbat nobedade daude; tartean, aldaketa ibilbidean: bigarren igoeraren aurretik, Asentzio igoko dute, azken txanpako lehia ahalik eta estuena izan dadin

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Gorlako Igoeraren 50. edizioa jokatu da martxoaren 30ean, 10:00etan hasita. 200 txirrindulari lehiatuko dira 114 kilometro eta 2.175 metroko desnibela izango dituen lasterketan. Martitzenean aurkeztu zuten, eta, urteurren berezia izanik, berezitasunak eman nahi izan dizkiete probari; tartean, Asentziarako igoera sartzea. Izan ere, Gorlako bigarren igoera erabakigarrienaren aurretik, Deskarga jaitsi eta Asentzio igo beharko dute. "Talde indartsuendako lasterketa nahiko erraza zen kontrolatzeko; taldeko gregario edo laguntzaileek ihesaldiak harrapatzen zituzten, eta bukaerako tartean taldeko liderra joaten zen aurrera. Aurretan, tranpa txiki bat jarri dugu. Oso portu gogorra jarri dugu azken igoeraren aurretik, eta Deskargatik jaitsi ostean joango dira Angiozartik Asentziara. Espero dugu han tropela apurtzea eta amaieran buruz burukoa ikustea", dio antolakuntzako kide eta Lokatzako presidenten Jon Unamunok.

Inbertsio berezia zuzenkorako Iaz bezala, zuzenean jarraitu ahal izango da Gorlako Igoera, Youtubeko kanaletik. *Strea-*



Lamikiz, Marzo, Unamuno, Arantzabal, Zubia, Barcina, Errasti eta Iñarra, asteon. I.A.A.

ming-aren eta sare sozialen arduradun Iosu Marzok aurreratu du aurten inbertsio handiagoa egin dutela. Motor bat gehiago izango dute lasterketan, adibidez: "Iaz, *streaming* bidez eman genuen lasterketa lehenengo aldiz; denbora gutxi izan genuen prestatzeko. Garrantzitsua izan zen guretzat. Iazko ahulguneak ikusita, aurten inbertsio handiagoa egin da materialean, teknologia gehiago eskuratu dugu, eta motor bat gehiago izango dugu lasterketan. Satelite bidezko motor

ren kontrako norgehiagokan. Martxoaren 25ean, txapelketa bereko finalerdiak jokatu dira, udal pilotalekuan, 19:30ean hasita: promes mailan, Ibarluzea eta Cestau lehiatuko dira; eta nagusien mailan, aldiz, Rekalde eta Amiano.

Bestalde, Reyes Azkoitia Saria txapelketaren barruan, finalerdiak jokatu ziren atzo, hilak 20, benjamin, alebin, infantil, kadete eta nagusien mailetan. Finalak hilaren 29an jokatu dira, 17:00etan hasita.

bat ere izango dugu, eta guk ere Gorlako mendate gainetik satelite bidez emitituko dugu; hobekuntza nabarmena igarriko dugu hor", azaldu du Marzok.

Azken urteetan baino jende gehiago nahi dute helmugan, eta pantaila handi bat jarriko dute han, lasterketa zuzenean jarraitzeko. Era berean, Gorlan umeendako herri-kirol probak antolatu dituzte, baita txokolate-jana ere; eta herribusaren zerbitzua indartu egingo dute.

Irabazleen gomendioak

Gorlako Igoera irabazi duten txirrindulari askok egin dute jauzi profesioaletara, eta lasterketak Bergara mapan jartzen duela dio Kirol zinegotzi Aitor Arantzabalek: "Gorlako lasterketak Bergara mapan jartzen du, gutxienez, txirrindularitza munduan, eta ikustea baino ez dago 50 urtetan antolatu dela eta antolatuko dutela. Profesional pila bat atera dira, gainera".

Aurkezpenean izan ziren, besteak beste, Gorlako palmaresean dauden Julian Barcina eta Koldo Lamikiz: bata, 1989an eta 1993an irabazitakoa, eta bost

alditan podiumean sartutakoa; eta bestea, beterano mailan zazpi urtez jarraian lasterketa irabazitakoa -1983tik 1989ra-. Biek oso oroitzapen onak dituzte Gorlako Igoeraz, eta ondoan izan zituzten aurten lehiatuko diren Unax Errasti antzuolarra eta Beñat Iñarra aramaioarra; lasterketa irabazteko gomendioak eman zizkieten biei. Hasteko, Barcinak: "Amateurretan dena eman didan lasterketa da Gorla. Beti, lehenengo urtetik, irteeran protagonista izan nintzen, eta, gero, igoerari neurria hartu nion eta ia ez nintzen podiumetik jaitsi, jokatu nuen azken urtera arte". Eta, bestetik, Lamikizek: "Oso ondo prestatuta derrigor joan behar dute, baina ezkutututa ere bai pixka bat. Azken igoerara arte gordeta joan, eta gero, azken igoeran, dena eman. Zuhur ibili".

ZUZENKOA HOBETO IKUSTEKO, INBERTSIOA HANDITU EGIN DUTE; PANTAILA EGONGO DA GORLAKO HELMUGAN

Soraluce txapelketa: faboritoak nagusi final laurdenetan

Soraluce lau eta erdiko txapelketako final laurdenetako pilota partiduetan faboritoak erraz nagusitu ziren, eta ez zen lehia handirik izan promes zein nagusien mailetan. Promes mailan, Sanchez eta Ibarra aritu ziren nor baino nor gehiago, eta Ibarra gailendu zen (9-22). Nagusien mailan, emaitza berarekin nagusitu zen Lizeaga Etxeberria-



DEBAGOIENEKO PROFESIONAL LIBERALAK



ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
blasaga@icagi.net

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE
Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABAETA
Araba ibilbidea 20, behea
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK
ARRASATE
Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
uribesalgo@uribesalgo.es

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.

Amenabarroren obra jasoko du Zubiriak

Eguenean jasoko du Amaia Zubiriak Bergarako Udalak eta Olaso Dorrea Fundazioak banatzen duten Monzon-Ganuz saria; garaikurra Amezketako Nagore Amenabarrok egin du, eta "sorpresaz" baina "pozik" hartu zuen "sari sinbolikoa" egiteko eskaria

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA

Martxoaren 27an jasoko du Amaia Zubiria abeslariak 2025eko Monzon-Ganuz Euskal Utopikoei Saria, eta orduan emango diote abeslariari Nagore Amenabarro artistaren (Amezketak, 1986) *Txorien kantuek bete dute paisaia motorra itzaltzerakoan* obra.

"Sorpresaz" baina, aldi berean, "pozik" hartu zuen berria amezketarrak; izan ere, 2022ko deialdian ere eman zuen izena, baina ez zen hautatua izan. "Ez nuen hori buruan, baina idatzi zidatenean oso-oso pozik hartu nuen albistea. Gainera, sarirako koadroa margotu dut. Denbora eta aukera neukan, eta horretarako egin nuen pieza bat espresuki", adierazi du Amenabarrok. Duela hilabete inguru, "gehienez ere bi hilabete", jakin zuen Amaia Zubiria izango zela saritua, eta koadroa tarte horretan egin duela adierazi du, zatika.

Txorien kantuek bete dute paisaia motorra itzaltzerakoan akrilikoarekin eta koloretako arkatzeekin mihisean eginiko 92x73 zentimetroko koadroa da Zubiriari sari bezala emango diotena. Horrek "ilusio handia" egiten dio artistari, baina kezka puntu bat ere badu. "Beti gertatzen den sentsazioa ere badaukat; ea gustatuko ote zaion. Espero

Txorien txioak, koadroan islatuta

Txorien kantuek bete dute paisaia motorra itzaltzerakoan artelana akrilikoa eta koloretako arkatzak mihisean erabiliz ondutako artelana da. Sortu aurretik, Amenabarrok bazekien norendako izango zen. "Gaiari buelta batzuk eman nizkion, baina ez da obra tematiko bat. Ez dauka lotura zuzenik musikarekin edo kantuekin, baina eduki nituen presente tonu ezberdinak eta melodiak", azaldu du.

Obra osatzeko, irudi zatiak hartu eta collagea egin du: "Konposizio bat osatu, eta hortik abiatuta egin nuen koadroa. Zati ezberdinak margotu eta txoriak ere agertzen dira".

Eleberriko esaldi batetik hartutako izenburua

Egileak nahi zuen izenburuak lotura izatea kantuekin edo Amaia Zubiriarekin, eta "erdi-kasualitatez" aurkitu zuen esaldia eleberri batean. Aitoritu du esaldia testuingurutik aterata "arraro" geratu daitekeela, baina gustatzen zaio: "Gustatzen zitzaidan zer lortzen duen, eta nolabaiteko keinua egiten zion kantuari. Irudian ere agertzen dira zati batzuk, eta elkarren artean paisaia bete dute. Berde asko dago, nahiz eta begietara paisaia bat ez eman. Hori guztia bildu zitzaidan. Erdi-kasualitatez aurkitu nuen esaldia eta asko gustatu zitzaidan. Artelanean agertzen diren ezaugarri asko biltzen ditu, edo, behintzat, niri gustatzen zitzaizkidanak".

Sortu duena Amenabarrori gustatu zaio, baina gustatuko ote zaio Amaia Zubiriari? Ardura hori du artistak: "Espero dut gustatzea; ni neu oso hunkituta nago".



dut baietz. Ni neu hunkituta nago eta pozgarria den sari bat da. Gainera, formula asko gustatu zait. Polita da artista bati obra bat erosi eta opari bezala eskaintzea; denendako da onuragarria. Keinu polita iruditzen zait", dio lanaren egileak.

Epaimahaiaren balorazioa

Sari "sinbolikoa" da Monzon-Ganuz, Bergarako Udalak eta Olaso Dorrea Fundazioak, sari-ketaren antolatzaileek, adierazi dutenez. Orain arte, artelanak banatu dituzte, eta "belaunaldi arteko lotura egitea du" horrek helburuetako bat, "artista gazteen lana sustatzearekin batera".

Lanak aurkezteko deialdi irekia egin zen, eta, Xabier Agirrek –EHUko irakasle jubilatua eta Bearteko lehendakaria–, Jesus Mari Lazkanok –margolaria– eta Mikel Lertxundik –arte-historialaria eta komisarioa– osatutako epaimahaiaren arabera, "oso sentsibilitate bereziko artista" da Amenabarro, 2013az geroztik "haren ibilbide artistikoa etengabea" dela iritzita: "Teknika askotarikoetarako abileziatik abiatuta –hasierako marrazki lausotu eta lirismoz jositako pinturak–, hiru dimentsioko pieza harrigarriekin topo egiten dute. Batzuetan, urregintzarako bokazioa ere igartzen diogu hain delikatuak diren pieza horiek asmatzen dituenen: zintzilikarioetatik hasi eta belarritakoetara, eskumuturrekoak, eraztunak eta hibridajeagatik zehaztugabe geratzen diren beste batzuk". Balorazioan erantsi dutenez, "ustekabeko topaldi asko daude" artistaren prozesuetan: "Amaiera zoriontsua duten antagonikoen arteko dantzak", besteak beste.



Nagore Amenabarro. O.D.F.

Gainera, epaimahaikideek gehitu dute hainbat teknologia menderatzen dituela eta "proiektu eklektikoetan" sartzen dela, "beldurrik gabe; proposamen pikturikoek aurrez aurre dauden hiru dimentsioko piezekin elkarbidean jartzen ditu. Haren instalazioetako elkarriketa multisentsorialak dira, eta espazio berean pintura eta objektu harrigarriak bizikidetzan agertzen dira oso modu naturalean".

Artistaren ibilbidea

Arte Ederretako ikasketak egin zituen Amenabarrok Euskal Herriko Unibertsitatean, eta Moda Diseinuko graduondoa eta Pintura masterra ondoren. Egun, irakasle lanetan dihardu Ipar Euskal Herriko Goi Mailako Arte Eskolan, eta artista-lanarekin uztartzen du.

Elkarrizketa Zubiriari

Amaia Zubiriari egindako elkarrizketa irakurri daiteke gaur kaleratu den *Puntua*-ren 448. zenbakiko 18. orritik aurrera.

Laburberako film laburrak ikusgai martitzenean

Martxoaren 25ean, Bergarako Seminarixoa egingo du geldialdia Laburberako, euskarazko film laburren 22. zirkuitu ibiltariak. 19:00etan hasita, zortzi film labur ikusi ahal izango dira –ez da solasaldirik egongo–: Ekain Martinez de Lizarduyren *Prosopagnosia*; Sonia Estevezren *Plazer bat*; Eneko Sagardoyren *Betiko Gaua*;

Ekain Irigorioren *Europa*; Alaia Martin, Karmele Mitxelenaren eta Iraitz Mateoren *Pentsatzen dut*; Jone Arriolaren *Hor Konpon*; Nerea Ayalaren *Goodbye Kepler*, eta Alba Lozanoren *Utlandsk*.

Laburberako film laburren aurtengo bilduma Euskal Herri osoko 51 herritan ikusi ahal izango da, martxoaren 7tik apirilaren 11ra: Gipuzkoan, 22 herritan; Bizkaian, 19; Araban, 5; Nafarroan, 2; Iparraldean, 3; eta Londresen, berriz, 1.

Biharko Zarata Gauean, hiru talde eta pintxada bat

Oztoporik Ez! kolektiboak antolatuta, bihar, 22:00etan, Zarata Gaue ospatuko dute kartzela zaharrean, Üther, Metralleta eta Grip taldeen eskutik. Ondoren, punk, rock eta pop estiloko musikarekin dantzatzeko aukera egongo da, ibarreko Grapa Kolektiboko binilo-pintxadarekin.

Üther taldeak 2017an argitaratu zuen *Argitu orduko iluna*

lehen lan luzea, eta lan horrekin etorriko dira Bergarara. "Üther, beti zarata eta maitasuna banatzen", diote antolatzaileek.

Metralleta 2001ean sortu zen Zarauzko taldea da, eta power-violence eta hardcore musika sortzen dute. Ibilbidean zehar hainbat lan labor eta lan luze argitaratu dituzte.

Lea-Artibaiko Grip taldeak, berriz, grind-punk doinuak eskainiko ditu. Antolatzaileen esanetan, "inork klasifikatzen ez dakien zarata taldea da".

Juan Pablo Balcazar Trioren jazz kontzertua gaur

Txapa Irratiaren 40. urteurreneko egitarauaren baitan, gaur, 22:00etan hasita, Juan Pablo Balcazar Triok *Quiet Thinking* lana aurkeztuko du kartzela zaharrean. Balcazar kontrabaxuan, Antonio Mazzei izango du lagun pianoan eta Oriol Roca baterian. Sarrerak zortzi euro balio du eta egunean bertan erosi ahal izango da.

"Alardearekiko piztutako jakin-minak eman dio egitura lanari"

XABIER SAGASTA LACALLE ILUSTRATZAILEA

'Antzuolako Alardea' komikia egin du Sagastak, Antzuolako Alardearen Elkartearekin batera; Alardea ezagutu ahala egituratu du, sustrai historikoetatik gaur egunera arte



Xabier Sagasta Lacalle ilustratzailea. XABIER SAGASTA

Amaia Ramirez de Okariz
Kortabarría ANTZUOLA

Antzuolako Alardearen gizarteratzea helburu izanik, urrats bat gehiago egin du Antzuolako Alardearen Elkartea, komiki baten aldeko hautua eginda. Xabier Sagasta Lacalle (Arrasate, 1982) ilustratzaileak ondu du, enkarguz, eta atzo, martxoak 20, aurkeztu zuten, Olaranen.

Hiru urteko lanaren ondoren, argitaratuta; gustura gelditu al zara?

Sentsazio oso onarekin nago, eta irakurle mota ezberdinen dako nahiko interesgarria den liburua dela uste dut: askotariko gaiak ageri dira, eta grafiko-ki ere nahiko aberatsa da. Gainera, komikiaren medioaren barruan sartzen da, eta hori beti da pozgarria: aukera asko eskaintzen ditu, batzuetan ez den arren guztiz ezaguna edo baloratua. Egon den lan giroarekin ere pozik nago.

Elkarlanean eginiko lana al da?

Hiru urte hauek ez dira izan enkargua jasoz geroztik bakar-dadean lan egiteko. Elkartearen jatorrizko ideia elkarrekin garatu dugu, eta, hala, komikia ere zabalagoa gelditu da.

Ezagutzen al zenuen aurrez Antzuolako Alardea?

Ez nekien existitzen zenik ere. Dokumentazio lana egin behar izan nuen, eta hor asko lagundu ninduen elkartea. Berezi, Inigo [Ramirez de Okariz] izan dut hizketakide, eta Alardea

ezagutzeko modua izan dut haren eskutik.

Nola eraman duzu ezagutza hori komikira?

Elkartearen hasierako asmoa zen gaur egungo Alardearen balioak-eta aldarrikatzea komikian, baina pertsonalki, kanpotik etorritako norbait izanda, interesgarria iruditu zitzaidan haren sustrai historikoetan ere barneratzea; esaterako, testuingururako, mitoaen osagaian. Horrela hasi ginen lana egituratzen, eta, azkenean, Alardearekin kontaktuan sartu ahala piztutako jakin-minak eman dio egitura.

Zehazki, hiru ataletan banatuta.

Lehendabizikoan, Alardearen jatorri historikoa ageri da, eta bigarrean, berriz, gaur egungo Alardearen prestaketa ez ezik, zaharberitzearen nondik norakoak, izaera, balioak eta helburuak aipatzen dira: parte-hartzaileen iritziak-eta jasotzeko aitzakia bat da, horretarako pertsonaia errealean eta fikziozkoen arteko elkarriketak erabilita. Azkeneko atala mutua da, marrazkiekin osatua, eta Alardearen ospakizun eguna

"ASKOTARIKO GAIK AGERI DIRA, ETA GRAFIKOKI ERE NAHIKO ABERATSA DA; INTERESGARRIA"

dago irudikatuta, herria eta ospakizuna elkartzen diren momentuzat adierazita.

Nola sortu dituzu irudi horiek guztiak?

Gai oso ezberdinak jorratzen dira, eta, horrenbestez, grafiko-ki ere askotariko hizkuntzak erabili ditugu: komikiko orriak azkar pasatzen dituenak ez dezala zerbait monolitikoa ikusi, baizik eta heterogeneoa, hala baita historia eta eduki aldetik ere. Lehenengo atalean, adibidez, iraganari eginez erreferentzia, Erdi Aroko paisaiak eta janzkerak irudikatzea bilatu da modu fidagarrian, garai hartako pintoretan-eta erabiltzen zituzten koloreak oinarri hartuz. Mitoaen atalean, berriz, errealitate irudikatuarekin apurto nahi izan dut, kontraste handiagoe-kin-eta jokatu.

Beste bi atalak, zelanbait esatearren, errealistagoak dira.

Bigarrean elkarriketek dute pisu handiagoa, eta, horrenbestez, narratiorako tresnatzat darabil marrazkia, kolore suabeekin. Hirugarrenean, Alardearen festaren kromatismoa irudikatzea bilatu dut, gaur egungo jantzien-eta paleta erabiliz; gainera, partaideen irudikapena ere badago, euren burua ikus dezaten irudikatuta.

Kuxkuxean arituta, bat baino gehiago identifikatzen dira!

Urteetan egindako argazkiak eskuratu ditut, eta horrekin egin

dut lan. Alardearen sintesi bat izan daiteke azken atal hori, ez baitaude urte konkretu bateko elementuak eta partaideak, baizik eta, askotakoak. Interesgarria iruditu zitzaidan urte ezberdinetan parte hartu duten herritarrek elkarren ondoan agertzea, eta haiek ezaguterrazak izatea. **Irudi horien lagun, berriz, hitzak; zuk sortuak al dira?**

Komikiaren atzeko gidoia Alardeaz ikasi eta hausnartu ahala sortu zen, eta horrek zehaztu du liburuaren egituraketa; horrenbestez, lan berezia izan da testuarena. Nik idatzi nuen testuaren lehen lagin bat, baina parte batzuk garatu egin dira elkartearekin elkarlanean, komikiarekin erdietsi nahi zena modu eraginkorragoan lortzeko.

"ORRIAK AZKAR PASATZEN DITUENAK EZ DEZALA ZERBAIT MONOLITIKOA IKUSI; HETEROGENEOA DA"

Lehen atalean, narrazio historikoa denez, bere horretan gelditu da nik eginiko testua; bigarrean egin dira, halere, moldaketak. Atal horren helburua Alardearen garapena azaltzea zen, eta nire gidoia, alde horretatik, oso pertsonala zen, folklorea eta tradizioa etortzen baitzitzaizkidan burura Antzuolako Alardeaz pentsatzean, eta herritarrek elementu horien artean sortzen zituzten harremanak. Baina ez zen hori bakarrik; beraz, hor egon da, batik bat, elkarlana. Presarik gabeko lana izan da, ahalik eta komikirik irakurriena erdiesteko, eta aproposa Antzuolako Alardean parte hartzen dutenentzat edo hurbildu nahi dutenentzat. **Elkarlanean, presarik gabe eta, esandako kontuengatik, xehetasun handiz?**

Bai. Elkarlanak erakutsi digu gauza berriak lortu daitezkeela, askotariko gauzak kontatu daitezkeela, eta, horiei bizkarra eman beharrean, garatzen saia gaitzkeela.

Desfibriladorea nola erabili ikasteko saioak

Bihotz-biriketako bizkortzea nola egin ikasteko eta desfibriladorearen beharra izanez gero, larrialdi horren aurrean nola jokatu jakiteko, hiru ikastaro antolatu ditu Udalak apirilera; udaletxean dagoeneko eman daiteke izena, hilaren 27ra bitartean

Amaia Txinturreta Guridi ANTZUOLA Geroz eta ohikoagoa da desfibriladoreak kalean ikustea, geroz eta gehiago baitira 24 orduz herritarren eskura jartzen direnak. Horiek erabiltzen jakiteko eta bihotz-biriketako bizkortzea nola egin ikasteko, ikastaroa antolatu du Udalak. Hiru egun daude aukeran: apirilaren 2a, 7a eta 9a. Olarango beheko aretoan izango dira, 17:00etatik 20:00etara, eta edozein herritarrek eman dezake izena, udaletxean, hilaren 27a baino lehen.

"Oinarrizko formakuntza"

Ermuko BEXEN Cardio enpresako Iban Calleja formatzaileak emango ditu saioak, eta haren lankide Argi Osak adierazi du "edozein herritarri" zuzendutako "oinarrizko formakuntzak" izango direla: "Gaur egun, kalean edozein herritarren eskura, 24 orduz, ditugu eskuragarri desfibriladoreak. Horiek osasun arloko langileek bakarrik ez, edozein herritarrek erabiltzeko modukoak dira. Herritar arruntek erabil ditzakete, erabilera erraz eta intuitiboa dutelako, eta bizitza bat salba daiteke; beraz, oso garrantzitsuak dira". Osak gaineratu du desfibriladorearen erabiltzeko ez dela beharrezkoa formakuntzarik jasotzea, baina gomendagarria dela: "Emergentziatzeko egoeraren bat bada, normala da nerbioak eta beldurra sentitzea, eta oinarrizko ezagutza jasota izateak asko lagundu dezake; izan ere, bihotz geldialdia gertatzen bada, denbora da faktorerik garrantzitsuenak eta, ahalik eta azkarren jardutea komeni da". Eta datu batzuk eman ditu; adibidez, bihotz geldialdi bat gertatzen bada, komeni da biktima sei minutu pasa baino lehen artatzea: "Seigarren minutuan pertsonaren biziraupen-tasa %22 inguruan egongo litzateke, eta hamargarren minutuan biktima



Antiguan herritar guztien eskura dagoen desfibriladorea. AMAIA RAMIREZ DE OKARIZ

DESFIBRILADOREA ERABILTZEKO EZ DA DERRIGORREZKOA IKASTAROA, BAINA BAI GOMENDAGARRIA

maren biziraupen-tasa oso baxua da. Beraz, azkar erreakzioan, bizitza bat salbatu dezakegu".

Beti 112ra deitu behar da

Larrialdiren bat gertatzen bada lehenik eta behin 112ra deitu

behar dela ere gogorarazi du Osak: "Biktimak bihotz-biriketako geldialdia badu, 112ra deitu behar da lehenengo. Gainera, Eusko Jaurlaritzako erregistroan daude denen eskura dauden desfibriladoreen kokalekuak. Beraz, larrialdi egoera batean desfibriladorea beharrezkoa bada, 112ra deituta, telefonoz esaten dizute non dagoen gertuen horrelako bat. Lehen, udaletxetan eta eraikin barrutan egoten ziren kokatuta, baina azkenaldian kalean, denen eskura daude, 24 orduz erabiltzeko moduan".

Desfibriladoreak, hainbat gunetan

Udalak jarritako lau desfibriladore daude gaur egun Antzuolan, herritarren eskura, 24 orduz. Horiek hainbat gunetan daude: bat, Eztala futbol zelaian dago bat; beste bat, gimnasio kanpoaldean, Eguzki auzoan, behean; beste bat, udaletxeko arkupeetan, baserrietako buzoiak dauden lokalean; eta beste bat, Antiguko autobus geltokiko markesinan.

Horiez gain, geroz eta enpresa gehiago dira desfibriladoreak euren instalazioetan jartzen dituztenak, bai euren langileendako, baita inguruan dagoen edozein herritarrek larrialdi bat izango balu ere, erabiltzeko. Horiek Eusko Jaurlaritzaren erregistro batean daude izena emanda, eta, esaterako, Elay eta Matz-Erreka enpresetan jarrita dituzte halakoak.



NIRE USTEZ

JON KORTABARRIA MANTZIDOR

Armairu formako baloia

Har al dezake baloi batek armairu forma? Noski! Erraz asko! Azalduko dizut.

Horra, nire ikasle adingabeen mugikorren arduraren baloia forma hori hartu du. Altxa Burua ekimeneko partaide bazara, ulertuko duzu, eta babesa emango didazu. Baina, zoritxarrez, guraso batzuk ez dira zu bezalakoak, eta seme-alabak sakelakoarekin eskolara bidaltzen dituzte. Guraso horiena da armairu forma hartu duen baloia, eta nire ikasleen gailuak giltzapetzen ditut han; izan ere, debekatuta daude. Orain, armairu horretako gailuren bat desagertzen bada, erraz topatuko dute zenbait gurasok erantzulea: ikastetxea edo irakaslea.

Nik bestela pentsatzen dut, eta Altxa Burua ekimeneko partaide izanez gero, hau ere erraz ulertuko duzu, zorionez. Adingabeei mugikorra libre uzten dieten gurasoak dira gailu horiekin gertatzen denaren erantzule, eta ikastetxeen tailatura jaurti dute ardura horren baloia. Edo, tira, gurean, armairura.

Energia trantsiziorako bulegoa, zabalik egubakoitzetan

Energia trantsiziorako informazio-guneak irekitzen dabilta bailarako herrietan, eta ostiralean irekiko dute Antzuolako, 09:00etatik 14:00etara, udaletxean. "Mankomunitateak herritarrek eta merkatari txikiak energiaren inguruan informatu, sentsibilizatu eta ahaldundu egin nahi ditu, eta hainbat gairi buruzko informazioa emango du horretarako", azaldu du Udalak. 747 48 51 47 telefono-zenbakira deituta edo energiabulegoa@debagoiena.eus helbidera mezu bat bidalita eska dezakete informazioa herritarrek. Mankomunitateak EnergiaBulegoa.debagoiena.eus webgunean ere jarri du informazioa herritarren eskura.

OHARRAK

Bakarrizketak

Gaztetxean, gaur, egubakoitza, bakarrizketak egingo dituzte Asier K bergararrak eta Lander Varonak, 20:30ean.

Kalakan zuzenean

Domekan Torresoroan egingo du ikuskizuna Kalakan taldeak, 18:00etan, Udalak antolatuta. *Ahotsez* izeneko lan berria aurkeztuko dute, eta sarrerak *Entradium.com*-en eskura daitezke.

Hitzaldia Landatxopen

Garikoitz Letek hitzaldia egingo du hilaren 27an, datorren egunean, *Gaur egungo familia berriak* izenpean. Landatxopen izango da, 18:00etan.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

MUJKA HARATEGIA

Berezitasunak:
Etxean hazitako zekorrek eta oilaskoak
Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

Udala Asentziori buruzko hausnarketa egiten ari da

Aparkalekuan zegoen komun publikoa kendu berri dute, eta aktuazio hori aisialdi espazioaren etorkizuneko erabileraren inguruko gogoetaren baitan kokatu du Ibon Unzetabarrenetxea alkateak. "Berpiztu egin nahi dugu Asentzio", esan du

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Asentzio espazio kuttuna da elgetarrendako, eta orain dela aste batzuk sarrerako aparkalekuan zegoen komun publikoa kendu izanak sorpresa eragin du inguruko zenbait erabiltzailearen artean.

Gaiaren inguruan galdetuta, Ibon Unzetabarrenetxea alkateak jakinarazi du Udala Asentziori buruzko hausnarketa prozesu orokorra egiten ari dela. "Komun hori ez zegoen erabilgarri. Urte pila batean egon da ezin erabili zegoela. Agintaldi honetan bazegoen konpontzeko gogoia eta aurrekontuak eskatu genituen baina konpontzea baino merkeago ateratzen zen zaharra kendu eta berria jartzea", esan du.

Alkateak azaldu du agintaldi hasieratik izan duela Udala Asentzio gunearen gaiari eusteko asmoa, eta planteamendu orokor bat egitea dela Udala Gobernuaren nahia: "Horretan



Asentzioko putzu ingurua, martitzenean. L.Z.L.

ari gara, eta ikusi dugu komuna ezin zela zegoenetan bertan utzi. Ez dugu baztertzeko etorkizunean beste komun bat jartzea, baina lehenago gune osoarendako planteamendu orokor bat egin behar dugu. Jakin behar

dugu nora heldu nahi dugun. Hausnarketa orokor hori amaitzen dugunean ikusiko dugu non jar daitekeen komuna, eta, seguruenik, leku berean izango da. Horrekin batera, pentsatu beharko dugu zein segurtasun

neurri har dezakeen Udala komun publiko horren erabilerara ona bermatzeko. Zergatik? Berdina ez pasatzeko. Hau da, berria jarri eta berriz ere erabilerara txarra ematea eta izorrratzea; izan ere, komun hori jarri zenean, erabilerara oso txarra egin zen".

Bestelako erronkak

Asentzioko aisialdi-gunean konpondu beharreko bestelako gai asko daudela azaldu du Ibon Unzetabarrenetxea alkateak, eta baimendutakoak ez diren ibilgailuak putzuraino sartzea da horietako bat. Arazo horri zein irtenbide topatu ere mahai gainean du Udala Gobernu Taldeak.

Gehienbat, Turismo eta Memoria Historikoa alorretik zein Kultura eta Euskara alorretik ari dira lanketa egiten. "Berpiztu egin nahi dugu Asentzio turismo aldetik, baina hori guztia ondo hausnartu behar dugu; izan ere, inbertsio handia egitea ekar dezake -lursailak erosi, haurrentako jolas parke bat egin, bertan dauden erakinekin zer...-".

Halako proiektuetarako dirulaguntzarik dagoen ere begiratu nahi du Udala. "Gauzak ondo egin nahi ditugu, eta erabakiak hausnarketa prozesu baten ondorio izatea. Uste dugu, gainera, kontua ez dela obrak egitea eta kito. Egin behar dugu planteamendu bat denboran jarraipena izango duena".



Aparkalekua komun barik. L.Z.L.

Azken lan garrantzitsuak, 2010. urtean

2010ean jarri zuten komun publikoa Asentzio. Gunea berritzeko lanak egin zituen Elgetako Udala, eta sasoi berean egin zituzten bai sarrerako aparkalekua -autokarabanendako gune ere badena-, bai hareaz egindako bidea.

Orduan ere Turismoa eta Memoria Historikorekin lotu ziren lanak. Hain zuzen ere, maiatzean 15 urte beteko ditu Intxortako ibilbide tematikoak. Intxortako Atea 2007an inauguratutakoa da.

Euskaraldian izena ematera gonbidatu dituzte elgetarrak

Euskaraldia batzordea lanean da, eta ikusgarritasun berezia eman gura dio Euskaraldia Hika ekimenari

L.Z.L. ELGETA

Eguaztenean egin zuen lehen batzar irekia Elgetako Euskaraldia Batzordeak. Zazpi lagun elkartu ziren. Tartean ziren Goibeko elkarteko, Udaleko, Ozkarbi elkarteko eta Amantalak talde feministako kideak.

Jakinarazi zuten Elgetak eman duela izena maiatzaren 15etik 25era egitekoa den Euskaraldian, baita Euskaraldia Hika ekimenean ere. "Ekimenak hitanoa ikusgarri egitea du helburu, eta Euskaraldian parte hartzeko modu bat da. Euskaraldiaren



Ahobizi eta Belarriprest, tirolinan. L.Z.L.

oinarriak mantenduta, hika ere erabiltzeko proposamena gehitzen zaio ariketari", azaldu dute.

Zabalik dago izen-ematea

Zabalik dago Euskaraldian izena emateko epea, *euskaraldia.eus* webgunean. Izena ematera koan elgetarrek bi erabaki hartu beharko dituzte: *ahobizi* edo *belarriprest* rola aukeratzea bata, eta Euskaraldia Hika-n parte hartzea edo ez bestea.

Txapa berriak izango ditu Euskaraldiak; izena eman dutenen artean banatuko dituzte, maiatzeko lehen hamabostaldian.

Izen-ematea animatzeko, batzordeko kideek informazio-mahaia jarriko dute kalean datozen egunetan. Jakinarazi dute, baita ere, batzordea apirilaren 9an elkartuko dela berriz, 19:00etan, Ozkarbi elkartearen.

GORA ETA BEHERA



Beira-educiontzia gehiagotan hustu behar dira

"A zer lotsagarria; zelan dauden kristal guztiak lurtean botata beira-educiontzia beteta daudelako", dio irakurle batek. Berraondokoa hondakin-guneko argazkiak bidali ditu.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.



De Vega eta Egizabal elgetarrak, txapelak jantzita, erdian finaleko kontrarioak dituztela. NAGORE OJANGUREN

De Vega eta Egizabal, Gipuzkoako txapeldun

Nora de Vega Ojanguren eta Lur Egizabal Jimenezek osatutako bikoteak txapela jantzi zuen asteburuan jokaturako eskuz binakako errendimenduko Gipuzkoako txapelketan. 18-14 irabazi zieten Maria Balerdi De Paviari eta Itxaso Iparragirre Ormazabali

Amaia Txintxurreta Guridi ELGETA
Zizurkilen jokatu zen joan den asteburuan eskuz binakako Errendimenduko Gipuzkoako Txapelketa, eta infantil mailako nesketan irabazle izan ziren Elgetako Nora de Vega Ojanguren eta Lur Egizabal Jimenez. Aurkari izan zituzten Amezketako Maria Balerdi De Pavia eta Itsaso Iparragirre Ormazabal, eta 18-14 gailentzea lortu zuten elgetarrek. Oso pozik daude garaipenarekin.

Final "gogorra"

De Vegak eta Egizabalek honela deskribatu dute finaleko partidua. "Gogorra izan zen; irabazten hasi ginen, baina parekatu egin zen kontua. Gero, berriro aldea atera genien, baina, ondoren, asko hurbildu ziren, eta gogorra izan zen bukatzea", esan du De Vegak. Gaineratu du fin ibili zirela honetan aurkariak: "Niri pilota botatzen zidatenean zabalera luze, gero dejada egiten zuten,

eta hor asko asmatu zuten. Guk dejadetan eta atzelariari ezkerre botatzen asmatu genuen". Egizabalen esanetan, bikote moduan "ondo" ibili ziren, eta horregatik irabazi zuten.

Aurkariak, gainera, ezagunak zituzten. Izan ere, Gipuzkoako txapelketako partidua elgetarrek irabazi zuten, baina Master Cup txapelketan haiek irabazi zieten; beraz, "pike" moduko bat bazuten euren artean.

Lagunak, pankarta eta guzti

Finalean, elgetarrek etxekoan eta lagunaren animoak jaso zituzten kantxan. "Ez genuen espero, baina lagunak etorri ziren finala ikustera eta pankarta, eta guzti ekarri zuten.

ETZI, DOMEKA, ANTZUOLAN JOKATUKO DEN SAN ISIDRO TXAPELKETAN PARTE HARTUKO DUTE

Aurretik, Master Cupeko finalean ere joan ziren gu animatza. Askok eskertzen da hori", esan du Egizabalek.

Erreferente dituztenak

Duela bi ikasturte hasi ziren elgetarrak pilotan Bergarako taldearekin, baina ikasturte honetan estreinatu dira txapelketan. Pilotari erreferenterik duten galdetuta, Egizabalek esan du aurreko ikasturtean Rezusta izan zutela irakasle, eta hura dela erreferente bat. Emakumezkoetan, berriz, Goiuri Zabaleta, "gaztea eta oso ona" delako. De Vegarentzat egungo entrenatzaile duten Aitor Bergararen arreba Arrate pilotari profesionala da erreferentea pilotan; gainera, Master Cupeko partiduren baten botilero lanak egiten izan zuten.

Etzi, domeka, Antzuolako San Isidro txapelketan parte hartuko dute, eta aurkari izango dituzte Itsasne Lizarralde eta Izaro Sistiaga.

Mari Carmen Salasek jarraituko du Bolatokiko ustiaketarekin

Bi hautagaitza izan dira, eta han lanean urteak daramatzen Mari Carmen Salasek irabazi du lehiaketa

A.T.G. ELGETA

Elgetako Udalak otsail hasieran zabaldu zuen kiroldegiko Bolatoki taberna-jatetxea ustiatzeko kontratazio-prozedura. Bi hautagaitza izan dira, eta Mari Carmen Salasek irabazi du ustiapen-lehiaketa. Eskaintzak hiru urteko kontratua zehazten du, gehienez ere bost urtera arte luzatzeko aukerarekin.

Salas, "oso pozik"

Notizia gustura hartu du: "Oso pozik nago. 55 urte egin behar ditut, eta, seguruenik, hau izango da nire azken txanda. 19 urte

daramatzat Elgetan lanean, eta oso gustura nago. Esango nuke herritarrak gustura daudela nirekin; eta ni eurekin ere bai, noski". Gaineratu du lantaldearekin "oso gustura" dagoela.

Orain arte eskaintzen zituen zerbitzuak mantenduko ditu Bolatokiak: "Astean zehar eguneko menuak ematen jarraituko dugu eta barran pintxoak izango ditugu egunero. Asteburuetan, berriz, orain arte bezala emango ditugu hanburesak, plater konbinatuak, menu bereziak, kontzertatuak...". Lanean "gustura" jarraituko duela dio.



Mari Carmen Salas, Bolatoki tabernan, atzo goizean. LARRAITZ ZEBERIO

OHARRAK

Artista-liburuak egiteko tailerra gaur

Txikiendako saioa 16:30ean izango da eta LH-2tik gorakoendakoa, 18:30ean, liburutegian. Lanak erakusketa batean egongo dira ikusgai astelehenetik aurrera.

Gaztetxoendako Konkis jolasa domekan

2008 eta 2012 urte arteko gazteendako, 16:00etan, gaztelekuetan.

Sukaldaritza ikastaroa Ozkarbin martitzenean

Xalbadorpek antolatuta eta Loli Ibañezen eskutik, 17:00etan hasiko da ikastaroa.

Plastiko-bilketa zerbitzua martitzenean

Mankomunitateak hilero ematen duen zerbitzua da. Deitu egin behar da eskatzeko: 943 76 25 47. Apirilean ez da egongo.

BakQ ikastaroa eguaztenean eta eguenean

Bina orduko bi saio izango dira, KZgunean, 18:00etan hasita.

Astrotopaketa eguaztenean liburutegian

Ilatargi elkarteko lagunaren eskutik, astrotopaketa-saioa izango da eguaztenean, 18:30ean, liburutegian.

Amaia Txintxurreta Guridi OÑATI

Euskaraldiaren letra bakoitzari erreferentzia eginez eta futbol talde baten metafora erabilita, aurten Euskaraldiaren alde jokatuko duen hamaika pertsona-taldea aurkeztu zuten zapatu eguerdian Oñatiko Foruen enparantzan, herritarrez inguratuta. Maiatzaren 15etik 25era bitartean egingo da aurten Euskaraldia, eta dagoeneko zabalik dago bertan parte hartzeko izen-ematea.

Aurkezpena, jendaurrean

Eguraldi kaskarra zela eta, azkenean, kontzejupean babes hartuta egin zuten hamaikakoaren aurkezpena, baina euriak ez zuten galarazi parte-hartzaile bakoitza eszenatokira igo eta indarrez bere letrari eustea. Dagoeneko prest daude euskararen erabilera aktibatzeko mugimendurako.

Hamaikakoa

Hauek dira aurtengo hamaikakoa osatuko duten herritarrak: Jabi Agirre Beitia, Aloña Mendi elkartearen ordezkari gisa; Lurdes Igartua Dorronsoro, Euskaraldia Hikaren bultzatzaile bezala; Diana Milena Hernandez Cortez, Auzoko elkarteordezkari; Iñazio Irizar Etxeberría eta Joxe Anjel Urkia Goitia, Oñatiko Wikipediaren ordezkari; Irma Juaristi Madina, Txanda merkatari elkarte-kide bezala; Oñatz dantza taldetik, Mayerlin Peña Peña, Unai Murgiondo Ezpeleta eta Beñat Madina Korta; Konoburu txorimaloa -Aritz Zubiagirrek eman zion bizia-; Sukena musika taldea; eta Uxue Igartua Kortabarria bertsolaria.

Oñatiko Euskaraldiaren koordinatzaile Julen Agirrek adie-



Euskaraldiko hamaikakoa aurkezteko egindako ekitaldiaren amaieran ateratako talde-argazkia. JONE ARRUABARRENA

Euskararen aldeko gol bat, Euskaraldiarekin

Zabaldute Euskaraldian izena emateko epea Oñatin ere, eta Foruen enparantzan egindako ekitaldi batekin eman diote hasiera lehenengo faseari. Euskaraldiaren barnean erreferente eta dinamizatzaile izango diren hamaikako taldea aurkeztu dute




ARITZ ZUBIAGIRRE
HAMAIAKAKO KIDEA

"Gaztetan eta umetan ikusten dut gaztelaniarako joera geroz eta handiagoa; gure hizkuntza zein den erakutsi behar dugu, eta euskaraz hitz egin".



BEÑAT MADINA
HAMAIAKAKO KIDEA

"Euskaraz jakin eta gaztelaniarako joera dutenak bultzatuko ditut nirekin, behintzat, euskaraz egin dezaten; eurei euskaraz egingo diet".



XANTI EGAÑA
HAMAIAKAKO KIDEA

"Euskara, hizkuntza soil bat izan beharrean, bizitzeko era bat da guretzako [Sukena taldeko kidea da]; kantuak ere euskaraz egiten ditugu".

razi zuten hamaika lagun horiek konpromiso nagusi hau hartu dutela: "Euskaraldian parte hartuko duten beste norbanakoe bezala, beti lehenengo hitza euskaraz egiteko konpromisoa hartu dute, bai Euskaraldiak irauten duen bitartean eta baita aurrera begira ere". Gaineratu zuten ekimena udazkenetik udaberrira igaro denez, aurten txapek ikusgarritasun handiagoa izango dutela.

Bertan izan ziren herritarrek txalo artean hartu zituzten hamaikakoa osatzen duten kideak.

Izen-ematea, zabalik

Herritar askok zapatuan bertan Foruen enparantzan jarri zituzten postuetan eman zuten izena Euskaraldian parte hartzeko. Horretarako, baina, hainbat aukera jarri dituzte antolatzaileek: batetik, entitate gisa izena eman nahi duenak online galdetegi bat beteta erraz egin ahal izango du, *Euskaraldia.eus* webgunean; norbanakoe ere online eman ahaliko dute izena helbide berean, baita eskuz ere, herriko lau gunetan: Zubikoa kiroldegiko sarreran, kultura etxeko sarreran, Pakelekuko tabernan eta Lagun Leku jubilatuen elkartearen.

Bestalde, aurten lehen aldiz egingo den Euskaraldia Hika ekimenean parte hartuko du Oñatik. Hala, antolatzaileek azaldu zuten Euskaraldian izena emateko orduan aukera dagoela Euskaraldia Hika hautatzeko, eta H bat duen txapa berezi bat emango diete hala nahi dutenei, hika bultzatzeko helburuarekin.

Maiatzaren 15etik 25era izango da, hamaika egunez, eta euskaraz ulertzen duten 16 urtetik gorako edozein herritarrek izango dute aukera parte hartzeko.

Gure Esku Dagoren bilera

Ekainaren 7an Bilbon egingo duten mobilizatorako herri batzarrak antolatzen ari da Gure Esku; Oñatikoan 22 lagun batu ziren eta taldea osatu dute herritarrak mugiarazteko. Hurrengo bilera hilaren 31n egingo dute, kultura etxean, 18:30ean. Interesa duen edozein herritar dago gonbidatuta, eta taldea antolatu eta ardurak banatuko dituzte.



SANTI UGARTE

Sancti Spiritus unibertsitatea birgaitzeko esleipena

Foru Aldundiak esleipenera ateratu du Sancti Spiritus unibertsitatea birgaitu eta Turismo Bulegoa egokitzeko proiektuaren idazketa eta lan zuzendaritza. Proiektua idazteko lau hilabete epea zehaztu dute, eta, lanak esleitu ondoren, horiek hamabi hilabete epea aurreikusten dute. Esleipenerako gehienezko aurrekontua 547.461 euro da.

Garagaltza auzoan argia moztuko dute gaur goizean

Oñargik jakinarazi du gaur, egubakoitza, 08:30etik 11:30era argia moztuko duela horniketa hauetan: Garagaltza auzoa 6 -ur-bonbak-, 10, 11, 12, 13, 14, 15, 16, 46 eta 47. Erdi-tentsioko lineetako mantentze-lanak egingo dituzte. Aparatu elektronikoen deskonektatzea gomendatu dute, abisaturik eman gabe bueltatuko da-eta argia.

Martxan dago emakume sortzaileen egitasmoa

Kultura esparruko sortzaileak bakarrik ez, industrian, gastronomian eta beste esparru batzuetan jarduten duten emakumeak ere gonbidatu nahi dituzte 2025eko egitasmoa; izen-ematea zabalik dago, eta erakusketa jarriko dute

Amaia Txinturreta Guridi OÑATI

Iaz abiatutako bideari jarraipena emanaz, dagoeneko martxan dago datozen hilabeteetan Oñatiko emakume sortzaileak protagonista izango dituen egitasmoa. Aste honetan aurkeztu dute ekimena, Oñatiko udal txean, eta, Iñaki Olalde Oñatiko Udaleko Kultura batzordeburuak bertan azpimarratu duenez, sortzaile izatea ez dute bakarrik kultura arloko pertsonetara mugatu gura: "Erdigunean emakumea jarri dugu, eta edozein esparrutan garatu dezake sormena: izan daiteke kulturaren edo artisautzan, baina baita industrian, ostalaritzan, turismoan eta bestelako alorretan ere". Olalde gaineratu du 2025eko egitasmoari heltzeko berriz ere jarri direla harremanetan iaz parte hartu zuten emakumeekin, eta gehiengoaren "babes zabala" jaso dutela.

Horren adibide da, esaterako, aurtengoa antolatzeke lantaldeko kide Edurne Iriondoren kasua. Iaz ikus-entzunezko batekin hartu zuen parte egitasmoan eta aurtengo antolaketa lantaldean sartu da. Haren esanetan, ekimenak "sortzaileen lana ikusarazteko eta sortzaileak elkarren artean saretzeko" balio du, eta, oraingo honetan, sortze-prozesuan jarri gura izan dute arreta: "Sortzaileak hainbat esparrutakoak izan daitezke, baina denek komunean dutena da sortze-prozesu bat jarraitzen dutela".

Hori horrela, bost ekintza aurreikusten dituzte aurtengo egitasmoan: herritarrei zabaldua egongo den erakusketa izango da, alde batetik, baina, horren aurretik, sortzaileei begirako beste lau ekintza ere egingo dituztela azaldu dute.

Sortzaileentzako ekintzak

Lehenik eta behin, egitasmoan izena ematearekin batera, sortze-prozesuari buruzko galdete-



Edurne Iriondo, Iñaki Olalde eta Edurne Sorraluze, egitasmoaren aurkezpenaren. T.M.

SORTZE-PROZESUAN SAKONDU ETA ELKARLANEAN ARITZEKO AUKERA ERE EMANGO DIETE

gi bat emango diete sortzaileei, eta, bigarren urrats moduan, solasaldi-tailer batean galdetegiko hainbat puntu landuko dituzte, taldean.

Hirugarren ekintza izango da gura duten emakumeekin sortze-prozesuaren inguruko grabazio bat egitea; eta laugarrena, etorkizunera begirako elkarlan-saio bat egitea, ordura arteko emaitzez hausnartu eta aurrera begirako beharrak identifikatzeko helburuarekin. Prozesu osoa oraindik ere zehazteke dagoen aholkularitza enpresa batek gidatuko duela adierazi dute.

Herritarrentzako erakusketa

Bukatzeke, erakusketa bat jarriko dute, herritarrek aukera izan dezaten egitasmoan parte hartzen duten emakume sortzaileen lanak ikusteko eta ezagu-

tzeko. Euren asmoa da ekainean zehar jartzea ikusgai.

Dena den, adierazi dute iazkoarekin alderatuta egongo dela berrikuntzarik. Hala, sormen-lana aurkezteaz gain, sortze-prozesuan lagungarri izan den bitarteko bat ere egongo da erakusketan. "Margolan bat erakusten duenak, esaterako, hori egiteko erabili duen materiala edo egin dituen zirriborroak jartzea da asmoa", azaldu du Edurne Iriondok.

Beste berrikuntzak dira sortzaileekin egindako prozesuan zehar ateratako ondorioak eta egindako bideoa ere ikusgai egongo direla erakusketa horretan, eta bisita gidatuak ere egingo dituztela, euren lanen berri emateko.

Izen-ematea, zabalik

Aurtengo egitasmoan parte hartu nahi duten sortzaileek dagoeneko eman dezakete izena, Oñatiko Udalaren webgunean sartu eta bertan dagoen galdetegia beteta. Hilaren 30era arte dago horretarako. Zalantzarik izanez gero, kultura etxera deitzeko aukera ere badago, 943 78 03 53 telefono-zenbakira.

Oñatiko Nabarralde taldeak jardunaldiak antolatu ditu

"Ezkutatu diguten historia ezagutzeko", erakusketa eta hainbat hitzaldi izango dira, astelehenetik aurrera

A.T.G. OÑATI

Hainbat ekintza antolatu ditu Oñatiko Nabarralde taldeak aurtengo jardunaldietarako. Astelehenean zabalduko dute *HABITAT: euskaldunon historia mapen bitartez* erakusketa, kultura etxean, eta bisita gidatua egingo du Beñi Agirrek, 18:30etan. Erakusketa apirilaren 4ra bitartean egongo da zabalik, 18:00etatik 20:00etara.

Martitzenean, *Ezkutatu diguten historia* hitzaldia egingo du Idoia Arrietak, kultura etxeko zinema-aretoan, 19:00etan.

Martxoaren 30ean, Gazteluaitzera ibilaldia egingo dute. 09:00etan Arantzazuko Sindika ostatuaren aurretik irtengo dira eta Bellotzatik bueltatuko dira.

Apirilaren 1ean, *Kepa Anabitarte: XX. mendeko abertzaletasun ahaztua* hitzaldia egingo du Eneko Bidegainek, kultura etxeko zinema-aretoan, 19:00etan.

Eta apirilaren 2an, *Gebara: Oñatiko jaunen leinuaren 1.000 urteko historia* bideo laburra eta hitzaldia izango dira, Iñigo Larremendirekin, kultura etxeko zinema-aretoan, 19:00etan.

Pake Lekukoek hainbat ekitaldi egingo dituzte

Udaberriari ongietorria egiteko, askotariko ekintzak antolatu dituzte Pake Lekuko jubilatuek datorren asterako.

Astelehenean, *Gernu inkontinentzia emakumezkoetan eta gizonzkoetan* hitzaldia egingo du Carmen Sacristan medikuak, jubilatuen etxean, arratsaldeko seieta. Martitzenean, berriz, bertako tabernan, 18:30ean,

txokolatea eta opila izango dira, 2 euroren truke.

Eta egunean, batetik, bingo berezia egingo dute 17:00etan, eta bertan zozketatuko dituzten sariak han dauden bazkideendako izango dira; eta, bestetik, Aloña abesbatzak kontzertua emango du Santa Ana antzokian, 18:30ean. Zuzendari lanetan Ainhoa Galdos izango da eta Anabel Enao izango dute pianoan. Musika eskolako umeen abesbatzak eta trikiti eta panderoko ikasleek ere joko dute.

GORA ETA BEHERA



Udalaren autoa, desgaituen aparkalekuan

Herritar batek jakinarazi du udal langileen auto bat Zubikoa kiroledegi parean dagoen desgaituendako gunean aparkatuta zegoela, eta argazkia bidali du GOIENARA. Salatu du "eredu" izan beharko luketela; gainera, "ondoan aparkatzeko lekua edukita".

"Umoretik heldu diogu heriotzaren gaiari"

AMANCAY GAZTAÑAGA AKTOREA

Kamikaze Kolektiboak 'Renata' antzezlan eskainiko du Santa Ana antzokian domekan, hilaren 23an, arratsaldeko zazpitan

Sara Lanz Azpiazu OÑATI

Amancay Gaztañagak, Kamikaze Kolektiboko aktore nabarmenak, *Renata* antzezlanaren inguruko ikuspegiak partekatu ditu. Domekako 19:00etako emanaldian, Santa Ana antzokian, heriotza, alienazioa eta mundu gero eta azkarrago batean helburu baten bila dabilen gizartearen gaiekin jolasten den komedia zirikatzaile bat eskainiko dute. Gaztañagak bere sormen prozesuaren inguruan hitz egin du, musika antzezlanaren barruan duen garrantziaz, eta publikoarekin duen konexioaz, besteak beste.

Zertan datza *Renata* antzezlan?

Komedia zirikatzaile bat da. Renataren inguruan hitz egiten du; hil eta berpizteko ahalmena duen pertsonaia bat da. Ahalmen hori norbaitek eman dio, eta ahalmen horren bitartez lokartuta edo alienatuta dagoen gizarte bat esnatzeko misioa izango du Renatak.

Zer mezu edo hausnarketa transmititu nahi diozue publikoari?

Gai asko biltzen ditu antzezlanak. Gu heriotzaren eta doluaren gaiari tiraka hasi ginen. Bizitza honetan heriotzari ematen diogun denboraz, egunero bizi ditugun heriotza txiki horietan arreta jarri. Une horiek bizitzeko tarterik ez zegoela ikusten genuen. Tarte hori geroz eta azkarrago doala, eta gauzei azkar aurre egiteari geroz eta garrantzi handiagoa ematen zaio. Horrek guztiak kolpatzen gintuen eta horren inguruko hausnarketa bat egin nahi izan dugu. **Umorearekin uztartu duzue hausnarketa; nolakoa izan da hori?**

Kamikaze Kolektiboaren estiloari dagokionez, naturalki ateratzen zaigu gaiak umoretik lantzea. Guk geure buruaz barre asko egiten dugu, eta kasu honetan ere umoretik heldu diogu heriotzaren gaiari. Egia da gai sakona dela, eta umoreak gaia



Amancay Gaztañaga. ALAIN MARTINEZ

"NIK KUTXA BERDIN BATEAN DAUDEN ERREMINTZAT DITUT ARTE-ADIERAZPEN GUZTIAK"

ertz askotatik heltzeko aukera ematen digu.

Nolakoa da zuen sormen prozesua?

Oso jostagarria. Ideia lau burutatik irten da, horrek duen seriootasuna tarteko. Denon artean eraiki dugu antzezlaneari agertzen den mundua, eta gu entseguetan oso ondo ulertzen dugu elkar. Inprobisatzen ari garen momentuan, eta horregatik, sormen prozesuan oso ondo pasa dugu eta barre asko egin dugu.

Gogotsu zaudete Oñatin antzezteko?

Oso gogotsu gaude. Askok kostatu da gu Oñatira iristea. Kamikaze Kolektiboak dituen hamai-ka urte hauetan, bertan helduen antzezlan batekin gauden lehenengo aldia izango da igandekoa. **Zure ibilbidean hainbat arte-adierazpideetan aritu zara –antzerkia, zinema, musika, literatura...–; nola uztartzen dituzu diziplina horiek?**

Azkenean, ni titiritero kontsideratzen naiz eta batek bestea ekartzen du, denak oso lotuta daude. Horrela sentitzen ditut nik, behintzat; batetik bestera ez dago saltorik. Nik kutxa berean dauden erremintzat ditut arte-adierazpen guztiak. Eta asko gustatzen zait guztiak erabiltzea.

Orain arte interpretatu dituzun pertsonaiaren bat aukeratu beharko bazenu?

Askok dira; pentsa obra honetan bakarrik hamaika direla. Hori zein seme aukeratuko zenuke esatea bezala da, asko maite ditut denak. Nire ustez, aktoreei gertatzen zaiguna da pertsonaia bat datorrenean hasieran beldurra sartzen zaizula, eta zalan-tzan jartzen duzu ea behar duen hori emateko gai zaren. Pertsonaia hori izaten ari zarenean guztiz kontrakoa da, maitemindu egiten zara eta zure parte izaten jarraitzen hasten den zerbait da.

Baduzu proiektu berririk martxan?

Beti gaude proiektuak aurkezten, une oro. Bi proiektu ditut. Bata ikus-entzunezkoekin lotutakoa, oso proiektu kuttuna da, eta irteeta nahiko nuke.

Construcciones Ugarte Aloña Mendik partidu erabakigarria du

Saieko Mon Paperdendaren aurka jokatuko dute bihar, zapatua; Donostian izango da, 18:00etan

Sara Lanz Azpiazu ARRASATE

Martxoaren 22an, Construcciones Ugarte Aloña Mendi senior taldeak Saieko Mon Paperdendaren aurka partidu erabakigarria jokatuko du Donostian, 18:00etan.

Hitzordu hori garrantzitsua da taldearentzat, eta hauxe esan du Iñaki Zabartek, taldeko entrenatzaileak: "Azkenean, igotzeko aukera izaten jarraitzen dugulako". Gainera, taldea sailkapeneko hirugarren postuan dago, eta bosgarrenarekiko 11 puntu ditu. Hori horrela, "garrantzitsua da azken hiru partiduak irabaztea" finalerdiak ziurtatzeko; hala ere, dena alda daitekeela gogorarazi du entrenatzaileak.

Larunbatera begira

Etxean jokatutako partidua 25-25eko berdinketarekin amaitu zen. Zabartek adierazi du aur-



Lehen itzuliko partiduan. GOIENA

karien erritmo azkarra eta gazteak direla kontuan hartuta, euren erritmoan moldatuz garaipena lortzea posible dela.

Entrenatzaileak taldearen ilusioa eta gogo sendoa nabarmendu ditu: "Gogotsu ikusten dut taldea, ilusioz beterik".

Maiatzean itzuliko da Kantari, eta izen ematea zabalik dago

Maiatzaren 31ko asteburuan itzuliko da Kantari Oñatira; herriko gaztetxoak kantuan eta dantzan ibiliko dira eta emanaldiak gaztelekuan izango dira. Ikuskizunaren aurreko asteburuan, maiatzaren 24an, ohi bezala, entseguak egingo dituzte.

7 eta 12 urte arteko gaztetxoek izango dute parte hartzeko aukera; hiru, lau edo bost lagune-

ko taldeak osatu beharko dituzte, eta, behin taldea eginda, partaide bakoitzak bere izen-emate orria bete beharko du, apirilaren 6a baino lehen.

Helbide elektronikoa eta eskuko telefonoaren zenbakia zuzen jartzea garrantzitsua da. Izan ere, horiek izango dira harremanetan jartzeko bideak.

Zalantzarik izanez gero, 943 25 05 05 telefono-zenbakira deitu daiteke, edo kantari@goiena.eus helbide elektronikora mezu bat bidali.

Uxue Igartua, Gipuzkoako Eskolartekoan

Ostiral honetan, martxoaren 21ean, Amasan egingo den 2025eko Gipuzkoako Eskolartekoan izango da Uxue Igartua bertsolari oñatiarra.

Arratsaldeko zortzietan izango da saioa, eta oñatiarrarekin batera beste bost bertsolari egongo dira: Jare Bengoetxea, Haritz Murua, Mateo Larraza, Suhar Gesalaga eta Sustrai Goenaga.

'Harry Potter'-en fantasia kiroldegian, gimnasten eskutik

Datorren ostiralean, martxoaren 29an, 18:30ean, Oñatiko kiroldegiko pilotalekuan *Harry Potter*-en istorioetan oinarritutako ikuskizun berezia egingo dute Aloña Mendiko gimnasia taldekoek.

Jaialdiko sarrerak Oñatiko Udalaren webgunean edo Txokolatexan eskuratu ahal izango dira, hiru eurotan.

GOIENA TELEBISTA SASOI BERRIA



'GALDEGAZTE'
IKASLEAK KAZETARI LANETAN
BIDEOPODCAST GANBERROENEAN



'KANTARI'
DEBAGOIENENKO EUSKARAZKO
IKUSKIZUN ARRAKASTATSUENA BUELTAN DA



'EZKARATZEAN'
ANNE OTEGIK GIDATUTAKO
SUKALDARITZA-SAIO BERRIA



'HALA BAZAN'
IRAGANA ORAINERA DAKAR
DENBORALDI BERRIAK



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA



goiena

Zu hemen zaude.

"Finalean ezin diegu pilota eroso jotzen utzi"

BEÑAT RESUZTA ASPEKO PILOTARIA

PILOTA Martxoaren 30ean Joseba Ezkurdiarekin batera Eskuz Binakako finala jokatu du Navarra Arenan; Artola eta Mariezkurrena II.a izango dituzte aurrean

Xabier Urtzelai Atxa BERGARA

Eskuz Binakako finalerako sailkatu eta biharamunean, Beñat Rezustak (Bergara, 1993) komunikabideekin berba egiteko tartea hartu du, Arbizun (Nafarroa). Medioekin konpromisoa beteta, hilaren 30eko finala buru-belarri prestatu nahi du.

Kazetariz inguratutako bazkalostea, akaso, ez da erosoena.

Tira, finalerako sailkatu zarelako bada, gaitz erdi.

Txapelketa osoa eginda iritsi zarete Ezkurdia eta biok finalera.

Ez da erraza halako txapelketa luze baten ostean amaierara sasoi onean iristea, eta hori lortu dugula uste dut. Orain, finalaz gozatzea geratzen zaigu; halako egunak ez dira asko izaten, eta lagunek eta etxekoez inguratuta egun eder batekin gozatzen badugu, ederto. Gero, finala irabaztea lortzen badugu, hobeto.

Diozu gutxitan bizi ahal izaten den egun bat dela finalekoa; Eskuz Binakakoan bost aldiz bizi ahal izan duzu.

Bai, baina 2019tik daramat finalik jokatu barik. Sasoi batean, jarraikortasun handiarekin sailkatu izan nintzen finaletarako; akaso, hura ere ez zen oso normala. Eta, ondoren, urteren baten gertu egon naiz. Baina, hala ere, zortea ere behar da.



Rezusta, kazetariarekin berbetan, astelehenean, Arbizun. ASPE PELOTA

"GURE ERRITMOA INPOSATU ETA FRONTOIAN MUGIARAZI EGIN BEHARKO DITUGU"

Joseba Ezkurdiak ere behar zuen halako txapelketa bat...

Bi lagunek osatu dugu bikotea, aspaldian frontoietan elkarrekin asko ibili garen bi lagun. Azken batean, Joseba bera final asko jokaturakoa da, hiru modalita-

tetan, gainera, eta, hain zuzen, maila handia erakutsi duelako esijentzia maila ere halakoxea dauka. Txapelketa aurretik ere komentatzen genuen elkarrekin inoiz jokatu gabe geundela Binakakoan, eta begira, finalera iritsi gara; pozik gaude.

Non egon da halako txapelketa ona egin izanaren gakoa?

Batetik, erregularrak izan gara, eta hori ez da erraza horrenbeste aste irauten duen txapelketa batean; izan ere, azken batean, normala izaten da jokoari dagokionez gorabeherak izatea. Eta,

bestetik, partidu hasierak erritmo handikoak egin izanak mesede egin digu, kontrarioa estuztea lortu dugu orduan. Egia esan, Josebaren jokatzeko moduarekin ondo konektatu dut.

Bergaran pilota eta txirrindularitza erreferenteak izan dira kirolean; hilaren 30ean zuen finalak Gorlako 50. urteurrenarekin egingo du bat.

Aitortuko dizut zuk esan arte ez neukala gogoan Gorlako Igoera ere egun horretan jokatu dutenik. Erreferentziatzko lasterketa bilakatu da, 50 urte asko dira... Eta badituzte ziklista izan diren lagunak bertan parte hartu dutenak. Egundak baino gehiago izango da bi hitzorduak jarraitzen, inguruan ziklismozale asko dut eta.

Navarra Arenan jokatu duzue finala...

Ez dugu askorik jokatu han, urtean zehar ere ez dugu han jokatu, baina pilotaleku ona da; alde horretatik, ez dugu aitzakiarik. Uste dut Artolaren eta Mariezkurrenaren ezaugarrietara hobeto egokitzen den pilotaleku dela, eurak oso jotozailak direlako, baina gu ere han erritmoz jokatzeko kapaz gara uste dut.

Ez dago final errazik, baina bikote gogorra izango duzue aurrean.

Zalantza barik. Duela bi aste jokatu genuen Artolaren eta Mariezkurrenaren kontra, eta orduan guk irabazi bagenuen ere partidu oso gogorra izan zen; bereziki, zein erritmotan jokatu genuen kontuan hartzen badugu. Finala irabazi nahi badugu, berdina jokatu beharko dugu, opari gutxi egin, bi pilotarien arteko tarreak bilatu, eurak mugitzera behartu... Izan ere, pilotara eroso iristen badira, jotzen uzten badiegu, ez dugu zer eginik.

PILOTA Master Cup-eko finalerdietan Osés, Bergara eta Etxegarai

Binakako Master Laboral Kutxa Txapelketako finalerdiak jokatuko dituzte domekan, hilaren 23an, Laudioko (Araba) Areta pilotalekuan (12:00). Eta han izango dira Debagoieneko hiru ordezkariak: Uxue Osés, Madalen Etxegarai eta Arrate Bergara. Gainera, Osés eta Etxegarai elkarren kontra lehiatuko dira lehenengo partiduan.

PILOTA Maddi Barrocal, Ados-eko binakako finalerdietan

Maddi Barrocalek Ados-en binakako txapelketako lehen mailako finalerdietako partidua jokatu du zapatuan. Pilotari bergararrak Amaia Arrastia izango du bikotekide, eta zapatuan Oskoz eta Agirre izango dituzte aurrean. Hala, finalerdi hori Atano pilotalekuan jokatu dute, Donostian, 17:30ean hasita.

PILOTA Domekan kanporaketa jokatu du Muruak Uarkapen

Domekan bi pilota partidu hartuko ditu Arrasateko Uarkape pilotalekuak. 17:15ean hasiko da pilota jaialdia, eta lehen partiduan buruz buruko B Serieko kanporaketa jokatu dute Matak eta Muruak. Bigarren norgehiagoka binakako lehia izango da: Altuna III.a eta Gabirondo, Elordiren eta Martijaren kontra.

Junior mailako Uzarragako Igoera zapatuan Antzuolan

TXIRRINDULARITZA 75 kilometro izango dituen lasterketa 15:15ean hasiko dute, Herriko Plazan

X.U.A ARRASATE

Peña Ayastuik antolatzen duen gazte mailako Uzarragako Igoerak 51 urte beteko ditu bihar, zapatua. Eta amateur mailara salto egiteko gogoz dauden ziklistendako erakusleihen ederra

izango da, beste behin. Lasterketa 15:15ean hasiko dute, Antzuolako plazan, eta lehenengo 40 kilometroak egiteko Osintxuraino eta Elorregiraino joango dira; jarraian, Deskargako maldak igoko dituzte -16:20an- eta

Udanatik bueltan etorriko dira. Hala, 73. kilometroan, Antzuolara iristean batera, Uzarragako malde ekingo diete, eta kilometro eta erdiko igoera erabakigarria izango dute orduan -txirrindulariak 17:25 inguruan iritsiko dira helmugara-.

Lasterketan Debagoieneko zenbait ziklista izango dira; besteak beste, Aloña Mendiko Ulmako ordezkariak, baita Elgoibarko Besa Laboral Kutxa taldean diharduten Lokatzako ziklista bergararrak ere.



Ziklistak taldeka helmugaratzen iazko Uzarragako Igoeran. IMANOL SORIANO

"Liga eta Kopa irabazteko nahiak ez gaitu itsutzen"

AINHOA SALILLAS TXURI URDIN HOCKEY TALDEKO ATEZAINA

HOCKEYA Jacaren aurka jokatu du Txuri Urdin hockey taldeak Kopako finalerdietako partidua (zapatua, 16:00). Finalera igaroz gero, domekan jokatu dute partidua

Julen Murua Mesonero BERGARA

Aurreko asteburuan Majadahonda taldeari 2-3 irabazita, Iberdrola Ligako garaikurra lortu zuen Ainhoa Salillas jokalaridena Txuri Urdin taldeak. Atsedenerako tarterik gabe, Erreginaren Kopako finalerdietako partidua du jomugan Bergarako atezainak.

Lehenengo eta behin, zorionak!

Eskerrik asko!

Gogorra izan zen finala?

Egia esan, bai. Laugarren partidua irabazi egin ziguten, Donostian, eta aldapa gora jarri zitzaigun finala. Bosgarren partidua zaila izan zen, baina irabazi egin genuen, eta harro gaude lortu dugun emaitzarekin. **Hirugarren liga jarraian; gaizki ohi-tu zarete?**

Duela lau urte irabazi genuen lehenengoa, eta hurrengo denboraldian azkenak gelditu ginen. Ikusten da kirol honetan baliabideak ez direla oso onak, eta, norbere bizitza eta hockeya batera uztartzea zaila denez, taldeak asko aldatzen dira. Liga irabazteak duen zailtasun maila handitu egiten du horrek.

Asteburuan, Kopa; ospakizunerako tarterik ere ez duzue izan.

Final luzea izan da, eta atsedean hartzeko denborarik ere ez dugu izan. Egia da horrek dinamika



Salillas, Txuri Urdinen. MIREIA BIKUÑA

ez galtzen lagun diezagukeela, baina nekatuta gaude, bai fisikoki, baita mentalki ere.

2022ko lorpena errepikatzeak [Liga eta Kopa irabazi zituzten] itsutu egiten zaituzte?

Ez dut uste. Kopan baja batzuk izango ditugu; izan ere, argentinarrak beste txapelketa bat jokatu behar dute eta Maria Sierra atezaina ere ezingo da etorri. Hutsune horiek igarriko ditugu, baina, behin Liga irabazita, erronka bat gairatu dugu. Hala ere, arreta ez dugu emaitzetan jartzen; entrena-

mentuetan lantzen duguna partiduetan erakutsi nahi dugu. Emaitzek laguntzen badute, ondo, baina itsutu gabe.

Jacako taldea izango duzue aurrean finalerdietan.

Sorpresa polita izan da, eta horrek erakusten du Ligako maila igotzen ari dela. Erronka polita izango da, ez genuen-eta espero talde horren aurka jokatzea, eta aberasgarria izango dela uste dugu.

Finalera igaroz gero, aurkaria Majadahonda edo Puigcerda izango da.

Bi talde gogor dira, eta erronka polita dute aurretik. Uste dut finalerdi polita izango dela ikusteko, eta bakoitzak bere indarguneak ditu: Majadahonda oso talde osoa da; oso orekatua, nolabait esanda. Puigcerdak, berriz, oso atezain ona eta aurrealdean arriskua sortzen duten jokalariek ditu. Partida estua izango da.

Zeinen aurka jokatzea gustatuko litzazuke?

Puigcerdaren aurka gehiagotan jokatu dut, eta, hortaz, segurua sentitzen naiz euren aurka jokatzean. Bestalde, Majadahondarekin ere badaukat lehia antzeko bat, eta euren aurka jokatzea ere ilusioa egingo lidake. Ez nuke jakingo aukeratzen.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Aretxabaleta - Alaves C
Dom. 16:30. Ibarra.

GAZTEAK MAILA NAZIO.

Bergara - Real B
Zap. 16:30. Agorrosin.

GIZ. OHOREZKO ERREG.

Oiartzun - Aloña Mendi
Dom. 11:30. K. Lekuona.

Mondra - Bergara
Dom. 16:30. Agorrosin.

EMAKUM. O. ERREG.

Zumaia - Bergara
Zap. 18:00. Aita Mari.

GORENGO GIZONEZ.

Lagun Onak B - UDA B
Dom. 16:10. Garmendipe.

GORENGO EMA. IGOERA

Debagoiena Bailara - Intxaurdi B
Dom. 17:00. Azkoagain.

GORENGO EMA. KOPA

Mondra - Ilixtxa
Zap. 17:45. Mojategi.

GAZTEAK OHOR. MAILA

Mondra - Hernani B
Zap. 17:30. Mojategi.

ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

V. de Sainz - Mondrate
Zap. 16:30. Abusu.

Eskoriatza - Elorrietako
Dom. 18:30. M. Muñoz.

GIPUZ. LEHEN MAILA

Ttakun - Aloña Mendi
Egub. 22:30. Zubiaurre.

GIPUZ. BIG. MAILA

Eskoriatza B - Zaldibi
Egub. 22:00. M. Muñoz.

ESKUBALOIA

GIP. LEHEN MAILA GIZ.

Fagor P. - Egia
Zap. 18:00. Zubikoa.

Urola - Mugarri Ingou
Zap. 18:00. Ispilla.

GIP. LEHEN MAILA EMA.

Saieko - Aloña Mendi
Zap. 18:00. La Salle.

GIP. GAZTE MAILA GIZ.

Usurbil - Oñabike Aloña
Dom. 11:45. Oiardo.

GIP. GAZTE MAILA EMA.

Orio - Lana Aloña
Dom. 13:00. Karela.

Ingou Arrasate - Bidasoa
Dom. 09:45. Iturripe.

SASKIBALOIA

EMAKUM. LF2 MAILA

Geieg Pacisa - MU
Zap. 18:15. Lluís Bachs.

FEB HIRUG. MAILA

MU - Castillo de Gorraiz
Dom. 18:30. Iturripe.

EUSK. GIZ. LEHEN

MU - Loiola
Zap. 18:00. Iturripe.

EUSK. GIZ. BIG.

Ulacia - Soraluze BKE
Zap. 20:30. Aritzatalde.

EUSK. JUNIOR GIZ.

Mikeldi USK - MU
Egub. 17:30. La Casilla.

GIP. SENIOR GIZ.

Añorga - Biotz Aloña
Zap. 18:00. Benta Berri.

GIP. SENIOR. EMAK.

D. Hoops - Eskoriatza
Zap. 15:30. Altza.

Bergara - Mundarro
Dom. 11:00. Labegaraieta.

MU - Easo
Dom. 17:00. Musakola.

FUTBOLA Mondraren eta Bergararen arteko derbia domekan

Ohorezko Erregional Mailako derbia jokatu dute domekan Mondrak eta Bergarak, Mojategin, 16:30ean hasita. Guztiz kontrako egoeretan dauden bi talde dira; izan ere, arrasatearrek sailkapeneko beheko postuetatik ateratzeko lehian jarraitzen dute, eta bergararrak, berriz, txapelketako aurreneko postuetatik gertu daude.

Arrasateko taldeari dagokionez, azken partiduetan garaipenik lortu ez badu ere, etxean jokatu dituen azken hiru neurketetan bederatzitik zazpi puntu atera ditu, eta Mojategin jokatzen dueneko boladarekin segitzea izango da helburua. Mahoneroen kasuan, etxean lortutako azken garaipenari jarraipena ematera irtengo dira Mojategira, sailkapeneko liderra den Añorga urrun ikusten badute ere, gainontzeko aurkarietako duten puntu tartea laburtzeko asmoz.



Realaren eta Valladoliden arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Valladolid norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeratutako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik. Partidua martxoaren 28ko asteburuan izango da.

Parte hartzeko azken eguna: martxoaren 23a.

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!



1. Aplikazioa deskargatu.

2. Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu. Zorte on!



Egin Goienakide eta Reala ikusteko aukera izango duzue!

goiena kide

Okm: batzen gaituen distantzia

Entsegu-lokaletako rap proiektuak Antixenean

Arrasateko Ixisyroy bikotea eta Oñatiko Loren, EFMR eta Andutx rap abeslariak eta DJ Kepix izango dira gaur, egubakoitza, 19:00etan hasita, Oñatiko gaztetxean egingo duten 'Rapa-gaua' jaialdian; sarrerak hiru eurotan izango dira

Aitziber Aranburuzabala Juldain
OÑATI

Entsegu-lokaletan aspaldi ari da Ander Romero *Andutx*. Gitarra eskuetan punk-rock estiloan ekin zion orain dela urte batzuk musika ibilbideari, eta Buru Hilketa eta bestelako taldetan jardun du. Azkeneko urteetan, baina, gitarra alboratu eta mikroa du eskuetan, punk estilotik pixka bat aldentu eta rap estilora hurbilduta. Rapa egiten duela dio, baina ez dela *rapero* sentitzen aitortuta. "Rapa kasualitatez heldu zitzaidan. Poliki-poliki gustatzen joan zitzaidan estilo hori, kantuak sortzen hasi nintzen eta dagoeneko baditut batzuk. Oraingoz bakarrik jarduten dut sortzen eta baita taularen gainean ere, sareetako *base* batzuen gainean abesten dut, baina badut DJ batekin hasteko asmoa ere", azaldu du *Andutx*-ek.

Euskaraz –Oñatiko euskalkian– eta gaztelaraz abesten du, rap estiloko diskurtsoetako "ohiko edo giro-urbanoko gaietara" mugatu barik. "Originaltasuna bilatzea gustatzen zait, ez dut-eta oso gustuko talde edo musikari asko gauza bera esaten entzutea. Beste ikuspuntu batzuk ematea gustatzen zait eta adibidez, espiritualtasunari, mendiari edo naturari buruz abesten dut. Talentua duen jende asko dagoela ikusten dut, baina, asko, hitzak idazterako orduan, ondo enfokatuta ez daudela iruditzen zait. Nire abestiek mezua izatea gustatzen zait, jendea xaxatzeko".

'Rap-gaua' gaur, Antixenan

Iazko abuztuan egin zuen estreinako emanaldia herriko Antixena gaztetxean, eta geroago Eltzia Topagunean, eta ari da hango eta hemengo gaztetxeetako ateak jotzen. Bada, musika estilo bereko hainbat zaleei gonbidapena eginda, gaur, egubakoitza, *Rapa-gaua* antolatu du



Ander Romero *Andutx*, iaz abuztuan Antixenean egin zuen emanaldian. A. R.

"EZ DA ERRAZA IZATEN OHOLTZA GAINERA IGOTZEKO AUKERAK LORTZEA"

ANDER ROMERO 'ANDUTX', RAP ABESLARIA

beste lagun batzuekin batera Antixena gaztetxean. "Denbora bat neraman halako ekitaldi bat antolatu guran, eskualdeko beste herri batzuetan moduan, Oñatin ere gero eta nabarmenagoa da-eta estilo horren, edo, orokorrean, musika urbanoaren goraldia. Hasiara baten, Gasteizko rap abeslari batzuk ziren etortzekoak, baina azkenean ezingo dira etorri eta eskualdeko artistekin kartel txukuna osatzea lortu dugu: Arrasateko Ixisyroy taldea izango da batetik, eta Oñatiko hiru rap-abelslari *Loren* –Julen Lorenzo–, *EFMR* –Mikel Aranburu– eta ni".

19:00etan hasita, ordubete inguruko saioa egingo du bakoitzak–bakarka edo bikote formatuan–, eta ondoren, Oñatiko DJ Kepix-ek –Kepa Aldekoa– borbilduko du gaua. "Rap-urbanoa

egiten duten Arrasateko bi gaztek osatzen dute Ixisyroy taldea, gaztelaraz abesten dute, gehienbat. Oñatiko *EFMR* eta *Loren*-ek, berriz, beste *roilo* bat daroate; urte asko daroate *rap-batailak* edo *free-style* saioak egiten. Euren abesti propioak dituzte horiek ere eta gaztelaraz sortutakoak dira gehienak", dio *Andutx*-ek.

Sarrerak, hiru eurotan

Eskualdeko eta herriko rap zaleen topagune izan gura du Antixenako gaurko ekimenak. "Entsegu-lokaletan zein etxeko-estudioetan gauza interesgarri asko sortzen dabiren jende asko dago gaur egun, baina ez da erraza izaten gero, aretoak edo oholtza gainera igotzeko aukerak lortzea. Bada, hori da, gaur gure asmoa, egiten ari garena modu duinean erakustea eta xumea, baina jaialdi polit bat egitea guztion gozamenerako. Beraz, guztiak gonbidatuta zaudete".

18:00etan zabalduko dituzte gaztetxeetako ateak eta 19:00etan hasiko da jaialdia. Sarrerak egunean bertan salduko dituzte, hiru eurotan bakoitza.

Goienakideen txokoa

MARTXOKO SARIAK

Errigorako saskia

Parte hartzeko sariaren izena: Errigora

erriGora



Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz

ARRIKRUTZ
OÑATIKO OAK

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.hierremendiak.org
Bideoak: Merkatariaren proiektuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus WhatsApp: GOIENAKIDE
"sarearen azken" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.

'goiena app'-a / zozketa atalean. Parte-hartzailean artean egingo da zozketa.

Indarrendapen LDFI 15/1999 legearen arabera, gilearen dugu: zuzendapenari Goiena Komunikazio Zerbitzuak itxarotzen dituzte. Batez besteko datuak. Datu-bilaketaren helburu bakarra indarrendapen dagoen datuaren gestioa da. Eskubide oraindik ez dago onartutako, baina zuzentzeko edo ezartzeko helburuak dituzte. goienakide@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Arrasateko Udolari esker

'Amores moixosunak' dantza-irabazleentzako sarrerak ditugu.
Arrasate | Amala Antzokia | Martxoak 30 | 19:30

PARTE HARTZEKO:

E-postaz: goienakide@goiena.eus WhatsApp: GOIENAKIDE "Dantza"
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.

'goiena app'-a / zozketa atalean. Parte-hartzailean artean egingo da zozketa.

Indarrendapen LDFI 15/1999 legearen arabera, gilearen dugu: zuzendapenari Goiena Komunikazio Zerbitzuak itxarotzen dituzte. Batez besteko datuak. Datu-bilaketaren helburu bakarra indarrendapen dagoen datuaren gestioa da. Eskubide oraindik ez dago onartutako, baina zuzentzeko edo ezartzeko helburuak dituzte. goienakide@goiena.eus

Irabazi bi pertsonarendako otordua

MAUXKA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldirikako Otorduan atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: martxoak 25

943 25 05 05

goienakide@goiena.eus

"Goiena app"-a / zozketa atalean.



GOIENAKIDE *Jatetxea*
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.



Puntua aldirikaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...

2025eko kuota 67 € da; eta orain, %50eko deskontuarekin: 33,50 €.
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APLIKAZIOA!

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia.



Bergarako Labegaraieta auzoan 2023an egin zuten Ekinez jaialdiaren une bat. EKINEZ JAIALDIA

Zero kilometroko musika jaialdiak, nazioarteko artistak ere gonbidatuta

Udaberrian eta udan egingo dituzten Ekinez, Mondra&Roll eta Arrasate Blues musika jaialdietako antolatzaileak buru-belarri ari dira aurten ere eskualdeko zein kanpoko zaleentzako "eskaintza oparoa" egiteko lanetan; sarrerak dagoeneko salgai daude

A. Aranburuzabala ARRASATE

Urte osoan askotariko musika emanaldiak izaten dira Debagoienean, erakundeek edota elkarteek antolatuta, baina, udaberrian sartu ahala, areagotu egiten da eskaintza, eta horien artean daude musika jaialdiak.

Azkeneko urteetan eskualdean ere badago musika jaialdietarako joera; esaterako, maiatzaren 30ean eta 31n, Bergarako Labegaraieta auzoan Ekinez jaialdia egingo dute, hirugarrenez; uztailearen 4an eta 5ean izango da laugarren Mondra&Roll jaialdia Monterron parkean; eta zazpigarren Arrasate Blues jaialdiak hartuko du lekukoa uztailearen 10etik 13ra. Horiez gainera, badira beste batzuk ere: irailean Eskoriatzan egiten duten Errekan Gora jaialdia eta herrietako udalen egitarau bereziak.

Ekinez jaialdia, lehenengoa

Irabazi-asmu bako Bergarako Ekinez elkarteak 2022an egin zuten Agorrosin futbol zelaian, estreinakoz, Ekinez musika jaialdia. Labegaraieta auzoan egin zuten bigarren aldian, 2023an, eta toki berean izango da hirugarrena. Hamasei laguneko lantaldea ari da maiatzaren 30ean eta 31n egingo duten jaialdian lanean. "Orain arte moduan, arloka banatu ditugu egin beharreko lanak. Esaterako: azpiegitura; taberna; komunikazioa; Udalarekin harremanak; akanpalekua... Eta bilerak egiten ditugu gero, erabakiak denon artean adosteko. Lanerako bolutarioak eskatuta, erantzun ona izan dugu, baina lagundu nahi duten guztiendako atepak zabalik ditugu oraindik", azaldu du antolakuntza taldeko kide Beñat Etxebarriak.

Kontzertuak dira jaialdiaren oinarri, eta, aurreko aldietan moduan, bi agertoki prestatuko dituzte, nahiz eta bestelako gune gehiago izango dituztela ere iragarri duen Etxebarriak: "Jateko eta edateko guneak, skate-gunea, akanpalekua –aurten kiroldegian izango dena, baina dagoeneko txartelak agortuta daude– eta laster iragarriko ditugun beste espazio batzuk".

40 talde Bergarakoan

Aurreko aldietan izan diren hiru talde izan ezik, gainontzekoak estreinakoz izango dira. Euskal Herrikoak dira guztiak, eta eskualdeko talde asko daude; horien artean: Añube; Berandu Baino Lehen; Bidelapurak; Brigade Loco; Inguma; Kaleko Urdangak; Kaparrak; Kontralde; Neallta Fola; Nick Linböt; No Limits; Orhi; Sotoalde; The

Clayton; Debagoieneko musikariak dituzten Chuleria Joder eta Pubic Enemy; eta Danbaka-Ekinez saria irabazi zuen Aretxabaleako 721 Gogor Gabiltza.

Martxoaren 26an argitaratuko dituzte egunez eguneko kartelak, baita eguneko sarrerak ere. "Orokorrean, oso ondo doa salmenta. Bi egunerako bonua 40 eurotan dago eskuragarri, *Ekinezjaialdia.com* atarian, eta, datorren eguaztenean hasita, egubakoitzerako txartela 25 eurotan erosi ahalko da, eta 30 eurotan zapaturakoa".

Monterronen, nazioartekoak

Mauka musikagintzak, Jimmy Jazz aretoak eta HFMN Crew ekimenak, Arrasateko Udalaren babesarekin, antolatzen duten punk, oi! eta hardcore eszenako Arrasateko jaialdirako prestaketa lanak ere bide onetik doaz. Uztailearen 4an eta 5ean, aurten laugarrenez egingo duten jaialdian hogeita talde izango dira Arrasateko erdigunean dagoen Monterron parkeko agertoki gainean. Nazioarteko musika talde heteranoak gonbidatu dituzte aurten ere; horien artean: The Toy Dolls; The Selecter; The Exploited; DRI eta The Pioneers; baina badira atzeritik ekarriko dituzten talde gehiago ere; besteak beste: Street Dogs; Michael Mc Colgan and The Bomb Squad; Puffer eta Far For Finished.

Aurreko aldietan moduan, euskal taldeei ere tokia egin diete, eta eskualdeko musikariak

ere gonbidatu dituzte; esaterako, Eskoriatzako eta Arrasateko musikariak batzen dituen 80ko hamarkadan sortutako Heriotza taldea. Horrez gainera, Iruñerriko Street Wise taldea ere Monterronen izango da, baita Ekinez jaialdian ere parte hartuko duten Chuleria Joder eta The Friday's Crew.

Dagoeneko eskuragarri daude sarrerak, *Musikaze.net* atarian; bi egunerako bonua 85 eurotan eta egunetakoak 47 eurotan.

Zazpigarren Arrasate Blues

Ibai-arte merkatari elkarteak Arrasateko Udalaren laguntzarekin antolatzen duen Arrasate Blues jaialdiko arduradunak egitaraua ixten ari dira. "Euskal taldeak izango dira, ohi moduan, protagonista nagusi, baina atzerriko musikariak ere gonbidatu ditugu; esaterako, AEBetako Sugaray Rayford handia eta aurreko aldian gurean izan zen Greg Izor. Aurten, bereziki, harmonikari eman diogu garrantzia; hori horrela, instrumentu horrekin abilak diren askotariko musikariak ekarriko ditugu; besteak beste: Joan Paul Cumellas katalana; Iparraldeko Nico Wayne Tous-saint; Emilio Arsuaga madrildarra eta Sevillako Mingo Sal-laguer, baina baita Paul San Martin donostierra eta Arrasateko harmonika-jole bat ere. Emanaldi guztiak dohainik dira", dio Arrasate Blues jaialdiko zuzendari Jon Apraizek.

**MAIATZAREN 30EAN
ETA 31N EGINGO
DUTEN EKINEZ
MUSIKA JAIALDIAN 40
TALDE IZANGO DIRA**

**IBILBIDE LUZEKO
NAZIOARTEKO MUSIKA
TALDEAK ETA EUSKAL
HERRIKOAK IZANGO
DIRA MONTERRONEN**

**HARMONIKA IZANGO
DA, BEREZIKI,
ARRASATE BLUES
JAIALDIAN
PROTAGONISTA**

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Bergara. Mekolalden baserria salgai. 12 hektarea, pinu eta fruitu arbola ezberdinez inguratuta. Interesatuok deitu hurrengo telefono zenbakietara: 943 76 49 61 edo 644 40 93 67

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Alokairu bila nabili Bergaran. 2 edo 3 logela izatea eskertuko nuke. Bergarako Udaltxan ari naiz lanean. Deitu 645 72 92 87 telefono zenbakira.

Debagoiena. Hiru logela duen etxebizitza bila dabilen familia gara. Deitu telefono zenbaki honetara: 682 54 49 16

Oñati. Alokairu bila dabilen bikote oñatiarra. Arduratsuak eta lan finkoarekin. Deitu 697 76 25 02 telefonora.

Oñati. Alokairuko etxebizitza baten bila nabili Oñatin. Emakume bakar batek hartuko du. Etxea hutsik egotea posible bada, askoz hobeto, baina ezinezkoa bada, ez da ezer gertatzen. Ahal dela, bi logelako etxe bat. Deitu 688 63 09 79 telefono zenbakira.

Oñati. Oñatin pisu bila dabilen 4 pertsonako familia gara. Hiru logeladun etxebizitza izatea nahiko genuke. Diru-sarrerara frogagarriak ditugu. Deitu telefono zenbaki honetara: 643 89 45 93

Oñati. Oñatin, bi logela dituen pisu bila nabili. Deitu telefono zenbaki honetara: 663 11 75 10.

4. LANA

402. ESKAERAK

Arrasate eta inguruak. Asteburuetan lan egiteko gertu dagoen emakumea, larunbateko 14:00etatik igandeko 20:00etara bitartean. Garbiketa lanetan edo nagusien zaintzan lan egiteko gertu. Deitu telefono zenbaki honetara: 642 49 94 09

Bergara edo Arrasate. Pertsona nagusien zaintzan, garbiketa lanetan, sukaldetan edo bestelako lanetan aritzeko gertu dagoen emakumea. Astebarrruan 11:00etatik 17:00etara biartetan lan egiteko nuke eta asteburuetan edozein ordutegira moldatzeko aukera. Deitu 602 80 15 38 telefono zenbakira.

Bergara eta Antzuola. Emakume euskalduna gertu Bergaran eta Antzuolan zaintza lanak egiteko, egunez edo gauzez. Esperientzia eta soziosanitario ikasketak ditut. Telefonoa: 637 52 89 83

Bergara eta inguruak. Bergarako neska euskalduna umeak zaintzeko prest herrian bertan edo inguruetan. Hezkuntzan eta Haurreskoletan esperientzia nituzke. Harremanetarako deitu hurrengo telefono zenbakira: 684 14 95 54

Bergara eta inguruak. Neska gaztea, nagusiak zaintzeko gertu Bergara eta inguruetan. Esperientzia etxeko lanetan eta nagusien zaintzan. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Laguntza behar baduzu, jarri nirekin harremanetan. Telefonoa: 641 36 77 31

Bergara, Antzuola edo Arrasate. Etxean bertan bizi izaten, orduka, asteburuetan edo bestela lan egiteko nuke. Pertsona nagusien zaintzan eta garbiketa lanetan aritzeko gertu. 602 82 99 55 edo 632 20 07 85

Debagoiena. Garbiketa lanak egiteko nituzke taberna zein etxeetan. Deitu 687 61 55 05 telefono zenbakira.

Debagoiena. Bergarako emakumea pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Etxe etxeko laguntza titulazioa daukat. Esperientzia sukaldari lanetan. Deitu 688 72 88 97 telefono zenbakira.

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egiteko nuke pertsonen zaintzan edo etxeko lanak egiten. Soziosanitario titulua daukat. 641 51 13 06

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egiteko gertu. Pertsona nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko nituzke. 612 47 42 76

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egiteko nuke pertsonen zaintzan edo garbiketa lanak egiten. Deitu telefono zenbaki honetara: 632 57 77 05

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egiteko nuke pertsonen zaintzan edo garbiketa lanak egiten. Deitu telefono zenbaki honetara: 631 44 72 39

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egiteko nuke pertsonen zaintzan. Soziosanitario ikasketak ditut. Telefonoa: 627 89 29 91

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egiteko gertu. Telefonoa: 627 03 16 40

Debagoiena. Etxeko lanetan eta zaintzan arituko nintzateke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Soziosanitario titulua daukat. 632 89 09 25

Debagoiena. Garbiketa lanetan edota nagusien zaintzan aritzeko gertu. Malgutasun osoa. Telefonoa: 631 93 11 90

Debagoiena. Gizon arduratsua pertsonak zaintzeko gertu. Hamahiru urteko esperientzia eta gomendio onak ditut zaintzan. Kotxea, soziosanitario titulua eta legezko agiriak ditut. Gidari partikular gisa ere lan egiteko nuke. Astelehenetik ostiralera lan egiteko prest. 662 43 08 54

Debagoiena. Gizezkoa eraikuntza laguntzaile gisa, pertsona nagusien zaintzan edo garbiketa lanetan aritzeko prest. 639 31 13 25

Debagoiena. Gizezkoa pretsona nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Berehalako prestutasuna. 665 37 06 94

Debagoiena. Goizez, orduka, lan egiteko gertu dagoen emakumea. Zaintza edota garbiketa lanetan. 651 96 78 69

Debagoiena. Nagusiak edo umeak zaindu edota garbiketa lanak egiteko gertu. Berehalako prestutasuna. 612 41 02 49

Debagoiena. Nagusiak edo umeak zaindu edota garbiketa lanak egiteko gertu. Malgutasun osoa. 632 54 45 86

Debagoiena. Neska arduratsua arratsaldeetan adinekoen zaintzan, garbiketan edo konpainia egiten lan egiteko. Legezko agiriak eta soziosanitario titulua ditut. Telefonoa: 682 31 97 37

Debagoiena. Orduka lan egiteko nuke, aste barrruan zein asteburuetan. Pertsona nagusien zaintzan lan egiteko gertu. Bestela lan mota batzuetara moldatu naiteke. Telefonoa: 631 34 11 68

Debagoiena. Pertsona nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egiteko nuke. 613 58 95 70

Debagoiena. Pertsona nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko gertu. Etxean bertan bizi izaten, asteburuetan edo orduka lan egiteko nuke. Telefonoa: 612 56 12 39

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko gertu dagoen emakumea naiz. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egiteko nuke. Telefonoa: 672 09 50 14

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko prest dagoen gizona. Soziosanitario titulua daukat. 624 72 97 80

Debagoiena. Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egiteko nuke, baita asteburuetan ere. Telefonoa: 633 17 32 15

Debagoiena. Pertsona nagusiak zainduko gertu dagoen emakumea. Legezko agiriak eta soziosanitario titulua ditut. 625 25 57 78.

Debagoiena. Pertsona nagusiak zainduko prest dagoen emakumea. Soziosanitario titulua eta zazpi urteko esperientziarekin. Arratsaldez edo gauzez lan egiteko gertu. 634 02 11 87

Debagoiena. Pertsona nagusiak zainduko prest. Astelehenetik ostegunera goizetan eta ostiraletik igandera malgutasun osoa. 624 09 84 65

Debagoiena. Pertsona nagusiak zein umeak zainduko nituzke, baita garbiketa lanak egiteko ere. Malgutasuna eta berehalako prestutasuna. Telefonoa: 602 12 13 00

Debagoiena. Pertsona nagusien edo umeen zaintzan eta garbiketa lanetan aritzeko gertu dagoen neska gaztea naiz. Erizain laguntzaile ikasketak eta soziosanitario titulua ditut. Berehalako prestutasuna daukat. Neska arduratsua naiz. 673 64 41 99

Debagoiena. Pertsona nagusien zaintzan edo garbiketa lanak egiteko gertu. Orduka lan egiteko aukera. Erizaintzako laguntzaile ikasketak ditut. 620 23 58 15

Debagoiena. Pertsona nagusien zaintzan edo garbiketa lanak egiteko gertu. Orduka lan egiteko aukera. Erizaintzako laguntzaile ikasketak ditut. 620 23 58 15

egiteko nuke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egiteko prest. 632 03 42 43.

Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara eta Oñati. Pertsona nagusiak zainduko nituzke etxean bertan bizi izaten edo bestela. 4 urteko esperientzia daukat. Telefonoa: 603 30 03 77

Ingeniaritzako matematika klaseak. Ingeniaritzako lehenengo mailako matematika klaseak hartuko nituzke. Interesatuok, deitu 688 64 92 63 telefono zenbakira.

6. MOTORRA

604. BESTELAKOAK

Karabana errentan hartu. Alokatzeko karabana bila gabiltza. Ahal bada txikia, 4 pertsonarentzat. Uztaila erdikaldetik abuztu erdikaldera bitartean. Bola eta matrikula badaukagu. Telefonoa: 615 73 45 53

7. ANIMALIAK

704. BESTELAKOAK

Katukume adoptatu nahi dut. Hiru hilabeteko katukume arra adoptatu nahi dut. Etxean jaioa. Deitu 634 42 85 11 telefono zenbakira.

ZORION AGURRAK



ARRASATE
Añer Olmo Larrea
Martxoaren 24an, 9 urte. Zorionak, Añer! Ondo pasa zure egunean. Besarkada handi bat etxeko partetik. Maite zaitugu!



BERGARA
Izar Unamuno
Martxoaren 22an, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Primeran ospatu zure eguna lagun eta familiarekin!



ARRASATE
Izaro Luengo
Martxoaren 20an, 4 urte. Zorionak, printzesa! Egun zoriontsu bat pasatu! Muxu erraldoia etxeko partetik! Izugarri maite zaitugu!



OÑATI
Oihane Orueta Diez
Martxoaren 20an, 3 urte. Zorionak, Oihane! Jarraitu irribarre polit horrekin gure bizitzak alaitzen. Egun polita pasa polittori. Patxo potolo bat etxeko danon partetik. Asko maite zaitugu!!



OÑATI
Alaitz Isasti Arkauz
Martxoaren 17an, 12 urte. Zorionak, polittori! Ondo pasau eguna. Asko maite zaitugu.



ARAMAIO
Raul Perez Bideburu
Martxoaren 17an, 33 urte. Zorionak zure familiaren partetik! Ama, aita, Alicia eta Edu.



BERGARA
Madi Abajo Perez
Martxoaren 16an, 3 urte. Zorionak, Madi! Infinito maitxe zaitxugu!



ARRASATE
Irai Zabaleta Urteaga
Martxoaren 14an, 7 urte. 7 urte gure xagutoak! Zorionak maittea...



ARRASATE
Laia Castillo Romero
Martxoaren 13an, 8 urte. Zorionak, Laia! Jarraitu hain alai eta irrifartsu gure bizitzak alaitzen. Disfrutau egunaz poxpoltinxo! Muxu erraldoiak.

Korosti
Inmobiliaria

Bergara:
Goenkale,
100m², familiabakarra,
3 solairukoa, 3 logela,
egongelan tximinia.
270.000€

Bergara: Bolua,
96m², 3 logela, 2 komun,
balkoia, dena
kanpoaldera, 2 garaje
aukeran.
215.000€

Bergara:
Zurradero,
81m² 3 logela,
2 komun, trastelekua,
igogailua.
270.000€

Ibargarai 3 BERGARA
Tel.: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

Informazio
gehiago:



IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta *Goiena.eus/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitez Goienaren ordezkartzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

HILDAKOAK

- **Teo Bernal Diaz.** Antzuolan, martxoaren 18an. 82 urte.
- **Maria Teresa Laskurain Lete.** Antzuolan, martxoaren 19an. 90 urte.
- **Sole Gorrotxategi Ruiz.** Aretxabaletan, martxoaren 13an. 94 urte.
- **Markeliñe Mendieta Garmendia.** Aretxabaletan, martxoaren 15ean. 89 urte.
- **Clemente Olivenza Silva.** Aretxabaletan, martxoaren 18an. 66 urte.
- **Agustin Iturbe Arenaza.** Aretxabaletan, martxoaren 18an. 96 urte.
- **Paco Arguiz Taboada.** Arrasaten, martxoaren 14an. 82 urte.
- **Milagros Mugica Arana.** Arrasaten, martxoaren 16an. 96 urte.
- **Rosario Sagasta Madinabeitia.** Arrasaten, martxoaren 20an. 96 urte.
- **Luis Mari Garitano Alvarez.** Bergaran, martxoaren 12an. 89 urte.
- **Maria Carmen Azkarate San Jose.** Bergaran, martxoaren 19an. 94 urte.

OROIGARRIA



Markeliñe Mendieta Garmendia

—Goian bego—

2025eko martxoaren 15ean hil zen, 89 urte zituela.



*Tia Markelin, beti kantuan eta alai.
Horrela gogoratuko zaitugu.*

Agirre familia.
Aretxabaletan, 2025eko martxoaren 21n.

URTEURRENA

Juan Osa Unamuno

2024ko martxoaren 18an hil zen, 85 urte zituela.



Urteurreneko meza zapatuan izango da, martxoaren 22an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokia-elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2025eko martxoaren 21n.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskelak@goiena.eus

- ▶ Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarría edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 220 € / Goienakideko bazkideendako 195 €
 - ▶ Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 195 € / Goienakideko bazkideendako 160 €
- Goiena: irakurriena Debagoienean.**

Oroilore

Hileta zerbitzuak

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako guztiei euren bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiak izango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beroenak gugan izan dituzuen konfiantzagatik eta maitasunagatik.

Mario, Iban eta Maribi

617 44 21 55
BERGARA • ANTZUOLA • Moyua OÑATI

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ

Egubakoitza, 21 JAIQ: Zarugalde 38 / 943 77 16 39
Zapatua, 22 AZCOAGA-AZCOAGA: Ferrerías 1 / 943 79 15 15
Domeka, 23 JUNCAY: Kontzezino 12 / 943 79 79 99
Astelehena, 24 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
Martitzena, 25 IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39
Eguaztena, 26 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Eguena, 27 ESPAÑOL: Leintzibar 2 / 943 79 18 65

BERGARA EGUNEZ

Egubakoitza, 21 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Zapatua, 22 OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05
Domeka, 23 OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05
Astelehena, 24 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Martitzena, 25 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Eguaztena, 26 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74
Eguena, 27 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87

OÑATI EGUNEZ BAKARRIK

Egubakoitza, 21 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Zapatua, 22 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Domeka, 23 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Astelehena, 24 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Martitzena, 25 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Eguaztena, 26 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Eguena, 27 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58

ARRASATE GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)
2025: FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26

BERGARA GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)
2025: ESTELLA: Matxiategi 3 / 943 76 19 63

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

BERRI-ZAKUA



Maite eta Muxi

Bihar, martxoak 22, ezkonduko dira. "Gora ezkonberriak! Zorionak, bikote! Jarraitu orain arte bezala zoriontsu izaten! Ederto ospatu eguna eta gozatu bidaiak! Muxu erraldoi bana, atuna eta patataren partetik".



Koben Eguna

Koben Egunaren bueltan, hainbat ekintza berezi egin zituzten aurreko asteburuan Arrikrutzen. Haitzuloa jendez bete zen, umeak eta helduak, barruko altxorrak ikusteko gogoz.



Zikloturistak

Emakumezko zikloturisten topaketa egin zuten aurreko domekan Bergaran. Lehen irteeraren ostean etorriko dira beste batzuk. Hilean irteera bat egiteko asmoa dute.

ASTEAGA GOIENA TELEBISTAN

**UMA ULAZIARI
ELKARRIZKETA**

Joni Ubeba kazetariak egingo du berba idazle mutrikuarrarekin; besteak beste, *Euskal Herriko greba feministak* liburuaz.

'*Elkarrizketa*'

Egubakoitza, 20:00 eta 22:00

**ASTEBURUKO KIROL EMAITZAK**

Uzarragako ziklismo igoera, Mondraren eta Bergararen arteko derbia eta MUREN partidua izango dituzte hizpide.

'*Harmailatik*' Astelehena, 20:00 eta 22:00

**KAZETARI GAZTEAK, IZAR BEDIAREKIN**

MUKO saskibalo jokalariekin egongo dira Arizmendi Ikastolako Almen guneko ikasleak, Imanol Belokik lagunduta.

'*Galdegazte*' Martitza, 20:00 eta 22:00

**FELIX ZUBIA MEDIKUARI
ELKARRIZKETA**

Osasungintzak dituen hainbat erpini buruz egingo dute berba Goiatz Arana kazetariak eta Felix Zubia medikuak.

'*Berbagai*' Eguaztina, 20:00 eta 22:00

**MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA**

Mugikortasuna eta garraioa izango dituzte hizpide, hainbat alorretatik, *Saretzen* saioaren baitan.

'*Saretzen*' Eguena, 20:00 eta 22:00



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 21**ELGETA 'Artista-liburuak' tailerra**

HH-2 eta LH-1 artekoak 16:30ean eta LH-2 eta LH-6 artekoak 18:30ean. Laguntzaile batekin hartu beharko dute parte. Ostean, erakusketa bat egingo dute. *Liburutegian, 16:30ean.*

OÑATI Odola emateko eguna

Aurrez hartu behar da ordua: 943-00 78 84. *Enpresagintzan, 16:30ean.*

BERGARA 'Documento de voluntades anticipadas' hitzaldia

Doluaren emagin Amaia Zelaia egingo du berba. Leku mugatuak. Izena emateko: 600 83 32 22. *Labia espazioan, 18:00etan.*

ARRASATE '55 urte dantzan' erakusketa

Txikitxu-Arrostaitz taldearen ibilbidea laburtzen duen bilduma. *Kulturaten, 18:00etan.*

ARETXABALETA 'Kalean otso, etxean uso' antzezlan

Neska-mutikoendako ikuskizuna, Patata Tropikala konpainiaren eskutik, Aretxarte merkatariaren elkarteak gonbidatuta. Debalde. *Herriko Plazan, 18:15ean.*

ARRASATE 'Erraiak' dokumentala

Ekain Martinez de Lizarduy eta Isabel Kirze Otxandianok parte hartuko dute, Emakume Txokoak gonbidatuta. *Kulturaten, 18:30ean.*

BERGARA 'Mito eta historiaren arteko ur nahasietan' hitzaldi-afaria

Luis Mari Zaldua Etxabek egingo du berba, Lanbroa Kultur Elkartearen eskutik. *Irizar jauregian, 18:30ean.*

OÑATI Rap gaua

Arrasateko lxsyiroi eta Oñatiko Andutx, Loren eta Aran eta DJ Kepix egongo dira oholtza gainean. Sarrerak, hiru euro. *Gaztetxean, 19:00etan.*

ESKORITATZA Ahoz Aho jaialdia

Uruguako Patricia McGill kontalariaren saioa, helduendako. Debalde. *Zaldibar antzokian, 19:00etan.*

BERGARA 'Conguito' film laburra

David Ontoriaren lana ikusi ostean, mahai-ingurua egongo da, Ndank Ndank elkarteak gonbidatuta. *Seminarioan, 19:00etan.*

ARRASATE Udaberriko kantu-afaria

Arizmendi Ikastolako Gaztelupeko 4. mailako ikasleen eskutik. *Arimazubiko patioan, 20:30ean.*

BERGARA**Juan Pablo Balcazar Trio**

Txapa Irratiaren 40. urteurrenoko ekitaldia. Sarrerak, zortzi euro. *Kartzela zaharrean, 22:00etan.*

ESKORITATZA Vietcong 68 taldea

Punk-rock taldearen emanaldia. *Inkernu tabernan, 22:00etan.*

ZAPATUA 22**ARRASATE 'Natura birziklatzen' eskulan tailerra**

Pili Arin artista bergararrarekin. *Eskuz dendan, 10:00etan.*

ARAMAIO Auzolana

Bankuak jarriko dituzte frontoi inguruan eta lbargoian; eta loreontziak mugituko dituzte. *Bizente Goikoetxea plazan, 10:00etan.*

BERGARA Bisita gidatua Olaso Dorrera

10:15ean, euskaraz; eta 12:15ean, gaztelaniaz. *Olaso dorrean.*

ESKORITATZA Komiki tailerra

Olaia Benito ilustratzailearekin; 10-14 urte artekoendako. *Bibliotekan, 11:00etan.*

OÑATI Bisita gidatuak Arrikutzen

11:00etan, 12:00etan, 13:00etan eta 16:30ean. Izena emateko, 943-08 20 00 zenbakia. *Arrikutzen.*

ARRASATE Ludoteka ibiltaria

3 eta 12 urte arteko zuzendutako aisialdia, Txatxilipurdiren eskutik. Orduetgia: 11:30-13:30. *Erguingo gazte txokoan, 11:30ean.*

ARRASATE 'Herria kantari' abesbatzen topaketa

Arizmendi Ikastolaren Gazteluondo, Santa Teresa, Urbarri eta Arimazubi gunetako abesbatzak. *Herriko Plazan, 12:00etan.*

ARRASATE 'Scrogge eta mamuak' antzezlan

Charles Dickens *Eguberri kanta* eleberriaren egokitzapen librea egin du Khea Ziater taldeak, umeendako. Sarrerak, bost euro. *Amaia antzokian, 17:00etan.*

ARRASATE LHko 6. mailakoei ongietorria

17:00etan, ate irekitzea; 17:30ean, lehiaketa; 19:00etan, merienda; eta 20:00etan, disko-festa. *Tren geltokiko gaztelekuan.*

BERGARA 'Afrobeat' dantza-tailerra

Arrazakeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira, Ndank Ndank elkartearen eskutik. *San Martin plazan, 18:00etan.*

DOMEKA 23**BERGARA 'Escape the museum'**

Aurrez eman behar da izena. Plaza mugatuak: hamar. *Laboratoriumen, 11:00etan.*

OÑATI 'Altzorraren bila' Arantzazun

Ibilbide irisgarrian egingo dute. Izena emateko: 943-78 28 94 edo arantzazu@gipuzkoanatura.eus. *Parketxean, 11:00etan.*

ELGETA Konkis jolasa

2008 eta 2012 urte artean jaiotakoendako. Aurrez eman behar zen izena. *Mendizaleen plazan, 16:00etan.*

ESKORITATZA 'Piraten istorio bat' ikuskizuna

Umeendako, Erre taldearen eskutik. Sarrerak, hiru euro. *Zaldibar antzokian, 17:00etan.*



JORDI CAPS

ARETXABALETA Jordi Caps magoaren emanaldia

Telebistako *Got talent* saioa irabazi zuen magoaren saio bikoitza. Sarrerak, sei euro. *Arkupen, 17:00etan eta 19:00etan.*

ARRASATE 'Familia jolasean'

0-8 urte arteko haurrak dituzten familiek elkar ezagutzeko eta elkarrekin jolasteko aukera. *Okendoko ludotekan, 17:30ean.*

ANTZUOLA Kalakan taldea

Musika tradizionala eta folk doinuak nagusi. Sarrerak, hamar euro. *Torresoroan, 18:00etan.*

ARRASATE Txantxa jolasak

Gaztetxoendako. *Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.*

ARAMAIO 'Las buenas compañías' pelikula

Ikusiz Gozaturen eta Talde Feministaren eskutik, M8ko egitarauaren baitan. *Kulturatan, 19:00etan.*

OÑATI 'Renata' antzezlan

Kamikaz Kolektiboaren lana, Amançay Gaztañaga, Iraia Elias, Erika Olaizola eta Xanti Agirrezabala aktoreekin. Sarrerak, hamar euro. *Santa Anan, 19:00etan.*

ARRASATE Txantxa jolasak

Gaztetxoendako. *Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.*

ASTELEHENA 24

ARRASATE 'Lehengai kritikoak eta baliabide mineralak. Beharrezko orekaren bila' hitzaldia

Idoia Garatek eta Jon Errandoneak egingo dute berba, Goienagusik gonbidatuta. *Kulturatan, 10:00etan.*

OÑATI 'Gernu inkontinentzia, emakume eta gizonetan. Zer egin genezake?' hitzaldia

Carmen Sacristanek egingo du berba, Pake Lekuren *Ongietorri, udaberria* astearen baitan. *Pake Lekun, 18:00etan.*

ARETXABALETA Jordi Caps magoa

Telebistako *Got talent* saioa irabazi zuen Caps magoak. Ikusle zorrotzenak harrizko duen trebetasuna erakutsiko du Aretxabaletan egingo dituen bi saioetan, 17:00etan eta 19:00etan. Sarrerak, sei eurotan. *Etzi, domeka, Arkupen, 17:00etan eta 19:00etan.*

OÑATI 'Habitat: ezkutatu diguten historia' bisita gidatua

Nabarraldeko kide Beñi Agirrerekin. *Kultura etxean, 18:30ean.*

MARTITZENA 25

ELGETA Sukaldaritza ikastaroa

Loli Ibañezekin. *Ozkarbin, 17:00etan.*

OÑATI Txokolate-jana

Pake Lekuren *Ongietorri, udaberria* astearen baitan. Txartelak, bi euro. *Pake Lekun, 18:30ean.*

ESKORIATZA Musika eskolako emanaldia

Udaberriko kontzertua egingo dute. *Zaldibar antzokian, 18:30ean.*

BERGARA Laburbira

Zortzi film labur emango dituzte. *Seminarixoa, 19:00etan.*

OÑATI 'Ezkutatatu diguten historia' hitzaldia

Idoia Arrieta historialariak egingo du berba, Oñati Nabarralde taldeak gonbidatuta. *Zinema-aretoa, 19:00etan.*

ARRASATE Laburbira

Zortzi film labur emango dituzte. *Amaia antzokian, 19:30ean.*

EGUAZTENA 26

BERGARA 'Sindrome metabolikoa: loditasuna, hipertentsioa eta diabetesa' hitzaldia

Felix Zubia medikuak egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta. *Seminarixoa, 10:00etan.*

BERGARA Odol-ateratzeak

Ordua hartzeko: *Gotatanta.eus. San Joxepen, 16:30ean.*

ARRASATE 'Nerabezaroa, erronka bat norentzat?' tailerra

Agipad elkartearen eskutik, 12-16 urte arteko seme-alabak dituztenendako. *Kulturatan, 18:00etan.*

OÑATI 'Ekialde ertaina eta Israelgo palestinarren gatazka' hitzaldia

Ostean, solasaldia eta poesia errezitaldia. *Kultura etxean, 18:30ean.*

ELGETA Astrotopaketa

lilatari elkarteak gidatuta. *Liburutegian, 18:30ean.*

BERGARA 'Conclave' pelikula

Jatorrizko bertsoan eta azpitoluekin. Sarrerak, hiru euro. *Seminarixoa, 20:00etan.*

EGUENA 27

BERGARA Baleari buruzko erakusketa

Aquarium museoarekin eta Fernando Baptistarekin elkarlanean. *Laboratoriumen, 12:00etan.*

OÑATI Bingo berezia

Sari bereziekin, Pake Lekuren *Ongietorri, udaberria* astean. *Pake Leku, Oñati 17:00etan*

ARRASATE Guraso abileziak garatzen trebatzeko tailerra

Leyre Canoren eskutik eta 6-11 urte arteko seme-alabak dituztenendako. *Kulturatan, 17:30ean.*

ESKORIATZA Olazarren batzar orokorra

Bazkideendako. *Kultura etxean, 18:00etan.*

BERGARA Ludopatiari buruzko hitzaldia

Malko enpresako kideek egingo dute berba. *Irizar jauregian, 18:00etan.*

ESKORIATZA 'Ibili alai, ipuinetan blai' ipuin kontaketa

Izaskun Mujika kontalariaren saioa, 4 urtetik gorako umeendako. *Bibliotekan, 18:00etan.*

ARRASATE Literatura solasaldia

Bea Salabarriren *Mesfida zaitetz* liburuaren gaineko saioa, Alex Gurrutxagak gidatuta. *Kulturatan, 18:00etan.*

OÑATI Ahoz aho jaialdia

Larraitz Urruzolaren ipuin kontaketa, umeendako. *Liburutegian, 18:00etan.*

OÑATI Musika emanaldia

Aloña abesbatza, Jose de Azpiazua abesbatza eta triki-pandero taldea, Pake Lekuren *Ongietorri, udaberria* astearen baitan. *Santa Ana antzokian, 18:30ean.*

BERGARA Monzon Ganuza sari-banaketa ekitaldia

Amaia Zubiriak jasoko du aurtengo saria. *Seminarixoa, Bergara 18:30etan*

ARAMAIO Bea Asurmendiren kontzertua

Asteartea diskoaren aurre-estrenaldi kontzertua. Sarrerak, hiru euro. Jasotako dirua musika etxera bideratuko dute. *Kultura etxean, 19:00etan*

OÑATI 'Secretos de un crimen' filma

Zineklubean, jatorrizko bertsoan eta azpitoluekin. Sarrerak, 5,50 euro. *Zinema-aretoa, 19:30ean.*

ARRASATE Kooltur Ostegunak: Kaskezur

Elizondoko laukotearen emanaldia. Sarrerak, zazpi euro. *Gaztetxean, 22:00etan.*

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

Lee Miller

Domeka eta astelehena: 19:30.

Looney tunes (euskaraz)

Domeka: 17:00.

BERGARA

SEMINARIXOA

Daniela forever

Domeka eta astelehena: 19:30.

Paddington: aventura en la selva

Domeka: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

Lee Miller

Egubakoitza: 22:00.

Zapatua: 19:30, 22:00.

Domeka eta astelehena: 19:30.

Paddington: aventura en la selva

Zapatua eta domeka: 17:00.

aretxabaleta

ARKUPE

A different man

Egubakoitza: 22:00.

Zapatua eta domeka: 19:30.

Astelehena: 16:00.

Azerik eta erbik basoa salbatzen dute

Zapatua eta domeka: 17:00.

GASTEIZ

FLORIDA

A complete unknown

Egubakoitza eta zapatua:

19:30, 22:00.

Domeka: 19:30.

Astelehena, eguaztrena eta eguena:

17:00.

Martitzena: 16:45.

Disney Blancanieves

Egubakoitza eta zapatua:

17:00, 19:15, 21:45.

Domeka: 12:00, 17:00, 19:30.

Astelehenetik eguaztrena:

17:00, 19:30.

Eguena: 17:00, 19:00.

El secreto del orfebre

Egubakoitza eta zapatua:

16:30, 20:35.

Domeka: 12:00, 16:30.

Astelehenetik eguenera: 18:30.

La chica de la aguja

Egubakoitza eta zapatua:

17:00, 22:00.

Domekatik eguenera: 17:00.

Lee Miller

Egubakoitza eta zapatua: 22:30.

Domeka: 12:00, 20:30.

Mickey 17

Egubakoitza eta zapatua:

16:45, 22:15.

Domeka: 16:45.

Astelehenetik eguenera: 19:15.

Misericordia

Egubakoitza eta zapatua:

18:30, 22:35.

Domeka: 18:30, 20:35.

Secretos de un crimen

Egubakoitza eta zapatua: 19:30.

Domeka: 12:00, 19:30.

Astelehenetik eguenera:

17:00, 19:30.

The alto kings

Egubakoitza eta zapatua: 17:00,

19:30, 22:15.

Domekatik eguenera: 17:00, 19:30.



AZKEN BERBA

ANDER ETXEBERRIA

Sustraituta

Ardura handia dago eskal lurraldeetan ixten edo eskuz aldatzen ari diren enpresa industrialengatik.

Batetik, multinazional batzuk alde egiten ari dira. Etorri ziren, ez bertakoak oso majoak garelako, baizik eta inguruan baldintza aproposak identifikatu zituztelako: langile kualifikatuak, formakuntza-zentroak, hornitzaile-sarea, eskulan merkeagoa... Lantegia errentagarria bada ere, beste herrialde batzuk, urteak igarota, erlatiboki erakargarriago bihurtzen dira eta hara eramaten dute.

Bestetik, bertako *betiko* fabrika batzuk kanpoko eskuetan geratzen ari dira: enpresariak, jubilatutakoan, lurraldean *sustraituta* dagoen enpresa hori kanpoko funts edo multinazional bati saltzen dio.

Erakundeak eta agente sozialak neurriak hartzen hasiak dira: "Politika industrial" baten aldarrikapena, "Euskal Finantza Aliantza" akordioa eta abar.

Ez dudana ulertzen da zergatik enpresa formula kooperatiboa ez den agertzen debate horietan. Langileek, aldi berean enpresaren jabe direnean, nekez bozkaturiko dute negozioa saltzea. Aitzitik, formakuntzaren eta berrikuntzaren alde berrikuntzaren alde borrokatuko dira, enpresak sustraituta jarrai dezan.

GAZTE GARA GAZTE

"Erdi Arora itzuliko nintzateke, orduko egoera bizitzeko"

MIREN ANTIXIA AIZPURUA
IRAKASLEA ETA GLUTENBAKUAK TALDEKO KIDEA

J. Murua Mesonero ARETXABALETAK
Irakasle-ikasketetan graduatua da Miren Antxia Aizpurua (Aretxabaleta, 1999), eta Historia izan da, betidanik, haren ikasgai gustukoena. Futbolaria izandakoa ere bada, baina gaur egun musika bihurtu da haren zale-tasun nagusi. Herri inguruko mendietan ibiltzea ere gustuko du; izan ere, oso *atxabaltarra* dela onartu du Antxiak.

Hezkuntzan eta kirolean oinarritu gura izan dituzu ikasketak?

Bai, betidanik gustatu izan zaizkit bi alor horiek, eta, erabakia hartu behar izan nuenean, argi izan nuen hortik bideratu nahi nuela nire etorkizuna. Beraz, ez nuen zalantza askorik izan. Historia, Geografia edota Euskal Filologia ikastea ere pentsatu nuen, baina gerora irakasle izateko.

Urteetan ibili zara futbolean, baina orain beste modu batera bizi duzu; garagardo batekin eskuetan?

Garagardo batekin baino gitarrekin nahiago; kar-kar. Orain nire zaletasuna musika da, eta buru-belarri nabil nire taldearekin batera abesti berriak sortzen eta entseatzen. Esan beharra daukat oraindik ere futbola ikusten dudala eta gustuko

dudala, baina noizean behin eta lagun artean ikusteko.

Futbola utzi ostean, harrapatu zaitu beste kirolen batek?

Futboleant urte luzez aritu naiz, eta, egia esan oso, bizipen politak izan ditut; oraindik ere batzuetan faltan igartzen dut. Partiduren bat jokatzeko gogoia izaten dut sarritan. Mendiko bizikletak harrapatu nau, eta oso gustura egiten dudana jardura bat da. Herri inguruko mendiak baino ederragorik ez dago, eta haietaz gozatzea izugarriko plazera da niretzat.

Musikan ere badiharduzu; anaiekin etxean kontzertuak jotzeak izan du eraginik?

Txikia nintzenetik izan dut gogoia gitarra jotzeko edota talde bat edukitzeko. Bi anaiei etxean kontzertuak jotzeko eskatzen nien; agian, horrek ere nahi hori ez itzaltzeko bultzada eman zidan. Duela hiru urte hasi nintzen gitarra jotzen, nire lagun Maialenekin, eta gogo handiz hartu genuen proiektu hura. Gaur egun talde bat daukagu, eta gozatzen eta ikasten ari naiz. **Historiaren frikia zarela diozu; non-go historiak harritu zaitu gehien?** Zaila egiten zait bat aukeratzea, baina bat esatearren: Espainia-



Miren Antxia Aizpurua aretxabaletarra. M.A.A.

MOTZEAN

Bailarako mendi bat.

Maruatz.

Ikasgai gustukoena.

Historia.

Aretxabaletarra, 1etik 10era...

Aretxabaletarra: 0;
atxabaltarra: 10.

Patata-tortilla, nola?

Tipularekin eta berakatzarekin.

Bidaiazteko toki bat.

Galizia.

ko gerra. Izan ere, gure gizarteak izugarriko eraldaketa politiko eta soziala jasan du hamarkada hauetan guztietan, gure aitona-amonen bizipenetatik oso urrun gaude eta askotan ahaztu egiten zaigu nondik gatozen.

Denboran atzera eginda, historiako zer aro biziko zenuke?

Erdi Arora joango nintzateke. Kuriositatea pizten dit orduko bizimoduak eta gertatutako gerrak. Horrez gain, pelikuletan azaltzen den hiztegia erabiltzen zuten ziurtatzea ere gustatuko litzaidake; kar-kar.

MIGUEL ALTUNA
Lanbide Heziketa
zure zubia

Ateak Zabalik Jardunaldiak

Martxoak 29 10:00 · 11:30
Maiatzak 8 10:30 · 16:00 · 18:00

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK (D Gradua) | GOI-MAILAKO ZIKLOAK (D Gradua) | ESPEZIALIZAZIOAK (E Gradua) | ZIURTAGIRI PROFESIONALAK (C Gradua)

www.maltuna.eus

Agirrebidea, 2, 20570 BERGARA (Gipuzkoa) Tel. 943 899 270 info@maltuna.eus